# Goienkaria

2009ko azaroaren 13a > Egubakoitza > IX. urtea > 397. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"'Alakrana'-ren egoera asko okertu den arte ez dute egoki jokatu, eta hori mingarria da"

**Jose Mari Arana**
Arrasateko bi itsasgizonen aita > 09

**ARRASATE**
**Herriko irudi den dragoia berritu egingo du Kukubiltxok** > 15

**BERGARA**
**Asteburuan 10 tabernak hartuko dute parte pintxo lehiaketan** > 19

**ANTZUOLA**
**Herriko EAJ sortu zeneko 100. urtemuga ospatuko dute bihar** > 29

**KIROLA**
**Aloñaren eta Bergararen arteko derbia etzi Azkoagainen** > 34

**JENDARTEA** > OSASUNA

## Martitzenean hasiko dira jartzen A gripearen aurkako txertoa

**HITZORDUA** Txertoa hartzeko hitzordua hartu beharko da anbulatoriora deituta, astelehenetik aurrera

**KOPURUA** 3.800 txerto iritsi dira gurera, baina bukatu ahala gehiago bidaliko dituzte, kanpainak ez du-eta epe-mugarik

**NORENDAKO?** Txertoa hartu beharko dute arrisku taldeetan daudenek bakarrik; oraindik ez dago prest haurdunendakoa > 05

**JENDARTEA** > OSASUNA

## Erditze erosoagoak helburu

Debagoieneko Ospitalean erditze naturalagoetarako gela bi prestatu dituzte > 06

## G2a

### Serafin Esnaolaren testigantza, argazkitan

erafin Esnaola apaiza zenak Bergarako egonaldian (1964-1992) ateratako argazkien erakusketa zabalduko dute gaur Aroztegi aretoan. Belaunaldi askoren lekukotasuna osatzen dute Aroztegin jarritako argazkiek. Herrigintzan lan nabarmena egin zuen Esnaolak eta hori islatzea da erakusketaren helburuetako bat. Miguel Angel Elkoroberezibar bergararrak osatu du erakusketa eta baita *Serafin Esnaola. Herrigintzaren erretratua* liburua egin ere. Hori ere gaur aurkeztuko du. > 37



**AROZTEGIN** Miguel Angel Elkoroberezibar bergararra Serafin Esnaolak egindako argazkien erakusketa muntatzen, eguaztenean. EDU MENDIBIL

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-35
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47

**JENDARTEA** > OSPAKIZUNA

## Artisau feria etzi Gatzagan

San Milixan feriaren barruan 15 artisau egongo dira; txerria zatitzen ere erakutsiko dute > 33

**EKONOMIA** > LEHEN SEKTOREA

## Jakionek lantegi berria egingo du

Bailarako baserritarren fruta eta barazkiak kontserbatan merkaturatzeko enpresak, Jakionek, plan estrategikoa egin du eta ondorioztatu dute enpresa handiagoa behar dutela. Berria Leintz Gatzagan egingo duten ez da ziurra. > 04



**TEKNOLOGIA** > LURREKO TELEBISTA DIGITALA

# GOITBk badu bere katea, legez emanda, LTDn hedatzeko

**20 URTE IGARO ETA GERO** Tokiko telebistak arautu gabeko egoeran emititzen egon dira orain arte; bailaran, ia 20 urtean

**DIGITALA** GOITBk Lurreko Telebista Digitalera egokitzeko jarraitzen du lanean, eta hori gertatzen denean, 52. kanalean emitituko du



Iñaki Nafarrate, eguaztenean *Goiena Magazinea*-n, Lurreko Telebista Digitalaz berbetan, Arritxu

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Lurreko Telebista Digitaleko (LTD) 52. kanala: horixe da GOITBren frekuentzia edo *etxea*, gutxienez datozen 10 urteotarako, formatu horretan emititzen hasten den unetik aurrera. Hori baieztatu zen joan den astean Eusko Jaurlaritzak emandako baimen administratiboaren bidez. Gaur egun, seinalea LTDra egokitzeko prozesuan bete-betean dago GOITB, eta, hori bukatzen denean, frekuentzia hura gordeta izango du. Horrek esan nahi du Arrasate Telebista sortu zenetik, 1990ean, ia 20 urtean arautu gabe emititzen egon eta gero, azkenean legeak babesten duela GOITB –tokiko gainerako telebisten moduan–, eta haren programazio arduradun Oihane Agirrek dioen moduan, "digitalizazioaren onuretako bat da esparru irrati-elektrikoa arautu egin dela".

GOITBren *enbrioi* izan zen Arrasate Telebistan ibili izandakoek ere ondo ikusten dute neurri hori. Gaur egun Goierri Irrati Telebistako (GITB) zuzendari da Jon Aldanondo, eta hauxe diosku: "Honek dakar egoera kaskar baten amaiera. Legerik egon ez horrek galarazi zuen proiektu serioak ezin egin izatea, segurtasun falta zegoelako". Hori gertatzen zen tokiko telebistek ez zutelako legeak errekonozitutako frekuentziarik edo katerik eta, bat-batean, beste kate batek har zezakeelako frekuentzia hori. Halakorik inoiz ez zaio gertatu GOITBri. Haren aurrekari izan zen ATBko sortzaileetako batek, Jabier Elduaienek, hauxe dio: "Guk beti normal lan egin ahal izan genuen; baina legeztatzea ondo dago, egoera normaldu egiten du eta ardura hori paretik kentzen du".

**URTE ETA ERDIKO EPEA**

Baimen hori jasota, LTDra egokitzeko lanarekin jarraitzen du GOITBk. Horretarako, 18 hileko epea dauka. Horrez gain, abenduaren 31n izango da Debagoienean eta Aramaion itzalaldi analogikoa, ustez betiko telebista seinalea eten egingo den eguna, eta LTD izango dena aire bidez –antena bidez– hedatzen den telebista mota bakarra.

Oraindik ez dago jakiterik GOITB noiz ikusiko den LTD bidez. Erakundeek eurek ere ez dakite; epeak askotan atzeratu izan dira, LTD ezartzeak dakartzan zailtasunen isla. Hala, hasieran, tokiko telebista guztiak 2008an ziren LTDz emititzekoak. Baina telebista horiendako erronka eta lan handia da LTDra egokitzea; orain dauden antena eta errepikagailuak kendu egin behar dira eta berriak ipini. Hori diru asko da. Baina GOITBk lehenbailehen nahi du bere emisioa LTDn hasi. Hala ere, horretarako ados jarri behar dira Debagoienean LTDz emititzeko baimena lortu duten lau kateak. Horietatik bakarrik GOITB dago Debagoienean ezarrita eta dagoeneko hemen emititzen. Lehentasunak ere denendako ez dira berberak. Hala ere, baldintzak berberak dira tokiko telebista guztiendako: Oihane Agirrek dioenez, "oso zaila izango da erkidegoko 15 demarkazioetan 18 hilabeteko epe horretan emititzen hastea tokiko telebistak".


Ospitale zaharrean (gaurko Kulturate) hasi zen ATB, 1990eko otsailean. ARTXIBOA

Hori ikusita, administrazioek euren laguntza agindu dute: Eusko Jaurlaritzak Itelazpi enpresa publikoa sortu du, telebistoi alderdi teknikoa eta instalazioena lantzen laguntzeko. Bestalde, "Foru Aldundiak ere tokiko telebistonganako sentsibilitatea erakutsi du", Agirreren esanetan, eta handik ere laguntzak espero ditu GOITBk.

**MEREZI DU**

Zailtasunak zailtasun, digitalizazioak merezi du, eta euskarazko tokiko telebistendako erronka eta, era berean, aukera bat da. Horrela uste du Arrasate Telebistako hasierako urteetako arduradun Iñigo Astigarragak: "Kalitate aldetik jauzi handia izango da, eta asko igarriko da. Horrek ekarriko du ere telebista hobea egin behar izatea, akatsak ere gehiago igartzen direlako digitalean. Bestetik, euskara filosofiatzat duten kateendako ere ondo dago, leku gehiagora iristeko aukera ematen dielako". Eta Jon Aldanondok ere aukera gisa ikusten du LTD: "Irrikatan gaude hasteko. Orain has gaitezke benetan guk dakiguna egiten, telebista egiten. Telebista berri bat egiteko unea da, programazioan eta euskara mailan igarriko dena".





Barruso aurkezlearekin. GOIENKARIA

**Iñaki Nafarrate** > Arabako Foru Aldundia

## "Araba gehiengoan, egunotan kendu dute telebista seinale analogikoa"

ARRITXU BARRUSO/L.K. > ARRASATE

**Arabako zati handi baten, dagoeneko egin dute itzalaldi analogikoa; denean, Aramaion eta Aiaran izan ezik. Horretaz berba egin zuen *Goiena Magazinea*-n Iñaki Nafarrate aramaioarrak, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka zuzendariak.**

**Zein da telebista analogikoaren eta digitalaren arteko desberdintasuna?**

Bietan, seinalea uhin edo kable bidez iristen da. Nabarmenduko nuke irudiaren kalitatea, soinuaren kalitatea eta baita ere beste informazio mota batzuk sar ditzakegula kanal digitalean.

Seinalea iristeko modua berbera da. Desberdintasuna da LTDren seinalea paketetan ailegatzen dela, eta pakete bakoitzeko lau kanal daude; analogikoan, pakete bakoitzeko kanal bat.

**Kalitatea da abantaila handiena, orduan...**

Bai, duda barik. Zinemaren kalitate berbera da; eta, deskodetzaile berriekin, gero eta informazio gehiago sar dezakegu LTDn.

**Zelan joan da itzalaldi analogikoa Araban?**

Dei batzuk iritsi dira, esanez herri txiki batzuetan arazoak zituztela seinalea hartzeko. Teorian, urriaren 30ean zen kentzekoa seinale analogikoa. Baina uste dut azaroak 10ean kendu zutela. Herri handietan ez dago arazorik, baina, Añana partean eta herrixka batzuetan, emisore berriak ondo doitu barik daude, eta egun batzuk itxaron beharko dute. Baina legeak agintzen du biztanleen %98k ikusi behar dutela LTD, eta Jaurlaritzaren 2007ko akordio baten esanetan, ETBko lau kateek heldu behar dute biztanleen %100engana.

**Baina itzalaldia ez da izan Araba osoan...**

Ez, Aramaion eta Aiaran ez da izan. Araba gehienak seinalea Gasteizko errepikagailu nagusitik hartzen du, baina Aramaiok eta Aiarak, Oitz menditik. Horregatik, han abenduaren 31n izango da itzalaldia.

**Zelan dabiltza erantzuten tokiko telebistak aldaketari?**

Guk ez dugu horren berririk. Foru Aldundiok bakarrik medioak ipintzen ditugu, baina hedapenaz eta mantenuaz Jaurlaritza arduratzen da, Itelazpi elkarte publikoaren bidez.

**Jendeak oraindik zalantzak ditu: zer egin behar da LTD ikusteko? Instalaziorik egin behar da?**

Etxebizitza indibiduala baldin bada, deskodetzailea ipintzea nahikoa da. Baina komunitate baten kasuan, hobe da instalatzaile batengana jotzea eta berak egokitzea antena.

**"Herri handietan, ez dago arazorik LTD jasotzeko; bakarrik, herri txiki batzuetan"**

DATUA

# 6.000

**IKUS-ENTZULE**

CIES erakundearen arabera, GOITBk egunero 6.000 ikus-entzule izan ditu urteko lehen erdian, La Sextak baino gehiago.

ESANAK

### "Legeztatzeak egoera normaldu egiten du eta ardura hori paretik kentzen du"

**Jabier Elduaien** > ATBko aitzindari

### "Euskara filosofiatzat duten kateek leku gehiagora iristeko aukera dute LTDz "

**Iñigo Astigarraga** > ATBko aitzindari

### "Tokiko kateok orain has gaitezke benetan guk dakiguna egiten, telebista egiten"

**Jon Aldanondo** > Goierri Telebista

### "GOITBk lehia handia izango du, eta bere esperientzia baliatu beharko du"

**Andoni Urtzelai** > ATBko aitzindari

Andoni Urtzelai ere ATBko arduradun izan zen, eta bera ez da hain baikor. Bere esanetan, "GOITBk orain lehia askoz handiagoa izango du. Eta hori, hotzean ikusita, ez da ona. Ikusle kantitate berak orain baino askoz kate gehiago ikusteko aukera izango du aurrerantzean. GOITBk testuinguru horretan lehiatzen ikasi beharko du etorkizunean. Edozelan ere, badu abantaila handi bat: urte askotako eskarmentua. Hori baliatu beharko du LTDn lehiakor izaten jakiteko eta lekua egiteko".

GOITB formatu digitalean ikusteko eguna ailegatzen denerako, ikus-entzuleek ez dute ezer egin behar: soilik, 52. katea sintonizatu. Agirrek dioenez, "gaur egun GOITB txarto jasotzen dutenek arazo barik jasoko dute orduan".

**KABLEZ ETA INTERNETEZ**

GOITBk alde dauka Debagoienak duen berezitasun bat: kable bidezko, zuntz optiko bidezko telebista beste inon baino hedatuago dagoela. Horregatik, dagoeneko kablez ikusten duten debagoiendarrek GOITB berdin-berdin ikusten jarraituko dutel itzalaldi analogikoak aire bidez zabaltzen den telebistari bakarrik eragiten diolako. Euskaltel da zerbitzu hori ematen duen enpresa Debagoienean, eta, haren datuen arabera, bailarako etxeen erdiak inguru dauka kablea (EAEn, %40k).

Bestetik, aro digitalari dagokion moduan, GOITBk beste bide batzuk esploratzen dihardu. Hala, dagoeneko badago zuzeneko emisioak Interneten ikusteko aukera: eguenetan, *Goiena Magazinea*-ren barruan emititzen diren alkateekiko elkarrizketak zuzenean ematen dihardu GOITBk *Facebook.com* webgunean duen profilean. Erabiltzaileek GOITBren *lagun* egiteko eta hura ikusteko parada dute. Etorkizunean, LTDk oraindik aukera gehiago zabalduko dizkio GOITBri, esaterako, zerbitzu interaktiboak edo bestelako informazioa modu digitalean emateko parada.







San Migel plazako etxabean dauden instalazioak txiki geratu dira eta lantegi berria egitea aztertzen ari dira Jakionekoak. GOIENKARIA

**EKONOMIA** > LEHEN SEKTOREA

# Jakionek lantegi berriko aurreproiektua urte amaierarako gertu izan nahi du

Gaur egungo instalazioak txiki geratu dira, eta produkzio eta osasun beharrei erantzungo die

Asmoa da lantokia Leintz Gatzagan egitea; baina ez dute bestelako kokapenik baztertzen

**MIRIAN BITERI** > LEINTZ GATZAGA

Jakion hausnarketa prozesuan murgilduta dago. Debagoieneko baserritarren fruta eta barazkiak kontserbatan merkaturatzeko enpresak plan estrategikoa egin du eta hortik ateratako konklusio nagusia da epe laburrera lantegi berria behar dutela, gaur egun Jakion dagoen instalazioak txiki geratu dira-eta. Gaur egun lau lagunek egiten dute lan han.

Jakioneko gerente Susana Aiastuik azaldu digu horren gaineko aurreproiektua garatzen dihardutela orain eta urtea amaitu baino lehen amaituta izan nahi dutela: "Betiko filosofia mantenduz proiektua egiten gabiltza. Besteak beste, planta berriaren azalera eta kostua, zenbat langile eta baserritar behar ditugun, merkatua zabaltzeko dauden aukerak eta hori atera ahal izateko eska daitezkeen laguntzak aztertzen gabiltza. Behin betiko erabakia oraindik hartu barik dago".

**KOKAPENA, GATZAGAN**

Aipatu du asmoa dela instalazio berriak Leintz Gatzagan eraikitzea. Aiastuiren esanetan, "hasieratik herrian apustua egin zen Jakion hemen kokatzeko. Bestalde, baserriarekin duen lotura ere kontuan dugu. Ez da berdina horrelako enpresa bat Gatzagan edo Arrasaten jartzea; azken horrek industriarekin lotura handiagoa dauka". Dena den, ez dute baztertzen bailarako beste herri batean kokatzea.

**JARDUERA BERRIAK**

Fruta eta barazkiak kontserbatan egiten jarraitzeaz gain, lehen sektoreari lotutako jarduera berrietan sartzea ere aztertzen ari dira. Karakolak kontserban saldu nahi dituen Etxarriko enpresa batekin daude harremanetan; baita Lumagorrikoekin ere, salda egin nahi dute-eta horiek. Horietaz gain, ardiak dituztenekin ere harremanetan daude, gaztandegia jartzeko aukera aztertzen.

Aiastuik azaldu du, horren harira, oraingo instalazioetan ezin dituztela animaliak sartu: "Planta horretan linea berria sartu beharko genuke; hain justu ere, animalietatik produktuak ateratzekoa. Komeni da proiektua ahalik eta zabalena izatea, administrazioetara laguntza eske joaterakoan horrek pisu gehiago izateko".

**JARDUERA BERRIAK**

1996. urtean sortu zen Jakion, Debagoieneko baserrietako fruta eta barazkiekin eskuz eta modu naturalean produktuak gertatzeko sortutako enpresa da; hain justu ere, ekoizpenari irtenbidea emateko baserritarrek sortutako elkartetik sortu zen. Bailarako zortzi udalak enpresako bazkide dira.

Hasieran marmeladak gertatzen hasi baziren ere, laster produktuen eskaintza handitu egin zuten. Gaur egun, 30 produktu inguru dituzte; porru-krema eta kiwiarekin egindako menbrilloa dira berrienak.

DATUA

**30**
**PRODUKTU**

Egun, 30 produktu eskaintzen ditu: askotariko marmeladak, azukre bako fruta-pureak eta menbrilloa. Horretaz gain, barazki kontserba asko eskaintzen dituzte.

ESANAK

**"Ez da berdina Jakion Gatzagan edo Arrasaten jartzea; azken horrek industriarekin lotura handiagoa dauka"**

**Susana Aiastui** > Gerentea

## Elkarretaratzea egin zuten Irisarriko hilketak salatzeko

Arrasateko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Plataformak deituta, elkarretaratzea egin zuten joan den eguazten iluntzean, aste honetan Irisarrin izan diren erailketak salatzeko. Esandako hilketak astelehen goizaldean gertatu omen ziren; gizon batek ustez 51 urteko emaztea eta 84 urteko amaginarreba hil egin zituen.

Arrasateko Herriko Plazan egindako elkarretaratzean 20 lagun inguru bildu ziren, *Emakumeei erasorik ez, no a las agresiones a mujeres* lelopean.




OIHANE ISASI

> AZPIEGITURAK

## Diputazioak 418 milioi bideratuko ditu errepideetara

Datorren urtean 418 milioi euro bideratuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak errepide berriak egitera eta daudenak hobetzera. Azpiegitura horien artean daude, besteak beste, Arrasateko mendebaleko saihesbidea eta Beasain-Bergara ardatza.

Arrasatekoa ekainean amaitzeko asmoa dute eta Beasain-Bergarari dagokionez, Urretxu eta Antzuola arteko lanak 2010ean hasiko dira. Azken horren barruan, tunela egingo dute Deskarga saihesteko. Eskoriatzan ere hainbat elizatetako bideak konponduko dituzte.

GIZARTEA > OSASUNA

# A gripearen aurkako txertoa jartzen hasiko dira martitzenean

## Arrisku taldeetan daudenek bakarrik hartu beharko dute txertoa: osasun langileek, segurtasun indarretako kideek eta suhiltzaileek, gaixo kronikoek eta haurdunek

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Datorren martitzenean, hilaren 17an, hasiko dira Debagoieneko anbulatorioetan A gripearen aurkako txertoa jartzen. Astelehenetik aurrera deitu ahal izango da hitzordua hartzeko.

Hasiera batean, arrisku taldeei bakarrik jarriko diete txertoa. Arrisku taldeak izango dira: osasun langileak, segurtasun indarretako kideak eta suhiltzaileak, gaixo kronikoak eta haurdunak. Arrasateko anbulatorioko lehen mailako arreta zerbitzuko buru Gabi Elorriagak azaldu du haurdun dauden emakumeendako txertoa oraindik ez dagoela gertu. Txerto berezia izango da, antigenoen potentzia immunologiakoa handitzen duen osagairik gabekoa. Txertoa prest dutenean hasiko dira haurdunei txertoa jartzen.

**HITZORDUA ESKATU BEHAR DA**

Elorriagak azaldu du arrisku taldean dauden herritarrek Osakidetzak bidalitako gutun bat jasoko dutela. Han azalduko diete azaroaren 16tik aurrera txertoa hartzeko hitzordua eskatu ahal izango dutela. Nork bere herriko anbulatoriora joan beharko du txertoa jasotzera; eta derrigorra izango da aurrez telefonoz deitzea hitzordua egiteko. Gainera, arrisku taldean dauden edo ez argituko diete. "Izan ere, norbait gaixo kronikoa izan daiteke, baina arrisku taldean ez egon. Hortaz, dei dezala anbulatoriora eta guk esango diogu txertoa hartu behar duen edo ez", argitu digu Isabel Arenatzak, Oñatiko erizainen buruak.



Erizaina txertoa jartzen emakume bati. GOIENKARIA

**TXERTOAK**

Bergaran 1.200 txerto jaso dituzte Bergara, Antzuola eta Elgetarako. Arrasaten 2.400 txerto inguru jaso dituzte, eta Oñatin 200 inguru. Esan behar da, baina, kanpaina horrek ez duela epemugarik; hortaz, txertoak bukatu ahala gehiago jasoko dituzte anbulatorioetan.

**GRIPEA PASA DUTENEK, EZ**

Elorriagak azaldu du A gripea pasa dutenek ez dutela zertan txertoa hartu: "Hala ere, badaude kasu batzuk ez dela segurua A gripea izan duten edo ez. Kasu horietan, komeni da txertoa hartzea". Gaineratu du oraindik goizegi dela txertoak ze eragin izango duen jakiteko. "Baliteke behin txertoa hartu eta betiko balio izatea; baina, orain N1H1 birusa den moduan, baliteke datorren urtean beste birus bat izatea eta berriro txertoa hartu beharra egotea", dio Elorriagak.

A GRIPEAREN ERAGINA

### Azkeneko asteetan behera egin du gripeak

Orain dela hiru aste 100.000 pertsonako 500 baino gehiagok A gripea zeukaten; orain, maila hori jaitsi egin da eta 100.000 pertsonako 400 inguru dira gaixo daudenak. Arrasateko anbulatorioan esan digute maila handia izan arren, EAEko maila berean gaudela.

Bestalde, esan du pediatria zerbitzuan izan direla orain arteko A gripe kasu gehienak; hau da, 4 eta 15 urte bitarteko umeengan. "Nagusiengan ez du ia eraginik izan A gripeak; eragina handia denerako protokolo bat daukagu, baina oraindik ez dugu martxan jarri", dio Elorriagak. Pediatrian ere, A gripe kasuek behera egin dute.

> IKASTAROA

### Zen jardunaldiak Arantzazun gaur hasi eta domekara arte

Arantzazun, frantziskotarren etxean izango dira jardunaldiak. Gaur, 18:00etan hasi eta domeka arratsaldera arte. Izenematea 150 euro da. Bilboko Gogoargi taldeak antolatu du ikastaroa.

Ikastaroa emango du Dokusho Villalba maisuak, *Shôbôgenzô* lanean oinarrituta. *Shôbôgenzô* Eihei Dogen –1200-1254– maisu handiak idatzitako lan famatuena da.

> GIZARTEA

### Izeba proiektuan izena emateko kanpaina martxan da

Dagoeneko martxan dago pertsona eta familia boluntarioek Izeba proiekturako izena emateko kanpaina. Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren osaba-izeba izan gura dutenen sarea osatzea da egitasmoaren ardatza, eta horretarako boluntariok behar dituzte. Hitzaldia antolatu dute informatzeko: Arrasaten izango da, hilaren 18an, Kulturaten 19:00etan.

> INDUSTRIA

### Tailerreko langileei zuzendutako eskuliburua salgai

Danobat-ek eta MUk *Tailerreko Eskuliburu Teknikoa* atera dute elkarlanean. Euskaraz soilik dagoen eskuliburu tekniko hori makina-erremintako sektoreko langileei zuzenduta dago. Lehenengo edizioak izandako arrakastaren ondoren, bigarrena, hobetuta eta eguneratuta atera dute. 150 ale atera dituzte eta Durangoko azokan jarriko dute salgai.

SAN MILIXANAK 09

XVII. Langintzen Feria
Azaroak 15, igandea
Ordutegia: 10:00etatik 14:30era



Zatoz Gatzagara! Etxean bezalaxe!

| | |
|---|---|
| Kaikuak | Burdina |
| Xaboi naturala | Euskal zeramika |
| Zeta | Beira |
| Bitxigintza | Olibondozko tresnak |
| Larrua | Zura |
| Jostailuak | Musika tresnak |
| Zeramika | Pilotak |

LEINTZ GATZAGAKO UDALA
Gatz museoa
Sorginak Gatzaga
ESKUZ
Txerri Zaleok
kutxa

Tailer herrikoia: enkuadernaketak

Kultura etxean erakusketak: birziklatutako lanparak

Txerri zatiketa: Erakustaldia herriko plazan



Umeak jaio eta berehala, amaren bularrean jartzen dituzte. Zesarea egiten dutenean aitaren besoetan jartzen dute. GOIENKARIA

**OSASUNA** > DEBAGOIENEKO OSPITALEA

# Erditze erosoagoetarako bi gela egokitu dituzte

## Erditzeko erabilera askotariko ohea, aulkiak, kuxinak, baloiak eta zintak jarri dituzte bertan

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Erditzeak gozoago egiteko helburuarekin bi gela egokitu dituzte Debagoieneko Ospitalean. Ondorioz, erditzera doazen emakumeak, haien bikotekideak eta jaioberriak erosoago egongo dira aurrerantzean.

Bi gela horiek kolore atseginekin margotu dituzte eta dekorazioa aldatu egin dute. Hala, erditzeetan beharrezkoa den materiala ginekologoaren eskura egongo da, baina, haurdun dagoen emakumearen begi bistatik ezkutatu egingo dute. Gainera, norberak aukeratzen duen erditze mota edukitzeko materiala jarri dute haurdunen eskura.

**KALINOX IZENEKO ANALGESIKOA**

Debagoieneko Ospitaleko erditzeko gela berrietan erabilera askotariko ohea, erditzeko aulkiak, kuxinak, baloiak eta zintak daude. Horiek guztiak erabiliko dituzte haurdunek erditzeko nahi duten postura hartzeko.

Bestalde, erditzeko minak arintzeko analgesiko berria jarriko dute haurdunen eskura. Hain zuzen ere, Kalinox izenekoa. Orain arte erabili dute Debagoieneko Ospitaleko beste zerbitzu batzuetan, eta aurrerantzean erditzeetan erabiliko dute. Haurdunek oxido nitrosoa inhalatuko dute kantitate txikietan, uzkurdurak intentsuak direnean. Analgesiko berriak ez du albo-ondoriorik, ez haurdunarendako ezta jaioberriarendako ere. Debagoieneko Ospitalea analgesiko berria ematen duen lehena da.

**JAIOBERRIA, AMAREN BULARREAN**

Gainera, jaioberriarenganako arreta indartzeko ahalegin berezia egiten dihardute ospitalean. Horren harira, umea jaio eta berehala amaren bularrean jartzen dute. Emakumeari zesarea egin badiote, berriz, jaioberria aitari ematen diote, besoetan har dezan.

Erditzeko geletan jarri dituzten hobekuntzekin gustura daude ospitaleko emaginak. "Berrikuntzak ezinbestekoak ziren. Dena den, Debagoieneko Ospitaleko erditzeko gelak maila onekoak izan dira beti", dio ospitaleko emagin Agurne Kortabarriak.

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Goizper enpresan

Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko ordezkariak Antzuolako Goizper enpresan izan ziren urriaren 6an, Bernabe Unda sailburua buru zutela. Jaurlaritzako ordezkariek tailerra, nekazaritza arloa, biltegia eta Olaker Ikerketa eta Garapen Zentroa bisitatu zituzten.

Goizper enpresako zuzendari orokor Juan Saenz de Argandoña eta Industria arloko zuzendari komertzial Juan Luis Zuazolak enpresaren gaineko azalpenak eman zizkieten.



GOIZPER

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Azaroko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 10 euro

ANTZERKIRAKO SARRERAK
Elgetako Espaloia Kafe Antzokia
Bidali AG ESPALOIA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



UMEENTZAKO LIBURUAK
PAMIELA
Bidali AG LIBURUAK
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARRERAK
Bidali AG BASKET
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



ZIRA
EKFB
Bidali AG ZIRA
[Harpidedunaren izena]
5533 zkra.



SARI NAGUSIA
IRAILA-AZAROA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG N011
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*

**METEOROLOGIA** > EGURALDIA

# Urkulu %70,3 beteta eta kalte larririk ez du utzi denboraleak

Deba ibaiak larrialdi maila jo zuen domekan, hilak 8, baina ez zuen gainezka egin; euriteak trabak eragin zituen errepideetan ere



Deba ibaia horrela zihoan Bergaran behera domekan. GOIENKARIA

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Udazkeneko lehenengo denboraleak zenbait gorabehera eta susto utzi ditu Debagoienean: errepideetan putzuak sortu dira eta noizbehinka lurra edo zuhaitz-adarrak jausi dira, Mekolalden (Bergara) edo Antzuolan, adibidez; eta Deba ibaiak larrialdi maila gainditu zuen ordu batzuetan, zubi-begiak ia guztiz estalita hainbat lekutan. Hala ere, ez du gainezka egin. Bestalde, Urkuluko urtegia %70,36ean beteta –aste baten zortzi puntu egin du gora mailak– eta Aixolakoa %100 beteta geratu dira. Hortxe bukatu da denboralearen eragina Debagoienean; ezer larririk ez, bereziki Donostialdean izan diren uholdeei begiratzen badiegu. Herrizaingo Sailak eguaztenean utzi zuen bertan behera Larrialdi Plana.

**BEHIN, 500 L/M2**

Azaroaren 5etik 10era bitartean, euriteek iraun duten bitartean –nahiz eta martitzenean, hilak 10, bakarrik zaparrada batzuk izan– 331,1 litro batu ziren metro koadroko Bergarako San Juan auzoan. Neurketok egiten dituen Luis Mari Agirrek gogoan du 1992ko urria, orduan 500 l/m2 batu ziren-eta; hura izan zen hilabete euritsuena azken 25 urteotan, Agirreren arabera. Datu horietatik nahiko urruti daude Euskalmet-ek Oñatiko behatokian hartu dituenetatik: han 171,6 litro euri bota ditu metro koadroko (Gipuzkoan kopuru handiena Zegaman batu da, 227,2 l/m2). Egun euritsuena domeka izan zen han, 53,4 l/m2-rekin.

DATUA

**331,1**

**LITRO METRO KOADROKO**

Azaroaren 5etik 10era bitartean, 331,1 l/m2 euri batu ziren Bergarako San Juan auzoan; 9ra arte, 301,4 l/m2. Euskalmet-ek, berriz, hilaren 5etik 9ra arte, 171,6 l/m2 batu zituen Oñatin.

Oraingoari dagokionez, Agirrek dioenez, "hotz handirik ez du egin, eta txingorra eta elurra egin izan balu, okerragoa izango zitekeen". San Juanen neurtutako tenperatura minimo baxuena 7ºC-koa izan zen, aurreko asteko eguenean, azaroaren 5ean.

**HAIZEA: 85,4 KM/H**

Haizea izan da denboraleko beste protagonista bat. Euskalmet-ek dioenez, "egun txarrenak 7a eta 8a izan ziren, eta haize boladek 120 km/h baino abiadura handiagoa hartu zuten". Debagoienean, Euskalmet-ek Arrasaten bi egun horietan egindako neurketaren arabera, abiadura handiena izan zen orduko 85,4 kilometro.

**etxeko leihotik**



**Eneko Azkarate** > 'eazkarate@goiena.com'

## Politikariak, gazteak eta herrigintza

Iritzia eskatu zaie Gipuzkoako gazteei, Foru Aldundiaren enkarguz. Gazteen eta politikaren arteko harremana ikertu dute, baina politikaz gain, beste zenbait konturen gainean galdetu diete. Ondorio ugari atera dituzte eta, beti bezala, hedabide bakoitzak nabarmendu du gehien interesatu zaiona. Zertzelada batzuk hemen:

Politikak aspermena, konfiantzarik eza eta haserrea sortzen du gazteengan; ETA ez dute gustuko; familia arteko harremanak eta osasuntsu egotea baloratzen dituzte ondoen; aukera ezkerreko eta abertzaleen alde egiten dute, eta independentziaren alde bozkatuko lukete. Txostena aurkeztu duten politikariak kezkatzeko eta gorritzeko moduko beste ondorio bat: politikariak "gezurtiak, bizizaleak eta ustelak" dira. Gogorra benetan! Baina, niretako pozgarriena, oso ondo baloratzen dituztela euskararen alde diharduten taldeak: ikastolak, AEK, EHE… eta euskarazko tokiko aldizkariak! Eskerrik asko!

**"Politikariak 'gezurtiak, bizizaleak eta ustelak' dira gazteen ustez"**

Oraingo gazte gipuzkoarrak berekoiagoak dira lehengoak baino. Jendarte osoa bezala. Horregatik, aipatu nahi ditut izen bi: Serafin Esnaola eta Pello Garitano. Biak nabarmendu dira jendartean, herriaren alde, eskuzabal eta musu-truk egindako lanagatik. Egin eta eragin dute Bergaran. Garitanok, merezitako omenaldi eder eta jendetsua jaso du oraintsu; Esnaolaren biografia gaur aurkeztuko dute.

**> Trintxerpen** parrokia itxi eta Bergarara urrundu zutenean, hutsetik hasi zen Serafin Esnaola. Eta, halere, eliza kontuetan ez ezik, herrigintzan ere murgildu zen: ikastolen, Pol-Polen eta beste hainbat herri-elkarteren bultzagile eta lider izan zen.

**> Liburua eta argazki** erakusketa prestatu ditu Miguel Angel Elkorobezibarrek. Herrigintza egiteko beste modu bat: Esnaolak egindakoa kontatu eta erakustea, zehaztasunez, modu atseginez eta ehunka argazkiz baliatuz. Lan bikaina egin du.

**EKONOMIA** > PROTESTALDIA

# Cie Alfa Decoren kaleratze asmoak salatu ditu LABek

Bestalde, zapatu goizean Bergarara ekarriko dute Zerbitzu Sozialen Aldeko Ibilbidea




Elgetan Cie Alfa Deco enpresa parean kale-bilkura egin zuten langileek, LABek deituta. LARRAITZ ZEBERIO

**LARRAITZ ZEBERIO/L.K.** > ELGETA

Azaroa amaitu aurretik, lantaldeko 37 langileetatik lau kaleratzea aurreikusten du Elgetako Cie Alfa Deco enpresako zuzendaritzak. Horri erantzuteko, LAB sindikatuak deituta, manifestazioa eta kale bilkura egin zituzten langileek martitzenean. Otsailaz geroztik, enplegu erregulazioan dago enpresa. Kaleratze asmoen gainean, LABeko ordezkari Iskandar Sarasketak esan du ezin dutela "bide hori zabaltzen laga".

Enpresa itxita egon zen martitzenean, eta langileak eguerdian batu ziren lantoki atarian. Kale-agerraldia egin zuten industrialdean, eta herriko plazara eraman zuten gero salaketa. Mobilizazio horrekin, negoziazio mahaia behartu nahi dute.

**ZERBITZU SOZIALEN ALDE, BIHAR**

LAB sindikatuak mobilizazio gehiago antolatu ditu egunotarako Debagoienean; hala, bihar, zapatua, Bergarara ailegatuko da Hego Euskal Herria zeharkatzen diharduen Zerbitzu Sozialen Aldeko Ibilbidea. Herriko plazan izango dira, 10:00etan. Han, parodia bat egingo dute, zerbitzu sozialetako langileak "salgai" jarrita, "prezio erREALekin, zerbitzu sozialen sektorean gertatzen den prekarietatea azaltzeko asmoz", dio LABek. Era berean, inguratzen diren guztiei eskuorriak emango dizkiete. Ibilbide horrekin, LABek salatu nahi du "3. adinekoen egoitzetako langileen lan hitzarmenaren negoziaketa mahaia apurtu zela" eta zerbitzu horiek "pribatizatzen" dabiltzala.



zabalik

Diego Martiartu

# Arrantzalearen lezioa

Enpresari aberatsa ikaratu egin zen arrantzalea txalupan etzanda eta patxada ederrean pipa erretzen ikusi zuenean.

– Zergatik ez zara arrantzan joan? –galdetu zion enpresariak.

– Gaurkoz nahikoa arrantzatu dudalako –erantzun zion arrantzaleak.

– Eta zergatik ez duzu zeuretzat behar duzuna baino gehiago arrantzatzen? –ekin zion enpresariak.

– Zer egiteko? –galderari galdera, arrantzaleak.

– Dirua irabazteko. Hola, txalupari motorra jarri ahal izango diozu, eta gero, itsas zabalera joanda, arrain gehiago harrapatuko duzu. Nylonezko sareak erosteko adina diru egingo duzu eta denbora gutxira, bi txalupa erosteko moduan izango zara eta, zergatik ez, flota osoa izateko moduan ere bai. Orduan, aberatsa izango zara, ni bezala.

– Eta zer egingo dut orduan? –galdetu zion atzera.

– Ba, eseri eta bizitzaz gozatu –erantzun zion enpresariak.

– Eta zertan uste duzu nabilela ba? –esan zion, irriz, arrantzaleak.

Enpresaria, goiko istorioa kontatu zidana –esan gabe doa–, aita nuen. Arrantzaleak eman zion lezioak lur jota utzi zuen, eta bere buruaz beste egitea beste erremediorik ez zuen izan, arrantzalearekin izandako elkarrizketa niri kontatu berritan. Goian bego. Nago aitaren bizialdi osoko azken irakaspena, irakaspen bakarra esango nuke, horixe izan zuela.

Eta harrezkero meditazioari eta eguneroko plazer txikiei emana bizi naiz, bizar eta txima luzeekin, tunika laru batean bildua. Aitor dezadan, baina, aitarengandik oinordetzan jaso eta paradisu fiskaletan gordeta dauzkadan milioika dolarrei esker, are eta gozagarriagoa eta eramangarriagoa zaidala kontenplaziozko bizimodu hau.

**"Dauzkadan milioika dolarrei esker, are eta gozagarriagoa zait kontenplaziozko bizimodu hau"**

usteak uste

Larraitz Zeberio

# "Patroiari bakarrik sinisten diot"

Adi jarraitu nituen astelehenean GOITBn egindako adierazpenak. Jose Mari Aranak badaki zertaz ari den, Mikel semea ere Indiako Ozeanoan piraten esku egon zen-eta. Salatu zuen nahita esandako gezurrak entzuten ari dela, *Alakrana*-rena iragarritako bahiketa dela, eta ez duela uste bahitutako arrantzaleen egoera hemengo komunikabideek esaten duten bezain ona denik. Beste gauza bat: betiko soluzioa Somaliaren egoera konpontzea dela adierazi zuen.

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

# Laster egingo dugu automobil elektrikoa

**Luis Aranberri 'Amatiño'**
www.eibar.org/blogak/amatino

Cegasak Euskal Energia Klusterraren bazkide izatea erabaki du. Ezer ez da ustekabean gertatzen eta duela 75 urte Oñatin sortutako bateria eta pila-lantegi hau sekulako aldaketaren atarian dago. (...)

Alegia, Cegasak auto elektrikoentzako bateria-prototipoak egiteari ekin dio. Bestela batera esanda, Cegasak argindarrez eragindako auto-eskabidea sumatzen du zenbait urte gutxi barru eta merkatuari aurre egitea erabaki du. (...)

Euskal Energia Klusterra ez da gero nolanahikoa. Guztira 90 enpresa eta erakunde, batez beste 25.000 langile eta 15.000 milioi euroren fakturazioaz. (...)

Celaya, Emparanza y Galdos S.A. 1934an sortu zen Oñatin, 1950eko hamarkadan Tximist pila guztiz ospetsuak egiteari ekin zion eta 1964tik aurrera Gasteizen kokatu zuen egoitza.

Ezin gero aipatu azken berrogeita hamar urteotako historia Juanito Zelaia gogoan hartu gabe. Juanitok denetik egin izan du. Orain berak egindako bateriadun auto elektrikoan ibiltzea baino ez zaio falta.

# Inteligentzia militarra

**Imanol Murua Uria**
www.berria.info/blogak/imanol

Orain, Maria Teresa Fernandez de la Vega presidenteordeak esan du Gobernua bere esku dagoen guztia egiten ari dela urriaren 2tik, Alakrana ontziko arrantzaleak bahitu zituztenetik. Baina hilabete baino gehiago joan da baten batek ustezko bi bahitzaile atxilotzeko ideia jeniala izan zuenetik, eta ez Fiskaltzak ez Estatuaren abokatuak ez dute oraindik eskatu Europako Batasunak Kenyarekin hitzartuta duen ituna baliatzeko, duela bost hilabete egin zuten bezala, eta eskaera hori egitea aski litzateke epaileak bi somaliarrak Espainiatik atera ditzatela agindu ahal izateko.

koplak

Andere Arriolabendoa

# Gazteak errusiar mendian

Gazte jendea entrenatu da
ta dator gogoz beteta.
Beteranoak kontuz ibili
galtzekorik ez dute ta.

Miren Amuriza ez dugula
batere neska normala.
Eztauka aitan bizarrik baina
bai haren potentziala.

Maialen Arzallus neska fina
dugu bertsoak kantatzen.
Ametsak amets ditugu baina
ezta atzean geratzen.

Jone Uriak bihur lezake
egun argi zena gaba.
19 urte ditu baina
beteranoen patxada.

Beñat Gaztelumendik jartzen du
beti goi-goian nibela.
Errusiar mendian bait dago
bere etxean bezela.

Aurtengo txapelketa hau dugu
mila sorpresen koktela.
Hariz josia dauka burura
Egañak bere txapela.

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

'Alakrana'-z ez ezik, itsasoaz, Euskal Herriko arrantzaleez, Indiako Ozeanoaz... eta bahiketa krisi honetan Espainiako Gobernuak izan duen jarreraz egin digu berba Jose Mari Aranak. Garbi hitz egin ere, gogor kritikatuz agintarien jarrera. Euskal arrantzaleek Indiako Ozeanoko herrialdeetan aberastasuna sortu dutela dio eta ez dago ados armadoreen kontrako kritikekin.

**Jose Mari Arana** > 'Playa de Bakio' itsasontziarekin bahituta eduki zuten Mikel Aranaren aita

# "Harro sentitzen gara euskaldunak Ternuara joaten zirelako baleen bila"

ENEKO AZKARATE > ARRSATE

**Jose Mari Arana mondragoetarrak seme biak itsasgizonak ditu: Mikel eta Josu bikiak. Josu lehorrean dago, baina Indiako Ozeanoan zegoen *Alakrana* bahitu zutenean; haren enpresa bereko barku batean ziharduen atunen harrapaketan: *Elai-Alai*-n. Oraintsu, Mikel semea abiatu da itsasora eta, une honetan, Espainiako banderarekin Indiako Ozeanoan dihardunten ontzietako batean dago: *Albatun II*-n.**

**Arrasatearrak izanda, zelan bi seme itsasgizon?**

Santanderren etxea daukagu eta semeak beti ibili izan dira uretan, surf oholekin-eta; han dituzten lagun asko itsasgizonak dira. Semeek Pasaian egin zituzten itsas ikasketak. Itsaso-nabigazioko goi mailako teknikariak dira. Bata dabil ontzi-zubian eta bestea makinetan.

**Seme bat lehorrean daukazu eta bestea itsasoan…**

Bai, Mikel arriskuko uretan dago, Indiako Ozeanoan, atunetara joanda. Espainiako banderarekin eta ezelako babesik barik arrantzan dabiltzan sei edo zazpi ontzietako baten. Atunak arrantzatzen dituen munduko ontzi handienean dago: *Albatun II* itsasontzian, Bermeoko Albacora enpresakoa. 116 metroko eslorakoa, punta-puntako teknologiaduna. Albacora enpresak mundu zabalean dauzka ordezkaritzak, faktoriak eta ontziak: Ekuadorren, Senegalen, Seychelleetan…

***Alakrana* bahitu zutenean itsasoan zegoen Josu?**

Bai, Indiako Ozeanoan, *Elai-Alai* ontzian. *Alakrana*-ren enpresa berekoa da ontzi hori. Josuk berak eman zidan berria. *Alakrana*ko kapitaina, Iker Galbarritu, Josuren kapitaina izan da luzaroan. *Elai-Alai* eta *Alakrana* Victoria portuan egon ziren elkarrekin, Seychelleetan, deskarga egiten, *Alakrana* bahitu aurretik.

**Bahituak gertuko dituzu?**

Bai. Itsasgizonen artean oso harreman estuak dituzte: elkarrekin luzaroan bizi dira eta gure semeen oso lagunak dira bahituak, batez ere Josurenak.

**Ze tratu jasotzen ari dira bahitutako arrantzaleak?**

Oso txarra. Jendeak ez daki zenbateraino tratatzen dituzten txarto. Psikopata hiltzaileak dira bahitzaile horiek. Jendea akabatzea dute buruan. Ez dituzte garbitzen dirua balio dutelako. Jaten dute Indian eta inguru haietan ezaguna den hosto bat, *cat* izenekoa, kokaren antzekoa, eta daude egun guztia drogatuta. Dabiltza egun guztia elkarri joka edo tiroka, edozein tokitan txiza eta kaka egiten… Mikel semeak esaten zuen egoera horretan ez dagoela *Stockholmeko sindromea* hartzeko arriskurik.

***Playa de Bakio*-ren bahiketak sei egun iraun zuen. Zelan pasatu zituen egun horiek Mikel semeak?**

Beldurduta, baina batez ere amorratuta. *Alakrana*-koek 40 egunetik gora daroate bahituta… Mikelek esaten du beldur handiena pasatu zutela lehenengo egunetan, abordatu zituztenean. Eraso militarra jasan zuten, ontziko zubia lehertu egin zieten bazokekin. Bestalde, aske utzi zituztenean, beste eraso bat izateko arriskuan egon ziren harik eta bahiketa tokitik urrundu zirenera arte.

**Zelan baloratzen duzu Espainiako Gobernuak kontu honetan izan duen jokabidea?**

Arrantzaleek luzaroan daroatzate babes eske eta Gobernuak ez ditu aintzat hartu haien eskaerak. Utzikeria handia egon da Espainiako Gobernuaren aldetik. Egoera asko okertu den arte ez dute egoki jokatu, eta hori mingarria da. Hori gutxi ez, eta ministroak-eta ibili dira gezurrak esaten, haien ipurdiak babesteko.

**Eta *Atalanta* segurtasun plana?**

Hori ez dago atun-ontziak babesteko, ibilbide komertzialak babesteko baizik: Pertsiar Golkotik datorren petrolioa, Nazio Batuen Erakundeek bidalitako elikagaiak Somaliara eroateko… Gure arrantzaleak dabiltza arrainak dauden tokian, haien atzetik. Bilbotik Donostiarako autobidea babestea da kontu bat, baina perretxikoak mendian daude. Indiako Ozeanoa handia da eta frantziarrak aspaldi jabetu ziren hango arriskuez, eta horregatik erabaki zuten militarrak barkuetan sartzea. Denborak erakutsi du erabaki eraginkorra izan dela.

**Zer gertatzen da Somalian?**

Oso egoera kaskarrean bizi dira, estatuak ez dauka kontrolik… 9 milioi lagun bakarrik bizi dira eta pirata hauek doaz Indiako Ozeanora arrantzaleak bahitzera dirua egiteko. Baina Indiako Ozeanoa ez da somaliarrena eta pirata horien jarrerak ez dauka inolako justifikaziorik. *Alakrana* ez zuten Somaliako uretan bahitu, Tanzaniako kostatik 428 miliara baizik.

**Zela konpon daiteke *Alakrana*-ren arazoa?**

Epe motzera, arrantzuntziak babestuz eta militarrak itsasontzietan sartuz. Gerora, mundu mailako erakundeek heldu behar diote honi, ze somaliarrek etxean daukate-eta etsairik handiena. Mafia horiek daukate herria mendean. Gobernuak ere iruzurgileak dira. Hortaz, lehenengo, pirata horiei egurra eman eta, gerora, aberastasuna sortu han; hau da, lana egiteko aukerak sortu, ez limosna eman.

**Atxilotutako somaliar horiek Espainiara ekartzeak ez ditu gauzak erraztu, ezta?**

Hori da beste bat! Zelan ekarri dituzten, zelan erabili dituzten batetik bestera, harropuzkeriaz, hedabideetan erakutsiz, Guantanamokoak balira bezala. Agintariak ez dira ondo ibili. 36 lagunen bizia dago jokoan. Ez da diru arazoa!

**Dirua ez da arazo?**

Ez da inoiz izan. Enpresaburuak prest daude ordaintzeko. Beste kontu bat: armadorearekin sartu dira gupidarik barik, lotsagarria izan da. Bermeora joan besterik ez dago: armadoreak eta arrantzaleak bat dira. Mundu hori ezagutu egin behar da. Armadoreak eskaini zien bahitzaileei barkuarekin geratzea tripulanteak askatzearen truke. Eta barkuak balio du 5.000 milioi pezetatik gora. Arazoa ez da armadorearena.

**Horren arriskutsua izanik, zelan doaz arrantza egitera Indiako Ozeanora?**

Euskal Herrian beti izan gara arrantzaleak. Mundu zabalean arrantzan jardun dugu bizi guztian eta harro sentitzen gara diogunean euskaldunak Ternuara joaten zirela baleen bila. Bermeoko armadore eta arrantzaleak, Indiako Ozeanoan dabiltzanak, asmatu dute arrantza mota hau. Barkuak zelan diseinatu behar diren, arrantzan zela egin behar den e.a. asmatu dute gure arrantzaleek, gurea da I+G+B (Ikerkuntza, Garapena eta Berrikuntza). Beste guztiek kopiatu egin digute. 1984a ezkero gaude Indiako Ozeanoan, kalak geuk topatu genituenetik. Sekulako azpiegitura lanak, portuak eta abar egin genituen hainbat herrialdetan: Madagaskarren, Maurizion, Seychelleetan… Barku horiek ez dira hemen konpontzen, hango portuetan baizik. Seychelleetako Barne Produktu Gordinaren erdia arrantzatik dator.

**Zenbat arrantzuntzi daude Indiako ozeanoan atunetan?**

40tik gora. Gehienak, ia erdiak, euskaldunak. Gero, frantziarrak, galiziarrak…



Jose Mari Arana, bi seme itsasgizonen argazkia eskuetan duela. IMANOL SORIANO

GOBERNUAREN JARRERA

**"Egoera asko okertu denera arte ez dute egoki jokatu, eta hori mingarria da"**

BAHIKETEN ARAZOA

**"Zelan konpondu? Lehenengo, pirata horiei egurra emanez; gerora, aberastasuna sortuz han"**

# Aritzeta abesbatzak, eskerrik asko

**Ibon Garitano**
(Aritzeta abesbatzaren izenean)
Bergara

Urriaren 18an, Pello Garitanori egin zitzaion omenaldian, Aritzeta abesbatzarekin abestu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Eta, aldi berean, bai gurekin abestu zutenei, bai abesbatzan lehenago ibilitako guztiei eta baita musika gustuko duzuen guztioi, Aritzeta abesbatzara etortzeko gonbidapena luzatzen dizuegu.

Entseguak astelehen eta asteazkenetan egiten ditugu, 21:00etan, Mizpirualde egoitzako elizan. Etortzera animatuz gero, bertan itxaroten zaitugtegu.

Beste edonolako informaziorik nahi izanez gero, gure telefono zenbakia da 660 98 32 78, eta gure posta elektronikoa: *aritzetaabesbatza@gmail.com*. Eskerrik asko.

# Gonbidapena egin nahi diet liburu maitaleei

**Kontxi Laskurain**
(Itzar liburu-denda)
Antzuola

Antzuolako liburu-denda zabaldu nuela 30 urte beteko dira abenduaren 20an, eta bide honetan "bizipen" asko pilatu dira: kulturari zabaltzeko hasierako ilusioak, mostradore atzean jarri eta alaba eta semea heztea, uholdeetan ura leporaino dugula egoteak sortutako larritasuna, lapurretek sortutako amorrua, ingurukoen pozak, familiaren eta lagunen laguntza, herriarekiko inplikazio soziala, eta abar.

Horiek guztiek lagundu didate nire pertsonaren garapenean, baina, duda barik, liburuek garrantzi berezia izan dute.

Hori dela-eta, urteurren hau ospatzeko idazle on bat gonbidatu dut, Toti Martinez de Lezea; eta hitzalditxo bat emango digu gai honen inguruan: *Toti, una mujer en la literatura*.

Nire eskerrona Totiri gonbidapena onartu duelako eta nire gonbita liburuak maite dituzuen denei gurekin izateko azaroaren 20an, iluntzeko 8etan Itzar liburudendan.

# EAJren iritzia Oñatiko hiltegiaren inguruan

**Ainhoa Galdos**
(Debagoieneko EAJren izenean)
Oñati

Gure nekazaritzaren azken urteetako historia eginez, oso eraginkorra izan zen 60-70eko hamarkadetako industrializazioa baserri askoren hustuketan.

Euskal erakundeak sortu eta Europako Ekonomia Elkartean sartzeak Europako merkatuan lehiakorrak izateko esfortzu berezia egin beharra ekarri zuen eta ustiakuntzen modernizazio arloan ahalegin ikaragarria egin zen.

Nekazaritza Politika Bateratuaren (PAC) erreforma desberdinek eta gizartearen sentsibilizazio ezak nekazaritzaren bideragarritasuna gero eta zailagoa bihurtu dute, baina hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek ahalegin handia egin dute nekazaritzak gure lurraldean iraun dezan.

Industriaren hazkundearen ondorioz baserri inguruko eskulana kontratatzeko joera egon da eta gure lurraldeko orografia maldatsua ere kontuan izaten badugu, garbi dago gure nekazaritza galduta egongo litzatekeela gure erakundeek bere alde apustu garbia egin ez bazuten bere garaian.

Eta erakunde hauetan EAJ-PNVk izan duen presentzia eta pisua kontuan izanik, nekazaritza sektorearen alde egindako apustuan aktore oso garrantzitsu bat izan dela aitortu beharra dagoela deritzogu.

Mundu osoa krisi sakonean sartuta dagoenean Euskal Herriko nekazaritza ere neurri berean une zailak igarotzen ari da.

Baina betidanik izan den bezala, EAJ-PNVrentzat nekazaritza sektore estrategiko bat da, ez dugu ulertzen nekazaritza gabeko Euskal Herririk. Gure kultura eta identitatea indartzeaz gain, kalitatezko produktuak eskaintzen dizkigu nekazaritzak eta mendez mende, mendiz mendi, landuak diren gure paisaia ederrak zaintzen ditu.

Nekazaritzak jarraitu dezan konprometituta mantendu behar dira gure erakundeak. Eta arlo honetan ulertu behar dira hiltegiak ere. Azken hiru hamarkadetan osasun arrazoiak medio, herriz herri hiltegi bat izateagatik, Gipuzkoan lau besterik ez izatera pasatu gara eta lau herri horien artean Oñatikoa dago.

EAJ-PNVren iritziz, Gipuzkoako hiltegiek (Oñatikoa ere bai) hiru arlo zaindu behar dituzte:

1. Zerbitzu ikuspegia. Helburu nagusia bailarako baserritarrei zerbitzua ematea izan behar du.

2. Traktore edo eragile izatea. Bertako baserritarren haragiak izan behar du helburu, salmenta eta merkaturatze duin batera zuzenduko duen tresna bat izanik, eta inola ere ez kanpotik datozen abereei irtenbidea emateko tresna.

3. Bideragarritasun edo errentagarritasun ikuspegia. Ezer gutxi lortuko litzateke Oñatiko hiltegia Mankomunitatetik erakunde publiko baten eskuetara pasatuko bagenuke soilik, orain proposatzen den bezala.

Derrigorrez harantzago joan beharra dago eta funtzionamenduko aldaketa estruktural eta orokor bat planteatu behar da.

Eta horretarako, EAJren iritziz, Gipuzkoako hiltegiek gutxienez, funtzionamendu eta gestio bateratu bat eman beharra daukate, hiltegien arteko erakunde publiko bat sortuz.

EAJ-PNVren aburuz, gutxienez Gipuzkoako hiltegien arteko erakunde publiko baten aldeko apustua egin behar da, funtzionamendu bateratu horri esker lortuko delako sinergiak sortzea, kostu komunak gutxitzea, elkarlana estutzea eta, azken batean, gertuko zerbitzua mantenduz, zerbitzu errentagarri bat izatea.

# Behobia-Donostiako sailkapenaz

**Isabel Blazquez**
Oñati

GOIENKARIAk asteleheneko alean Behobia-Donostia lasterketari buruz informazio mardula ematen zuen, Debagoieneko ikuspegia erantsiaz. 21. orrialdean, *Ibarreko lehenak* laukian, lehen 20 gizonezkoak agertu ziren eta lehen 10 emakumeak. Zergatik diskriminazio hau?

Uler nezake, kirol profesionalean, gizonezkoek milaka ikusle eta oraindik emakumeen oihartzun mediatikoa apala den horietan, aldizkariek toki gehiago (ez garrantzi handiagorik) eskaintzea gizonezkoei.

Baina, kasu honetan, hain herrikoia den kirol saio honetan: zertan bereizten da 15. iritsi den gizonezkoa 15. egin duen emakumetik? Biek egin duten distantzian? Jasan dituzten euri zaparradetan? Ala horra iristeko egin behar izan dituzten entrenamendu saioetan?

Ez bada, gauza bakar batek bereizten ditu. Bata gizonezkoa izanik, bestea emakumezkoa zela.

Erredakzioan gogoeta sortzea da nire gutun honen helburua. Ea, bada, hurrengoan hautaketa bat egiten duzuenean, kopuru berdinean agertzen diren emakumezkoak eta gizonezkoak. Eta zergatik ez? Lehenengo emakumeak eta ondoren gizonezkoak.

# Erasorik ez! Euskal Herriak Bere Hezkuntza

**Ibai Redondo**
(Bergarako Euskal Herriak Bere Eskola)
Bergara

Isabel Celaak orain egun gutxi aurkeztutako hezkuntzarako dekretu berriak kezka bizia piztu du Euskal Herriak Bere Eskolako kideongan eta baita hezkuntza komunitatean ere. Uste dugu euskara eta euskal kulturaren aurkako eraso larria dela eta azken hamarkadetan aurreratutakoa (gehiegi ez izan arren) ere galtzeko arriskuan jartzen duela. Zergatik?

1. Erabakiak indarrean zegoen dekretu zaharra aldatzen du. Hau da, euskara hizkuntza nagusia izatetik, gazteleraren maila berean jartzen du. Zer gertatzen da arrain handi eta txiki bat arrain ontzi berean jarriz gero? Handiak txikia jaten duela. Eskolaren bitartez ikasleak euskalduntzeko euskarak hizkuntza nagusia izan behar du, hezkuntzako gehiengoak behin eta berriz azaldu bezala.

2. Dekretu berriaren bitartez, curriculum (ikastetxeetan ikasi behar dena) autonomiko espainiarra berritzen da. Ez gaitezen engaina, ez dugu hezkuntza sistema propiorik eta indarrean diren curriculum ofizialak Espainiakoaren jarraipena besterik ez dira. Dena den, Curriculum ofizialaren %45 EAEn erabakitzen da eta dekretu berriaren bidez, %45 hori moldatzen da. Orain arte, ikastetxeetan "adoktrinamendu nazionalista" egin dela argudiatuz, curriculuma goitik behera moldatzen du Hezkuntza Sailak. Ikusgarriena Euskal Herria termino politiko gisa ezabatzea da, folklore hutsera mugatuz. Neurri honen bidez, Espainiar Estatuko ikasle guztiak eduki berbera ikastera behartu nahi dituzte, estatuaren uniformizazioan sakonduz.

Zoritxarrez, aldaketa hauek ez dira isolatuak, EAEn eta Nafarroan aldi berean eta gai berdinen gainean burutzen ari dira. Zergatik? Espainiaren batasun eta uniformizaziorako hezkuntza tresna garrantzitsutzat dutelako. Hala, euskal herritarron borondatearen gainetik euskara eta euskal kulturaren aurkako eraso oso larria ari dira egiten.

Egoera honen aurrean ezin gara isilik eta geldik egon. Zer egin? Batetik, orain arte bezala eta ahal bada indar gehiagoz Euskal curriculuma Bergarako ikastetxeetan aplikatzeko deia egiten diogu hezkuntza komunitateari: ikasle, irakasle eta gurasoei. Bestetik, hezkuntza komunitatea eta herritarrak batzar batera deitu nahi ditugu: abenduaren 2an, asteazkena, 7etan Kultur Etxean.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 05

Faxa:
943 25 05 12

Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!
Harmailatik
Debagoieneko kirola GOITBn
Astelehenero 22:15ean.


Kutxa Auto Asegurua

# Orain baditugu auto-aseguruak. Bila ibili beharrik ez.

Ongi etorri **Kutxa Auto Asegurura**. Diruaz gainera, buruhausteak aurrezten dizkizun asegurura. Estaldura zabalak, zerbitzu-kalitatea eta prezio ona ondoen konbinatzen dituen eskaintza. **Liberty Seguros** etxearen bermearekin. Eta, jakina, **kutxa**ren konfiantzarekin.

Zatoz gu ikustera, eta xehetasun guztien berri emango dizugu.




zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

* Kutxa Auto Liberty Seguros, Compañía de Seguros y Reaseguros S.A.ren produktu bat da. Kutxa, Biharko Vida y Pensiones-en banku/aseguruetako operadore esklusiboa da. Haren baimena dauka Biharko Aseguradora-rekin eragiketak egiteko, eta Bitartekarien Erregistro Administratibo Berezian inskribatuta dago C0654G20336251 zenbakiarekin. Aseguru honetan bitartekari-lanak egiten ditu Biharko Aseguradora-ren eta Liberty Seguros-en artean izenpetutako banaketa-akordioaren testuinguruan.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK

**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA

**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**Arrasate** > 14-18 **Bergara** > 19-22 **Aretxabaleta** > 24-26 **Oñati** > 27
**Eskoriatza** > 28-29 **Antzuola** > 30 **Elgeta** > 31 **Aramaio** > 32 **Gatzaga** > 33



**> ARETXABALETA** Dirua batzeko haragi-jana antolatu du UDAk biharko > 25



**> ESKORIATZA** AP-1en obrek kalte egindako bide batzuk birgaituko ditu Aldundiak > 26




**> OÑATI** Jostailuen balioa azaltzeko erakusketa egingo dute ludotekan > 30



**> ELGETA** Jendaurrean dago errehabilitazio plana, abenduaren 16ra arte > 31

**ANTZUOLA** > ZERBITZUA

# Spinninga eta total fitnessa eskainiko ditu gimnasioak, herrian lehenengoz

**ASTELEHENEAN**
Egubakoitz arratsalde eta zapatu goizean ate irekiak izango dira eta 16an zabalik izango da

**BAZKIDETZA**
Bazkide egiterakoan, hileko, hiru hileko, lau hil eta erdiko eta urteko kuotak daude

**DINAMIKOA**
Taldeko jarduerez gain, egubakoitzetan saio bereziak eta erabilera indibiduala daude



Gimnasioko txoko baten, Xabi Azkarate koordinatzailea. LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA > ANTZUOLA

Antzuolak badauka gimnasioa, lehengo jarduerak eta berriak –fitnessa, total fitnessa, spinninga…– eskaintzeko gertu, eta helburu batekin: "Gure asmoa da 200 bazkide egitea; harrera ona espero dugu, Antzuolak bazuen-eta gimnasio baten beharra", esaten du gimnasioko koordinatzaile eta, udal zerbitzua bada ere, kudeaketa egingo duen E-goitek enpresako Xabi Azkarate antzuolarrak.

Arduradunak bazkidetzak tramitatzen ibili dira. Gaur, egubakoitza, arratsaldean eta bihar goizean, antzuolarrek gimnasioa eta eskaintzeko duena ezagutzeko, ikusteko eta probatzeko aukera izango dute ate irekien jardunaldietan; eta astelehenean, erabiltzen hasi ahal izango dira. Udalak 50.000 euroko inbertsioa egin du gimnasioa egiteko eta berau hornitzeko.

Orain arte, Antzuolan aerobika, pilatesa, yoga, sasoian egoteko gimnasia eta 3. adinekoendakoa eman izan dira; horien ondoan, berritasunak dira umeendako karatea eta, batez ere, helduendako spinninga eta total fitnessa. Bigarren horri "garrantzi handia eman nahi diogu, oso ariketa polita eta osoa delako; beste jarduera batzuk batzen ditu: spinninga, aerobika…", dio Azkaratek.

**HOGEI BAT SPINNING BIZIKLETA**

Antzuolarrek igartzen zuten, bai, herrian gimnasia egiteko lokal apropos baten premia; eta halakorik, orain arte, ez du izan; horretarako egokitutako aldi baterako lokaletan egin izan dira ekintzok.

Horien ondoan, orain gimnasioaz goza dezakete antzuolarrek. Eguzki auzoan dago, eta 300 m2 ditu, planta bakarrean, metro bateko altueran dagoen gune txiki batekin. Azalera horretan, aerobika, pilatesa, sasoian egoteko gimnasia eta 3. adinekoendako gimnasia egiteko gela bat dago; Xabi Azkaratek dioenez, "taldeko jarduera gehienak gela horretan egingo dira". Horren beste aldean, fitness makinak dituen beste gela bat dago, eta hari lotuta, altuago dagoen gelatxoa, spinninga eta beste ekintza batzuk egiteko.

Horretarako, ondo hornituta egongo da gimnasioa, aparailu asko erosi dituzte-eta: gorputz osoa lantzeko makinak –sorbaldarako, zangoetarako hiru makina, eta pisu libreak; tartean, bi polea dorre–; aerobikerako makinak; lasterka egiteko zinta bat; erdi etzandako bizikleta bat; arraun bat; bost eliptika… baina inbertsio handiena spinning-erako bizikletetan egin dute: 19 daude, eta beste bat begiralearendako. Bigarren multzo handiena muskulaziorako makinak dira: 15 bat. "Fitness gela benetan osatua da", esaten du Xabi Azkaratek.

Gela hori indartzeko, ordu askotan begiralea egongo da, eta, nahi izanez gero, norberari ariketa programa bat antolatu eta aholkuak emango dizkio.

Beste berritasun bat da gimnasioari eman nahi dioten erabilera dinamikoa, eta horretarako, egubakoitz arratsaldeetan, jarduera bereziak izango dira, beste ekintzetan dabiltzenendako: "Egubakoitzero ekintza bat egingo dugu: batean luzaketak, beste baten spinning saio bat, baloiekin saio bat… Norberak ez ditzala bere eskolak hartu eta kito, baizik eta gimnasioa orokorrean erabil dezala". Norberak bere kontura ere erabili ahal izango ditu instalaziook.

**IZENEMATEA**

Gimnasioa erabiltzeko, gutxienez 16 urte izan behar dira. Izenematea zabalik dago astegunetan, 09:00-12:00, eta, martitzenetik egubakoitzera, 18:30-21:00 ere bai. Bazkidetza tarifa hauek daude: hileko kuota, 20 euro; hiru hilekoak %10eko deskontua du; lau hilabete eta erdikoa ere badago, azaro erdian ireki delako, %12ko deskontuarekin; eta urte osokoak %15eko deskontua du.



Gimnasioko sarreran, ate irekien jardunaldietara gonbidatzen. L.K.

## Taldeko jarduerak

| | EGUNAK | ORDUTEGIA |
|---|---|---|
| **Spinninga** | Astelehena eta eguaztena | 09:15 edo 19:30 |
| | Martitzena eta eguena | 20:30 |
| **Pilatesa** | Martitzena eta eguena | 09:30 edo 18:30 |
| **Aerobika** | Astelehena eta eguaztena | 10:15 |
| | Martitzena eta eguena | 20:30 |
| **Total fitnessa** | Astelehena eta eguaztena | 18:30 |
| | Martitzena eta eguena | 15:00 |
| **Sasoian egoteko gimnasia** | Martitzena eta eguena | 19:30 |
| **3. adinekoendako gimnasia** | Martitzena eta eguena | 19:30 |
| **Batuka (gazteak)** | Astelehena eta eguaztena | 17:30 |
| **Karatea** | Martitzena eta eguena | 16:45 edo 17:45 |
| **Jarduera bereziak** | Egubakoitz arratsaldeak. Ekintzetan izena emanda duten erabiltzaileendako | |

**EKONOMIA** > ETXEBIZITZEN PREZIOEN BILAKAERA

# Espero baino gutxiago jaitsi dira prezioak etxebizitzen merkatuan

Hori bai, etxebizitzak espekulaziorako edo inbertsiorako erosteko joera ia desagertu egin da

Adituek uste dute ez garela bueltatuko krisia etorri baino lehen bizi genuen egoerara

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Krisiak familia askotan izugarrizko eragina izan arren, haren oihartzuna ez da, oraingoz, ozen entzun etxebizitzen merkatuan. Higiezinen burbuilak eztanda egin du, baina etxebizitzen merkatuak eutsi egiten dio. Izan ere, jaitsi barik, etxebizitzen prezioa erregularizatu egin da. "Apurkaapurka prezioak erregularizatzen joan dira, baina ezin dugu esan jaitsiera handirik egon denik. Kasu oso konkretu batzuetan prezioa %20 jaitsi izan dute, baina etxebizitza onek ez; horietan, asko jota, %10eko jaitsiera espero daiteke, eta hori ere asko litzateke". Halaxe ikusten dute egoera Anboto higiezin enpresako aholkulariek.

Errentarekin ere beste horrenbeste gertatzen da: "Logela kopuruaren araberako errentak dituzte etxebizitzek, baina batez beste 650 euro balio dute".

**TXOLLORIK EZ DAGO**

Bestalde, jakin badakigu askok esperantza dutela txolloren bat aurkitzeko, etxebizitza merkatua izugarri elikatu delakoan. Adibidez, hipoteka ezin ordaindu eta etxebizitza banketxearen esku utzita, banketxeak hura enkantera ateratzeko zain daude. Bada, halakoak gutxi daudela diote Anbotoko aholkulariek: "Egia da etxebizitza merkatua handitu egin dela; baina etxebizitza banketxeari eman baino lehen, jendeak nahiago du errentan ipini eta diru horrekin hipoteka ordaintzen segitu".

Orokorrean, bada, txollorik ez dago. Hori da etxebizitza erosteko asmoa dutenei helarazi gura dieten aholkua: "Txollo bila joan ez daitezela, txollorik ez dagoelako; errealista izan behar dute eta banketxearekin neurriko hipoteka adostu, euren baliabideen gainetik zorpetu barik".

**SALTZEKO, AHAZTU ORAIN ARTEKOA**

Etxebizitzen saltzaileendako aholkua, berriz, da oraingo merkatuaren prezioen arabera joka dezatela: "Ahaztu dezatela honako esaldi hau: 'Etxebizitza hori orain dela zenbait urte X eurorengatik saldu zen, eta orain nire etxebizitza oparitzen nabil'. Ez dakigu urte haiek noiz bueltatuko diren".

Adibide moduan, kontatu dute orain ez asko etxebizitza berria erosten zuten askok bigarren eskuko etxebizitzarengatik ia berriaren besteko prezioa edo prezio bera eskatzen zutela eta horrekin etxebizitza berria ordaintzen zutela. "Gaur egun, hori guztiz gelditu da".

Eta ia erabat gelditu den beste joera bat da etxebizitza espekulaziorako edo inbertsiorako erostea: "Orain dela bost urte posible zen hori gertatzea, baina orain etxebizitza erosten dutenek beharra dutelako erosten dute. Eta arazo ekonomikoengatik hura saldu behar badute, erositako prezio berean saltzen ahalegintzen dira".

Etxebizitza erostean gehien baloratzen dena da kokalekua, kalitatea, garajea izatea, zerbitzuak (saltokiak, eskolak…), eta nagusiek igogailua eta berogailua izatea eta leku lauan egotea.




Anboto agentziaren erakusleihoa etxeekin lotutako eskaintzaz beteta dago, Rosa Redal aholkulariak erakusten duen moduan. U.M

EROSTEKO BESTE MODU BAT

## Etxe kooperatibak, etxeak erosteko modu merkeagoa

Etxebizitzak erosteko bada modu berri bat: etxe kooperatibak. Gure ibarrean eta Euskadin eskaintza hori daukaten higiezinen lehen agentzia da Arrasate Inbertsioak eta Zerbitzuak enpresa (Anboto). Gugandik gertu, Eskoriatzan, adibidez, badute 48 etxebizitzako promozio bat, Bolibar bidean (2010eko martxoan hasiko dituzte obrak); eta Legution elkarri atxikitako beste 30 etxebizitza eta blokean eraikitzen diharduten beste 33 etxebizitza dituzte (2010eko lehen hiruhilekoan entregatuko dituzte giltzak).

Arrasate Inbertsioak eta Zerbitzuak enpresako aholkulariek diote etxebizitza merkeago eskuratzeko modu aproposa direla kooperatiba mota horiek: "Merkatu tradizionalean baino %15-%20 merkeago eskura daitezke etxebizitzak. Ordaintzeko modua ere errazagoa da; eskriturak egin aurretik %25 ordaindu behar delako (bestela %30-%45 ordaindu behar da); gainera, etxebizitzaren erabateko kontrola daukate kooperatibistek".

Etxe kooperatibak dira etxebizitza eraiki gura duten erosleek osatutako kooperatiba. Kooperatiba horien bitartez saihestu egiten dute bitartekarien eraginez etxebizitzek izaten duten prezio handitzea. Halako kooperatiba batean adinez nagusia den eta etxebizitza behar duen edozein sar daiteke.

**AISIALDIA** > GURASOLANDIA

# Familiendako jolasparkea egun osoan zabalik etzi, domeka

Gurasolandia izenarekin bataiatu dute familiarendako Arrasaten antolatu duten aurrenengo jolasparkea, eta sarrera da euro bat

**U.M.** > ARRASATE

Familiendako jolasparkea antolatu du Txatxilipurdi elkarteak: Gurasolandia. Domekan da hitzordua, Uarkape frontoian, 11:00etan hasita. Bazkaltzeko etenaldiaren ostean, 16:30ean bueltatu eta 19:30ak arte izango da zabalik jolasparke berezi hori.

Batez ere gurasoei zuzendutako ekimena da Gurasolandia. Helburua da haurrei eta helduei aisialdia konpartitzeko bidea ematea. Aita-amez gainera, osaba-izebak, aitaita-amamak eta umeen lagunak joan daitezke Gurasolandiara. Hori bai, umeak ezin izango dira bakarrik joan.

**ZORTZI GUNE IZANGO DITU**

Tailerrak eta saio praktikoak izango ditu bereziki Gurasolandiak. Egoitz Larrañaga Txatxilipurdiko kideak esplikatutako moduan, zortzi gune egokituko dituzte Uarkapen: "Goizean euskarazko jostailuen gunea egongo da, marrazketa-gunea, karaokerako gunea, psikomotrizitate saioa egiteko gunea ere izango da, eta aerobitoia. Eta arratsaldean, berriz, ipuin kontaketa izango da, animatzen diren haur eta heldu guztien artean egitekoa, euskarazko abesti eta jolasen gunea, txapa tailerra eta jolas tradizionalen gunea izango dira. Eta 18:30etik aurrera dantzaldia ere egongo da. Gainera, egun osoan teknologia berrien gunea egongo da. Eta balance-bikea, hankapaluak eta betiko ludoteka ere izango dira.

Egoitz Larrañagak gaineratu du begiraleak ibiliko dira animatzaile funtzioak egiten, bereziki inguruan dauden helduei begira.

Gurasolandia jolasparkea egiteko ideiaren jatorriari buruz, berriz, Larrañagak kontatu du Txatxilipurdi elkartea orain urtebete inguru hasi zela gurasoekin lanean, "apurtxo bat hizkuntzaren transmisioa lantzeko eta gurasoen parte-hartzea bultzatzeko. Urtean ekintza batzuk egin ditugu, batez ere zapatuetan, *Guraso.com* webgunea ere sortu genuen eta hori guztiori borobiltzeko jaialdi hau antolatzea pentsatu genuen.

> NAGUSIAK

## Karta-jokoak eta txangoa antolatu dituzte Abaroakoek

Bi ekitaldi iragarri dituzte Abaroa erretiratuen elkartetik datozen egunotarako: karta-joko txapelketa eta irteera, Nafarroako hiriburura.

Karta-joko txapelketa azaroaren 26an jokatuko dute, baina izena emateko epea datorren astean izango da: azaroaren 18an, 19an, 20an, 23an eta 24an. Eguneratutako bazkide txartela aurkeztu beharko dute.

Iruñera irteera, berriz, azaroaren 25ean egingo dute. Eta kasu horretan izena eman beharko dute azaroaren 17an, 10:30ean. 25 euro da prezioa eta iragarri dute hiru autobus antolatuko dituztela.


Arrasateko dragoia, sanjuan suari su ematen. ARTXIBOA

SINBOLOAK > DRAGOIA

# Kukubiltxok egingo du Arrasaterako dragoi berria

Europako dragoiak errepasatu ostean, Santa Barbarakoan inspiratuta egingo dute berria

UBANE MADERA > ARRASATE

Hiru metro luze eta bost metro zabal. Sua botatzeko sistemaduna. Berdea, marroi ukituekin. Ezkataduna. Eta harri itxura duen gurdiaren gainean joango dena. Halakoxea izango da Arrasateko dragoi berria, sanjuanetan sua pizten duen dragoia, besteak beste.

2007an erretiratutakoa ordezkatzeko egingo dute berria, hura zaharkituta eta apurtua dagoelako.

**ZUNTZAREKIN EGINDAKO BEIRA**

Kukubiltxok egin behar du, Larrabetzun (Bizkaia). Urte hasierarako gertu izango dutela dio Josu Camarak, Kukubiltxoko kideak. "Beira zuntzarekin eta poliesterrarekin egingo dugu, material arina delako, sendoa ere bai, eta, istripuren bat izaten badu, *zauriak* konpontzea erraza da. Adibidez, txinpartadun zerbaitekin erabiltzen bada, babestuta geratuko da". Dragoia eramateko, berriz, gurdia eraikiko diote, burdinazkoa, erruberaduna eta kanpotik beira zuntzekoa. Harri itxura izango du, baina. "Dragoia joango da harrian eserita balego moduan, eta kanpotik gidatu ahal izango da", diote Kukubiltxotik.

**SANTA BARBARAKOAREN 'ANAIA'**

Izan ere, orain arteko postura aldatu egingo diote dragoiari. Kukubiltxokoek dragoien gaineko ikerketa egin dute hori erabakitzeko: "Europako hainbat lekutako dragoien ikerketa egin dugu, eskulturena; hau da, bolumena duten dragoiena. Eta hor ikusi dugu eserita baldin badago jarrera erasokorragoa hartzen duela", kontatu du Camarak. "Ljubljanan (Eslovenia), adibidez, bada bat oso polita. Hala ere, Europatik bueltan egin ostean, Santa Barbarakoa ikusi eta pentsatu zitzaigun berezia dela, oso polita, eta hor oinarrituko gara. Gura dugu Santa Barbarakoaren *anaia handia* izatea, Arrasatek dragoi bakarra izateko eta ez hainbat", gaineratu du Camarak.

Jose Luis Armendia > Arrasateko yoga eskolako arduraduna

# "Euskal Herrian, bere motako liburu bakarra izango da"

UBANE MADERA > ARRASATE

***Yoga aulkian.* Horixe da Jose Luis Armendiak, Arrasateko Yoga eskolako arduradunak idatzi duen liburuaren izenburua. Izenak adierazten duen moduan, aulkian egiteko yoga ariketak batu ditu.**

**Liburua idaztea pentsatu zenuen hasieratik?**

Hasieran ez nuen pentsatzen liburu bat idazteko moduko gaia eta ahalmena izango nituenik, baina pixkanaka joan nintzen datuak batzen eta ikusi nuenean nahiko nituela, hasi nintzen ideia hartzen liburua idatz nezakeela.

**Zelako liburua da?**

Euskaraz eta gaztelaniaz idatzita eta marrazkiduna. Hiru pertsonak egindakoak dira: tatuajeak egiten dituen pertsona batek, Arte Ederrak ikasitako beste batek eta hirurok.

**Zelan dago banatuta?**

Dauzka 170 orri. Lehenengo 40 orriak testuekin osatuta , nire azalpenekin. Adibidez, ariketak zelan egin behar diren eta zelan ez; zein akats ditugun; arnasaren gainekoak; lasaiketa; meditazioa; eta elikadura landu ditut.

Bigarren zatia praktikoa da. Aulkian zelan eseri zuzen eta zelan esertzen garen oker. Bizkarrezurra, barruko gihar batzuk…

**Ez dira, ba, halako liburu asko egongo, ezta?**

Uste dut euskaraz bakarra izango dela. Eta ez dut uste Euskal Herrian egongo denik. Espainian, berriz, orain urtebete entzun nuen Madrilgo yoga irakasle batek halako zerbait idazteko asmoa zeukala, baina kalean edo liburutegietan ez dut ikusi.

**"Bergarako erretiratuek –batzuk, 80 urtetik gorakoak– egindako eskaeraren ondorioa da"**



Jose Luis Armendia. U.M.

**Nondik etorri zitzaizun ideia?**

Orain dela sei bat urte Bergarako erretiratuek galdetu zidaten ea meditazio saio bat egin genezakeen. Baietz esan nien, baina normalean baino denbora askoz luzeagoa egon behar zuten lurrean eserita eta bernak gurutzatuta (kontuan eduki batzuk 80 urte baino gehiago zituztela), gehiegi izango litzatekeela pentsatu nuen, eta aulkian eserita egin genezakeela esan nien. Probatu genuen, gustatu egin zitzaien eta sarritan egiteko eskatu zidaten. Hasieran hiru hilean behin egin genuen, hurrengo ikasturtean hilero egiten hasi ginen, eta orain bi astean behin egiten dugu.

**Beraz, batez ere pertsona nagusiei zuzendutako liburua da?**

Baietz esan genezake. Baina ariketok etxean, bulegoan edo edozein lantokitan egin ditzake edozeinek. Adibidez, lantokian estresatuta egonez gero, ariketa horiek oso praktikoak dira. Lasaitzen laguntzen dute, eta, lasaitzen jakiten badugu, gero lan gehiago egingo dugu.

**Non eros daiteke *Yoga aulkian* liburua?**

Edozein liburu-dendatan. Gure eskolako bazkideek, berriz, gurean eros dezakete.

AISIALDIA > GAZTEAK

# 'Altxorraren bila' ipiniko dituzte bihar gazteak erdigunean, 300 euroko bonoa zeinek topatu

Horren ostean, Acustic Covers Band talde arrasatearrak kontzertua emango du

U.M. > ARRASATE

*Altxorraren bila* erraldoia jokatuko dute bihar, zapatua, 12-17 urteko gazteek, herriaren erdigunean. 16:30erako egin dute hitzordua, Biteri plazan. *Altxorraren bila* jardungo duten 12-17 urteko gazte taldeei esplikatu egingo diete egin beharrekoa. Eta hortik aurrera hasiko da jokoa. "Hiru bat ordukoa izango dela pentsatzen dugu", dio Lander Juaristik, Txatxilipurdiko ordezkariak.

Hiru orduotan, herriaren erdigunean "ezkutatutako" pistak deskubritu eta altxorra aurkitzen saiatu beharko dute gazteek: "300 euroko bonoa da altxorra, aurkitzen duen taldeak gura duen ekimenean gastatzeko: paint-balla egin dezakete, eskalatzera joan… Guk lagunduko diegu antolatzen", dio Juaristik.

**KONTZERTUA ILUNTZEAN**

Eguna borobiltzeko, berriz, Acustic Covers Band taldeak punk-rock klasikoko kantuak joko ditu, 19:30ean hasita, Biterin.

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**bote prontuan**

**Patxi Barrutia** > Ugaran jatetxeko nagusia

# "Hotzari aurre egiteko, babak dauzkagu"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**1983an zabaldu zuen Patxi Barrutiak Ugaran jatetxea Garagartza auzoan, euren etxean. Ugaran izena Aramaio bailarak Garagartzan hartzen duen izena da. Arraina da Barrutiaren espezializazioa; eta baita ahatea ere. Sukaldean andrea ibiltzen da, gehienbat, baina hura ere ondo moldatzen da. Aitortu digu, baina, lagun artean nahiago duela besteek gertatutakoa jatea.**



**Negu giroan sartuta gauden honetan, ze menu gomendatzen diguzu hotzari aurre egiteko?**

Hemen badauzkagu hotzari aurre egiteko menu tradizionalak; baba gorriak, adibidez. Nik uste dut jaki horiek pixka bat ahaztuta daudela, baina gure gazte denboran, eta baserrietan batez ere, oinarrizko jakia izan da baba. Eskulan handia daukan jakia da baba gorria, baina errendimendu handia ateratzen zaio. Kilo batekin zazpi lagunek jan dezakete.

**Nabaritu duzue krisia zuen negozioan?**

Bai; asko, gainera. Zerbitzuetan asko nabaritu da, eta ostalaritza sektorean are gehiago. Gu goian gaude aktibitate ekonomikoan; gastuak kentzeko orduan gu gera lehenengoak; eta errekuperatzekoan, ostera, azkenak.

**Zein de zuen espezializazioa?**

Arrainarekin egiten dugu lan asko; eta okelatan, fama handia dauka foie beroak. Okelari dagokionez, ahatearekin egiten dugu lan. Bestalde, etxeko gozoak dauzkagu eta ardo eskaintza bikaina.

**Eta etxean eta lagun artean sukaldean ibiltzea gustuko duzu?**

Bai, ibiltzen naiz. Neuretzat eta beste batzuentzat askotan ibiltzen naiz sukaldean. Baina jai daukadanean, gurago dut beste batek egitea; asko disfrutatzen dut. Nik esaten dut ardoa eramango dudala.

**Joaten zara beste jatetxe batzuetara?**

Bai, baina lehen orain baino gehiago. Gainera, beti begiak zabalik izaten ditut; baina ez bakarrik jatetxe handietan, baita tabernetako barretan ere.

**argazki zaharra**

## AEDren sorrerako irudia

Orain dela ia 26 urte sortu zen AED; hain justu, 1983ko azaroaren 29an. Orduan, euskara elkartean aitzindaria izango zena eratu zuten Arrasaten. Irudia 90eko hamarkadakoa da, orduko AEDko kideena. Argazkian, goian, ezkerretik hasita: Jose Felix Diaz de Tuesta, Agustin Ibarluzea, Amaia Gabilondo, Juanjo Uriarte eta Patxi Montero. Behean: Jabi Ozaeta, Nati Abasolo, Marisa Larrañaga eta Ikerne Altube.

**Argazkia:** AED.
**Testua:** GOIENKARIA.



**bere ustez**



Maitane Muñoz

## Gustuko dut egiten dudana

Goikobalu Abesbatzak XX. urteurrena ospatzen dihardu azken hilabetean: kontzertu zikloa, urtetan zehar bildutako hainbat argazki, dokumentu eta momentu hunkigarrien erakusketa Harresi aretoan... eta hori guztia posible izan urtetan izandako konpromisoagatik, gogoagatik, ilusioagatik, eta batez ere, gustatzen zaiena egiteko aukera eskaini dietelako.

Ez dakit ze pentsatuko duten nire lagun "koreutok", baina azken batean, gustuz irteten gara eszenatoki gainera; hobeago edo txartoago egingo ditugu gauzak, baina garrantzitsuena da gustuko dugula egiten duguna. Niri berdin zait hamarrentzat abestu edo bostehunentzat, taula gainera igotzen naizenean jendeari begira geratzen naiz une batez, poliki, euren aurpegiak analizatzen ari banintz bezala, eta oraindik kirioak triparen ahoan nola dauden sentitzen ditudanean, irribarrez han egoteagatik eskerrak ematen dizkiot publiko fidelari.

**"Hori guztia posible izan da urtetan izandako konpromisoagatik eta gogoagatik"**

Batzuetan ez da erraza jendeari une horretan nola sentitzen zaren transmititzea, baina obra bat interpretatzen duzunean, pozik bazaude, aurrean duzun edonori sentsazio bera transmitituko diozu, sentituko ditu emozioa, gogoa, indarra.

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25




LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**MUSIKA** > GOIKOBALUREN URTEURRENA

# Orereta abesbatzak emanaldia egingo du bihar San Juan elizan

Orain dela 41 urte sortutako abesbatza da Oreretako gaztetxoena

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Goikobalu eta Goikobalu Txikiren urteurrenen ospakizunen barruan, Orereta abesbatzak emanaldia egingo du bihar, zapatua, San Juan Bataiatzailea elizan, 20:00etan. Jose Luis Ansorenak sortu zuen Orereta abesbatza 1968an eta ordutik hona etengabeko lana egin du koru kanturako heziketan. Errenteriako Andra Mari abesbatzaren *harrobia* da, nolabait, eta 1999a ezkero Imanol Elizasuren zuzendaritzapean dihardu lanean. Joan den urtean *Ilusio tanten dizdira* diskoa kaleratu zuten, abesbatzaren 40. urteurrena ospatzeko. Torreviejako Habanera lehiaketan hirugarren saria eskuratu zuten iaz eta Europa Cantat batzarrean ere hartu zuten parte.

Biharko emanaldian, besteak beste, *Ave Maria* (Caccini), *Messe Basse* (Gabriel Faure), *Visa fran Utanmyra* (Carl Nestig), *Pasayan Xexenak* (Tomas Garbizu) eta *Euskal jokoak* (Javi Busto) piezak abestuko dituzte.

**GOIKOBALUREN ERAKUSKETA**

*Goikobalu abesbatzaren ibilbidea argazkitan* erakusketa ikusgai dago Harresi aretoan; gaur eta bihar, zapatua, 18:00etatik 20:00etara egongo da ikusteko aukera eta azaroaren 20an, ordu berean.

**TXISTULARIAK, ARAMAIORA**

Bestalde, Arrasate Musikaleko Txistulari Bandak kontzertua eskainiko du domekan Aramaioko Gantzagako elizan, 11:00etan. Jose Inazio Ansorenaren hainbat pieza joko dituzte mezaren ostean. Zortzi lagunek dihardute Txistulari Bandan.



Orereta abesbatza 50 gaztetxo inguruk osatzen dute. Argazkian, Imanol Elizasu zuzendariarekin. GOIENKARIA



Bill Lierly musikari estatubatuarra. GOIENKARIA

**MUSIKA** > BLUES EMANALDIA

# Bill Lierly zapatu gauean Gure Leku tabernan

**E.M.** > ARRASATE

Bill Lierly estatubatuarrak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Gure Leku tabernan, 23:00etan. AEBetakoa, Ipar Karolinakoa da Lierly beteranoa, azkenaldian Iruñean bizi den arren.

Txikitatik izan da musika haren zaletasuna: mutikotan, 11 urterekin hasi zen jotzen. Country musika landu izan du, batik bat; Supergrit Cowboy taldean jardun zuen 1975etik aurrera, eta ondoren, 1980ko hamarkadan, Bill Lierly Band sortu zuen.

Gure artean behin baino gehiagotan jo izan du. Azken aldiz Bergaran, joan den uztailaren 17an, udako *Ostiral musikalak* egitarauaren barne.

Biharko kontzerturako sarrera doanekoa izango da.

**Mertxe Salaberria** > Izaskun Murgia elkarte lirikoko kidea

# "Aurtengoa, 'La corte de Faraon', zarzuela dibertigarria da"

**E.M.** > BERGARA

***La corte de Faraon* zarzuela antzeztuko du aurten Izaskun Murgia elkarteak. Eszena zuzendaria da Mertxe Salaberria.**

**Zelako zarzuela da hilaren 21ean estreinatuko duzuen *La corte de Faraon*?**

Vicente Lleok XX. mende hasieran idatzitakoa da eta 1910ean estreinatu zen; aurretik egin izan ditugunen aldean desberdina, dibertigarriagoa dela esango nuke nik. Francoren garaian zentsuratuta egon zen antzezlan hau, konnotazio sexualak dituelako. Hain zuzen, urtetan jasandako zentsura islatzen da *La corte de Faraon* (1985) filmean, Ana Belen, Fernan-Gomez eta Antonio Banderas protagonista direla.



Mertxe Salaberria. GOIENKAIRA

**Zenbat lagunek hartuko duzue parte?**

Agertokian 50 lagun inguru eta, horrez gain, Arrasate Musikaleko Orkestrako kideak, ehun bat lagun denera. Martxoan hasi ginen entseguekin.

**Sarrerak salgai daude?**

Bai, 17 eurotan eskura daitezke Kutxako kutxazain automatikoetan. Aurrekoetan bezala, lau emanaldi izango dira: hilaren 21ean, 22an, 27an eta 28an.



ARREGI

## Mariemi Otaolaren eskulturak Arregin

Mariemi Otaolaren eskultura erakusketa ikusgai jarri dute Arregi arte espazioan (Maalako Errabala 8). Eskultura eta musika uztartzen ditu Mariemi Otaola bilbotarrak –Euskadiko Orkestra Sinfonikoko batzorde artistikoko kidea da– eta musikaren eragina begi-bistakoa da haren artelanetan. Erakusketa abenduaren 6ra arte egongo da ikusgai.

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

IAMAI kafe ANTZOKIA
ARRASATE
Gaur Azaroak 13
00:00etatik aurrera
Cesar Bueno
Magia eta umorea


## Zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Iriztu-Dribling | 3-5 |
| Iluntz-Dublin | 3-4 |
| Komando Alpargat-Aldapa | 7-6 |
| McAwenDauen-AT Celaya | 5-5 |
| Betrayer-Fidel & Disc. | 5-2 |
| Katenatxio-Ekaitz | 5-6 |
| Steaua del Grifo-Cipris | 0-1 |
| Abokajarro-Lasagabaster | 1-3 |

**PARTIDUAK**

| Azaroak 14, zapatua | | EPAILEAK |
|---|---|---|
| 10:30 | Katenatxio-Lasagabaster | Steaua del. |
| 11:30 | Steaua del.-Dribling | Katenatxio |
| 12:30 | Abokajarro-Dublin | Dribling |
| 16:00 | Iriztu-Aldapa | Iluntz |
| 17:00 | Iriztu-AT Celaya | Iriztu |

| Azaroak 15, domeka | | EPAILEAK |
|---|---|---|
| 10:30 | Komando A.-McAwen Dauen | Betrayer |
| 11:30 | Betrayer-Ekaitz | Komando Alpargat |
| 12:30 | Fidel & Disc.-Cipris | Ekaitz |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Betrayer | 9 | 3 |
| 2. | Dribling | 9 | 3 |
| 3. | Dublin | 9 | 3 |
| 4. | Cipris | 7 | 3 |
| 5. | Abokajarro | 6 | 3 |
| 6. | Ekaitz | 6 | 3 |
| 7. | Iriztu | 4 | 3 |
| 8. | Lasagabaster | 4 | 3 |
| 9. | Fidel & Disc | 3 | 3 |
| 10. | Iluntz | 3 | 3 |
| 11. | Lasagabaster | 3 | 3 |
| 12. | McAwenDauen | 2 | 3 |
| 13. | AT Celaya | 2 | 3 |
| 14. | Aldapa | 1 | 3 |
| 15. | Katenatxio | 0 | 3 |
| 16. | Steaua del grifo | 0 | 3 |

### Hirugarren jardunaldian iritsi dira lehenengo zigorrak

Steaua del Grifo taldeari aldapa gora jarri zaio txapelketa; eta zelan, gainera. Joan den astean ez ziren azaldu Cipris taldearen kontrako partidura, eta norgehiagoka hori 0-1 galtzearekin batera zigorra jaso dute: fiantza barik geratu dira eta sei puntuko zigorra jaso dute. Sei puntu kentzeko, baina, lehenago batu egin behar dira puntu horiek.

Asteburuan, adi ondorengo partiduei: liderrak seigarren postuan dagoen Ekaitz izango du aurrean eta hirugarren dagoen Dublinek ere kontrario gogorra izango du, Abokajarro.

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



Besteak beste, 50, 60 eta 80 metroko lasterketa saioak egingo dituzte gaur Mojategin. JOSETXO ARANTZABAL

**ATLETISMOA** > ESKOLA ARTEKO SAIOAK

# Hainbat ikastetxetako ia 40 atleta gaztek hitzordua dute gaur Mojategiko pistetan

## Arrasate-Kanpanzar taldeko harrobia dira, eta ze modalitatetan jardungo duten aukeratuko dute

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, ibarreko hainbat ikastetxetako ikasle koadrila polita batuko da Mojategin egingo dituzten atletismo saioetan, 18:00etan: "Gurekin entrenatzen dabiltzan neska-mutikoak dira, eta egubakoitzean asmoa da atletismo barruan ze modalitatetan aurrera egin nahi duten erabakitzea", aurreratu du Fernando Zufiriak.

Gaurko hitzorduan alebin, infantil eta kadete mailetako gazteak batuko dira: "Adin horiekin garrantzitsuena da hona datozenean ondo pasatzea; bestela, jai daukagu. Gainera, gehienek adin horietan gorputza egin barik izaten dute, eta zaila izaten da jakitea ze modalitatetan jardungo duten ondo; batzuk oso goiz hazten dira, baina beste batzuk adin horietan oraindik txikiak izaten dira. Eta, egiten duten jarduera fisikoa ere asko zaindu behar da: korrika ondo egiten ikasi, saltoetako teknika landu... Adin horiekin, baina, neska-mutikoek denetik egin behar dute, eta ez kirol bakarrera mugatu".

**KROS DENBORALDIA HASTEAR**

Bestalde, oraingo asteburuan hasiko dute kros denboraldia, Irungo krosarekin, eta Arrasatek izango du ordezkaririk. Beterano mailan Maria Jose Gil, Javier Mentxaka eta Cesar Diez lehiatuko dira eta infantil mailan korrituko du Julen Garaik.

Gainontzeko atletak gogor dabiltza entrenatzen laster hasiko den pista estaliko denboraldiari aurre egiteko.

**SASKIBALOIA**

# Hirugarren partidua irabaztera, Iruñera

**X.U.** > ARRASATE

Joan den astean Lagunak taldeari irabazita (73-76), Mondragon Unibertsitateak Iruñera egingo du bihar bidaia, Viajes Marfil taldearen kontra jokatzera (18:15). Biharko partiduan, etxeko mutilek ligako hirugarren garaipenaren bila egingo dute, jakinda kontrarioa joan den astekoa baino askoz gogorragoa dela. Izan ere, Viajes Marfil taldeak orain arte jokatu dituen sei partiduetatik lau irabazi ditu.

**GABONETAKOA, AURRERA**

Ointxe!-k aurrera jarraitzen du Gabonetako txapelketarekin. Hala, datorren astean jarriko dituzte txapelketako kamisetak salgai.



Arrasatekoak Elorrioren kontrako ligako lehen partiduan. X.U.

**ERRUGBIA** > ARRASATE-KANPANZAR

# Hasierako minutuetan ezin du partiduak ihes egin

**X.U** > ARRASATE

Hori da Arrasateko taldeak bihar Bera-Bera taldearen kontra izango duen lehenengo erronka; alegia, lehenengo minututik kontzentratuta irten behar dutela da Igor Isasik taldeko mutilei azpimarratu diena. Izan ere, joan den astean taldeak lan ona egin zuen Gaztediren kontrako bigarren zatian, baina lehenengo zatiko hasierako minutuetan negargarri ibili ziren, eta garestiegi ordaindu zuten hori.

Isasiren mutilek 34-0 galdu zuten goiko kategoriatik jaitsi berri den Gaztedi indartsuaren zelaian. Eta, aurreratu moduan, lehenengo zatiak erabaki zuen norgehiagoka. Etxeko mutilak ez ziren behar den tentsioarekin zelairatu, eta gasteiztarrek ondo aprobetxatu zuten hori, lehenengo minutuan Arrasatekoen defentsa gainditu eta lehenengo entsegua egin zuten-eta –Elorrioren kontra ere berehala etorri zen kontrarioen lehen entsegua–. Sei minutu geroago, Gaztediko hiru laurdenek bigarren entsegua lortu zuten, eta lehenengo zatian 29-0 erretiratu ziren aldagelara.

**BIGARRENEAN, HOBETO**

Bigarren zatian Arrasatek hobeto eutsi zion kontrarioari, eta hor egon zen partiduko gauza azpimarragarriena, markagailuan atzetik joanda ere, Arrasatekoek ez zutela baloi bat galdutzat eman. Txalotzeko jarrera da hori. Partiduak, baina, ez dira jarrera onarekin bakarrik irabazten, eta hori erakusteko asmoz zelairatuko dira bihar Arrasateko mutilak Mojategira.

JENDARTEA > AUZOAK

# Trukerako merkatu txikia egingo dute Osintxu auzoan

Auzoko talde baten ekimena da eta herritarrak parte hartzera gonbidatzen dituzte; azaroaren 29an egingo dute

M.B. > BERGARA

Osintxun elkartrukerako merkatu txikia egingo dute azaroaren 29an, Gabonen atarian gaudela aprobetxatuta. Pilotalekuan egingo dute 10:00-14:00 ordutegian eta ahalik eta jende gehien batu nahi dute ekimenaren bultzatzaileek, Osintxuko auzotar taldeak.

Andrea Renner da bultzatzaileetako bat. Alemaniarra da hura, eta hemen ez bezala, jaioterrian bigarren eskuko merkatu txikiak oso ohikoak direla azaldu du: "Askotarikoak egiten dira, eta gauza politak, erabilgarriak eta bitxiak aurki daitezke".

**GAUZEI PROBETXUA ATERA**

Etxean, denboran gordeta, ditugun gauzei erabilera ematea da merkatu txiki horren helburua: "Guk dagoeneko erabiltzen ez ditugun arren, beste batendako probetxugarri izan daitezke etxean ahaztuta ditugun tresna, liburu, arropa… zein bestelakoak", azaldu du Rennerrek. "Eta nahi duguna da horiei probetxua ateratzea. Daukagun guztiak ez du zertan, beti, lehenengo eskukoa izan", gehitu du.

Jenny Higuera da truke azokaren beste bultzatzaileetako bat eta hark umeen jostailuak aipatu ditu, eta azokaren balio pedagogikoa: "Dagoeneko gure seme-alabek erabiltzen ez dituzten zenbat jostailu ditugu etxean? Bada, azokara eraman, eta truka daitezkeela erakutsiz gero, eredu kontsumistaz gain besterik ere badagoela erakutsiko diegu umeei".

**TRUKATU EDO SALDU**

Interesa duen edonork har dezake parte ekimenean; horretarako, hilaren 29an Osintxura joan besterik ez du. Baldintza bakarra da gauzak trukatzeko asmoarekin joatea, edo, saldu nahi izanez gero, prezio sinbolikoan egitea. "Helburua ez da, inondik inora, dirua egitea izango", azpimarratu dute Rennerrek eta Higuerak.

Informazio gehiago nahi duenak 648 01 28 04 telefono zenbakira dei dezake, 18:00etatik aurrera, edo *trodel@hotmail.com* helbide elektronikora idatzi.

> NAGUSIAK

## Mizpirualde Astea egingo dute nagusienek, astelehenean hasi eta datorren zapatura arte

Mizpirualde zaharren egoitzan aste berezia ospatuko dute hilaren 16an (astelehena) hasi eta hilaren 21era arte: Mizpirualde Astea, hain justu ere. Astearen barruan ekitaldi asko egongo diren arren, nagusi izango dira askotariko txapelketak –briska, tutea, bingoa…– eta Musika Eskolako taldeen emanaldiak –txistu, gitarra, akordeoi… saioak.

Horrez guztiaz gain, aipatzekoak dira, besteak beste, Moises Azpiazu dantza taldeak egubakoitzean, hilaren 20an, 18:15ean egingo duen emanaldia eta asteari amaiera emateko zapatuan, hilaren 21ean, 13:00etan egingo duten bazkaria. Bazkarian, gainera, Alai Taldeak abestuko du.



Lehen edizioko irabazleak, Sirimiri jatetxekoak, Barruso alkatearekin eta Gure Ametsako ordezkariekin. GOIENKARIA

JENDARTEA > LEHIAKETA

# Asteburuan 10 taberna lehian, pintxo lehiaketan

Herritarrek erabakiko dute sarietako bat eta botoa emateko kutxak egongo dira tabernetan

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Gaur, egubakoitza, 18:00etan hasiko da Gure Ametsa elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatutako II. pintxo lehiaketa. Ordurako prest izan beharko dituzte hamar parte-hartzaileek lehiaketara aurkeztuko duten pintxoa. Izan ere, pintxo bakarra aurkeztu ahal izango dute, nahi duten osagaiekin eta nahi duten erara prestatuta.

Epaimahaia osatuko dute Euskal Gastronomiaren Kofradiako kideek, eta, antolatzaileek esandako moduan, "ezkutuan" ibiliko dira tabernarik taberna, lehiaketako pintxo guztiak dastatu arte. Modu horretan aukeratuko dituzte hiru pintxo onenak eta irabazleek plaka bat jasoko dute sari moduan.

**HERRITARREN PARTE-HARTZEA**

Herritarren saria ere egongo da, eta, Gure Ametsako kideen esanetan, hori erabakitzeko ezinbestekoa izango da herritarren partehartzea.

Herritarren saria erabakitzeko kutxak jarriko dituzte tabernetan, eta baita botoa emateko eskuorriak ere. Bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du, eta, horregatik, izen-abizenak ere jarri beharko dira eskuorrian. Botoemaile guztien artean zozketa egingo dutela aurreratu dute antolatzaileek, eta zozketako irabazleak jasoko du bi lagunendako afari edo bazkaria Zumelaga jatetxean.

Bestalde, lehiaketaren sariematea azaroaren 17an egingo dute, 19:30ean, irabazle izan diren tabernetan.

**HERRIAN GIROA PIZTU**

Herriko tabernariek pintxoak prestatzeko eta pintxo berriak sortzeko duten abilezia jendaurrean erakusteaz gain, pintxoak jateko ohitura bultzatzea eta herrian jai giroa sortzea ere badira ekimenaren helburuak. Hala, trikitilariak ere egongo dira parte hartuko duten tabernen inguruak alaitzen.

### Datu jakingarriak

**ORDUTEGIA**

Goizean, 12:00etatik 14:30era.
Arratsaldean, 18:00etatik 21:00etara.
Egubakoitzean, arratsaldez; zapatuan, egun osoz; eta domekan, arratsaldez izango da lehiaketa.

**PREZIOAK**

Lehiaketak iraun bitartean, euro baten salduko dituzte lehiaketako pintxoak.

**PARTE-HARTZAILEAK**

> Eusebio
> Biko
> Ariznoa
> Etxalar
> Paulaner
> Avenida
> Agorrosin
> Kaiak
> Etxagi
> Sirimiri

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
*antenas@trinmer.com* | *www.trinmer.com*

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



Talde bat mintza-praktika egiten kafea hartzen duten bitartean. GOIENKARIA

**EUSKARA** > JARDUN ELKARTEA

# Euskal hiztunak behar dituzte Berriketanerako

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Berriketan egitasmoaren barruan egin berri duten kanpaina oso ondo joan dela esan dute Jardun elkarteko kideek: "Zortzi lagunek eman dute izena. Batik bat, euskaldun berriak dira; hau da, euskara ikasi arren, euren maila hobetu nahi dutenak edo euren inguruan euskaraz berba egiteko aukera gutxi daukatenak".

Horri horrela, pertsona horiei laguntzeko, euskaraz berba egiten dutenen kolaborazioa behar du euskara elkarteak: "Ez da titulurik behar", azpimarratu dute, "euskaraz natural berba egitea eta astean ordubetez euskara praktikatzeko premia duten bi pertsonarekin elkartzeko prest egotea da behar den bakarra", gehitu dute.

**PARTE HARTZEKO MODUA**

Parte hartu nahi duenak proposatuko du zein egunetan, ordutan eta egoeratan –kafea hartzen, paseatzen, erosketak egiten...– elkartu nahi duen berriketan egiteko.

Interesatuek dei dezakete Jardun elkartera (943 76 08 19) izena emateko.

## oharrak

LEHIAKETA

**> Patata ferian egingo den lehiaketarako izenematea zabalik**

Gure Ametsak hilaren 21ean egingo duen Patata ferian III. patata lehiaketa jokatuko da. Prestatu beharrekoa izango dira patatak bakailaoarekin. Lehiaketarako izenematea zabalik dago Gure Ametsa elkartean eta 648 01 32 40 zenbakian (Jesus).

DEIALDIA

**> Aritzetak gonbita egiten die herritarrei taldean parte hartzeko**

Entseguak egiten dituzte astelehen eta eguaztenetan, 21:00etan, Mizpirualde egoitzako elizan, eta abesbatzan parte hartzeko interesa duenak bertaratu baino ez du. Informazio gehiago: 660 98 32 78 zenbakian edo *aritzetaabesbatza@gmail.com* helbidera idatziz.

MUSIKA ESKOLA

**> 'Miserableak' ikuskizunaren DVDa eta CDa Musika Eskolan daude**

Dagoeneko iritsi dira *Miserableak* ikuskizunaren DVDak eta CDak Musika Eskolara. DVDaren prezioa da 15 euro eta CDarena, 7. Jasotzeko jo idazkaritzara, astelehenetik egubakoitzera, 15:30-19:30 ordutegian.

UDALA

**> Fraiskozurin haurrendako feria jartzeko baldintzak kalean daude**

Fraiskozurin haurrendako feria jartzeko esleipena egitera doa Udala eta horretarako baldintzak eskuragarri jarri ditu *www.bergara.net*-en. Izena emateko mugaeguna da azaroaren 18a. Proposamenak aurkeztu behar dira udaletxeko idazkaritzan.

KINTADA

**> 1939an jaiotakoek bazkaria egingo dute Zumelagan**

Azaroaren 21ean egingo dute, 14:30ean. Hitzordua egin dute 13:30erako Fraiskozurin. Izena emateko deitu 943 76 24 79 (Eulali Elgarresta) edo 943 76 23 94 (Pedro Egaña) telefono zenbakira.

KINTADA

**> 1947an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufo jatetxean**

Abenduaren 5ean egingo dute, 21:00etan. Izenematea da azaroaren 31 baino lehen, Euskadiko Kutxako zenbaki honetan: 009.1.09901.9. Sartu behar dira 60 euro. Joan-etorrirako autobusa egongo da eta 20:30ean abiatuko da Santa Marina parrokia ostetik.

KINTADA

**> 1966an jaiotakoek afaria egingo dute Zumelagan**

Azaroaren 21ean egingo dute. Elkartzeko hitzordua egin dute 19:30erako Ariznoa tabernan eta afaria izango da 22:00etan. Izenematea da azaroaren 19ra arte, Ariznoa tabernan. Aurreratu behar dira 10 euro.

KINTADA

**> 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin**

Azaroaren 22an egingo dute, 14:30ean. Izenematea da azaroaren 18a baino lehen, eta horretarako aurreratu behar dira 12 euro, Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

KINTADA

**> 1943an jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin**

Azaroaren 22an egingo dute, 14:30ean. Izena emateko epea da azaroaren 18ra arte, Comercio Zubieta (943 76 16 13) nahiz Tejidos Fernandez (943 76 53 22) dendetan.

KINTADA

**> 1933an jaiotakoek bazkaria egingo dute Azpeitxin**

Azaroaren 22an egingo dute. Bazkaldu aurretik, 12:30ean, meza izango da, San Pedro parrokian. Izena emateko orduan aurreratu behar dira 6 euro, Intxorta tabernan.

KINTADA

**> 1967an jaiotakoek afaria egingo dute Tartufon**

Azaroaren 21ean egingo dute, 22:00etan. 19:00etarako egin dute hitzordua, Arrano eta Popi's tabernen aurrealdean. Izena emateko sartu behar dira 20 euro Euskadiko Kutxako zenbaki honetan: 3035 0009 19 0090084407.




Neurriak 38tik 60ra
Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93
Udazkena Negua


Musika eskolako bandakoek jo eta kantu ikasleek abestuko dute eskolako ereserkia kaleetan barrena. MUSIKA ESKOLA

**MUSIKA** > SANTA ZEZILIA

# Eguenean kalejira egingo dute musika eskolakoek

200 ikasle inguruk hartuko dute parte 'Musikalean' ekimenean, eta bandaren kalejiraren ostean plazan egingo dute emanaldia musikariek

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA
Azaroaren 22an, domekan, ospatuko da Santa Zezilia eguna. Poeten, itsuen eta musikarien zaindaria da, eta, euren patroiaren omenez, azaroaren 19an hasi eta Santa Zezilia egunaren ostera arte hainbat emanaldi egingo dituzte herriko musikariek.

**KALEJIRA**
Azaroaren 19an, eguenean, musika eskolako ikasleek kalejira egingo dute, 17:30ean hasita. Musika eskolako bandakoekin batera, neska-mutikoak aterako dira kantura, eta musika eskolako ereserkia jo eta abestuko dute herriko kaleetan.

Plazara iritsitakoan, ahots teknikako ikasleek hiru abesti eskainiko dituzte, akordeoi-joleek lagunduta, eta trikitilariek ere girotuko dute plaza euren piezak joaz. Ondoren, txokolatea banatuko dute eta meriendarekin ospatuko dute Santa Zezilia eguna, aurreratuta bada ere.

**BERREHUN MUSIKARI**
Santa Zezilia eguna dela-eta, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak aurten ere *Musikalean* ekimena antolatuko du.

Euskal Herriko txoko askotan, azaroaren 19an, 18:00etatik 20:00etara bitartean, musika kalera atera eta zaindariaren eguna ospatuko dute musika eskoletako kideek. Guztira, 34 musika eskolatako 1.700 ikasle eta irakaslek baino gehiagok hartuko dute parte ekimen horretan.

Bergarako musika eskolan, guztira, 530 lagunek dihardute ikasten, eta eguenean txikienak, 200 inguru aterako dira kaleak musikaz janztera.

Gainera, egun horretarako sol ikurraren irudiarekin propio diseinatutako kamiseta bana eramango dute soinean musikari guztiek.

## Santa Zeziliaren omenez

Ikasleak aurreratu arren, herriko beste musikari batzuek ere eskainiko dituzte kontzertuak zaindaria gogoratuz.

**22, domeka**
**11:30** Udal Musika Bandaren kalejira.
**12:30** Udal Musika Bandaren kontzertua Udal Pilotalekuan.

**27, egubakoitza**
**20:30** Orkestra Sinfonikoaren emanaldia Mariaren Lagundiko elizan.

**28, zapatua**
**20:00** Alai taldearen, Mieresko otxotearen eta Ondarroako abesbatzaren kontzertua udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

**AISIALDIA** > GAZTAÑATAN AZAROAN

# Txotxongiloak eta gaztaina erreak izango dira Osintxun

**I.A.** > BERGARA
Azaroaren 16an Animen Eguna dela kontuan hartuta, horren aitzakian Gaztañatan Azaroan egitasmoa ipini dute abian Osintxu auzoan. Joan den aste bukaeran hasi zen, umeendako zinema emanaldiarekin, eta oraingoan izango du segida.

Zapatuan, azaroaren 14an, *Erreka Mari* txotxongilo saioa egongo da, 17:00etan, ludotekan.

Azaroaren 16an, astelehenean, da Animen Eguna. Aspaldiko ohitura da Domu Santu Eguna pasa eta handik hirugarren astelehenean egiten duten ospakizuna. Garai batean afaria antolatzen zuten, baina orain, plazan, danbolinean gaztainak erre eta banatu egiten dituzte sagardoarekin batera. Aurtengo hitzordua astelehenean izango da, 19:00etan.

Azaroaren 22an, Erretiratuen Egunean bazkaria izango da, 14:00etan, Txuringo jatetxean. Bazkalostean, Txomin Amasorrainek orain dela 50 urte Osintxun ateratako irudien emanaldia egingo dute. Bazkaritarako izena eman behar da hilaren 20a baino lehen Txuringon edo Euskaldunan.


*Erreka Mari* txotxongilo emanaldia izango da zapatuan. GOIENKARIA

> MUSIKA

### 'Miserableak' ikuskizuneko DVDa eta CDa salgai

Martxoaren 4an Bergaran egindako *Miserableak* ikuskizunaren DVDa eta argazki bilduma musika eskolan daude. Batzuek aurrez eskatuta daukate eta bila joan behar dute. Baina eskatu ez eta horiek eskuratzeko interesa dutenek idazkaritza zabalik dagoen orduetan pasa behar dute musika eskolatik: astelehenetik egubakoitzera 15:30etik 19:30era bitartean. DVDak 15 euroko kostua du eta parte-hartzaileendako, 13 eurokoa; CDa zazpi eurotan eros daiteke eta bost euroren truke parte-hartzaileek.

> AISIALDIA

### Zinema eskaintza: domekan hiru film eta eguenean bat

Domekan hasi eta datorren astean ere bada hainbat zinema hitzordu herrian. Domekan, azaroaren 15ean, Zabalotegi aretoan, 17:00etan, umeendako *Bolt* filma emango dute eta helduendako, 19:30ean, *La duda*. Umeendako sarrerak bi euro balio du eta helduendakoak, hiru euro. Domekan baita ere, baina gaztetxean, *El metodo Gronholm* ikusteko aukera egongo da, 18:00etan. Bestalde, eguenean, azaroaren 19an, zineklub saioa izango da, 20:00etan, Zabalotegin, eta *Still walking* filma emango dute. Sarrerak bi euro balio du.

> ERAKUSKETA

### Juanjo Altunaren margolanak kultura etxean daude ikusgai

Gaur, azaroak 13, ipini dituzte ikusgai Juanjo Altunaren ikasleen margolanak kultura etxean eta azaroaren 28ra arte izango da erakusketa bisitatzeko aukera. Astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara bitartean egongo da zabalik. 20 lagunek inguruk dihardute pintura eskoletan eta ikasleak beste lan egongo dira erakusketan, baita Juanjo Altuna irakaslearen lanen bat ere. Mota askotako koadroak izango direla jakinarazi digu Altunak. Batik bat, koadro figuratiboak izango dira, baina egongo da lan abstrakturen bat edo beste ikusteko aukera ere.

Clínica Oftalmológica
RECALDE
Oftalmologi Klinika
Plaza Barria, 2 - 2º - EIBAR - Tfnoa.: 943 201 844
BETAURREKOAK BAZTERTZEKO AUKERA GUZTIAK ESKAINTZEN DITUGU

**ESKUBALOIA** > LEHEN TERRITORIAL MAILA

# Muniategiren mutilek lan bikoitza egin beharko dute

Joan den astean atzeratu egin zuten Ormaiztegin jokatu beharreko partidua, eta oraingo asteburuan lau puntu izango dituzte jokoan

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bota zuen euri zaparradengatik atzeratu egin behar izan zuten joan den asteko partidua, Ormaiztegiko kantxako zorua bustita zegoelako. Hala, Soraluce-Bergara taldeak oraingo asteburuan lan bikoitza izango du. Zapatuan 18:30ean zortzigarren postuan dagoen Hegialderen bisita izango dute, eta domekan Ormaiztegira egingo dute bidaia, berriro. Hala, asteburu biribila izateko ezinbestekoa izango da zapatutik domekara arte ahalik eta ondoen errekuperatzea: "Gutxienez, egoera antzerakoan egongo gara bi taldeak, Ormaiztegik ere partidua jokatuko duelako zapatuan".

Soraluce-Bergara taldeak garaipen bat eskuratu du orain arteko bost jardunalditan, eta asteburuan jokoan egongo diren lau puntuak poltsikoratu nahi dituzte: "Talde sendoak dira biak, jokalari handiekin eta indarrean oinarritzen dute euren jokoa. Printzipioz, orain momentuan nahiago ditut horrelako kontrarioak, euren kontra hobeto moldatzen garelako", adierazi du Bergarako entrenatzaileak.



Soraluce-Bergarako Gorka Ugalde Pulporen kontrako norgehiagokan –aurreko denboraldian– penaltia botatzen. JOSETXO ARANTZABAL

> PIRAGUISMOA

### Alebin eta infantil mailetako txapelketa egingo dute Bergaran

Azaroan ekitaldi mordoa izango dituzte Beti Bustiko piraguistek, eta oraingo asteburuan izango dute lehenengo hitzordua, alebin eta infantil mailetako txapelketa egingo dute-eta bihar Labegaraietan. Lehenengo piraguistak 15:00etan hasiko du lasterketa, eta, izena ematen duten partehartzaileen arabera, txapelketak bi edo hiru ordu iraungo du.

Bistan dago oraingoan errekako ur falta ez dela izango txapelketa bertan behera geratzeko arrazoia, azken astean euri mordoa bota du-eta.

> TXIRRINDULARITZA

### Urteko batzar orokorra eta afaria egingo du zikloturista taldeak

Datorren denboraldia bizikletan ibiltzeko trajea estreinatuz hasi nahi duenak azaroaren 15a baino lehen eman beharko du izena. Traje osoa dago aukeran, eta Igartua bizikleta dendan eman behar da izena.

Bestalde, denboraldia agurtzeko afaria egingo dute hilaren 21ean Torrekua jatetxean. Afaria egin aurretik, Zuloa elkartean elkartuko dira batzarra egiteko, 19:00etan. Afarirako izena eman nahi duenak I2 eta Igartua bizikleta dendetan eman ahal izango du.

**SASKIBALOIA** > SENIOR MAILAKO GIZONEZKOAK

## Bergarak Donostiara egingo du bihar ilunkaran bidaia

**X.U.** > BERGARA

Bergarak sailkapenean bi puntu gehiago dituen Kevian Sport talde donostiarraren kantxan jokatuko du bihar (20:15).

Unai Iñarraren mutilek sailkapenean bigarren dagoen Astigarragaren kontrako partidua atzean utzi nahi dute (57-75), eta puntu bila joango dira Donostiara, jakinda, nahiz eta etxetik kanpora jokatu, Kevian Sport ez dela Astigarraga bezain indartsua.

Senior mailako bigarren taldeak ere etxetik kanpora jokatuko du, Eibarko Ruibal taldearen kontra (16:30, Ipurua).

**KADETE MAILAKO NESKEK DERBIA**

Kadete mailako emakumezkoek, berriz, bigarren derbia izango dute jarraian. Joan den astean galdu egin zuten Aloña Mendiko nesken kontra, eta errebantxa hartu nahi dute Arizmendi Eskoriatzakoen kontra (bihar, 10:00, Almen).

**Labegaraieta**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Irish Pub-CM Errota-gain | **1-4** |
| Diego Valor Ileap.-LSJ | **8-1** |
| Alytis-UD Akabaoak | **2-4** |
| Los Latinos-Monte Taberna | **8-2** |
| Niu Tim-Internacional | **19-2** |
| Zigalikatis-Komando Piperrak | **1-2** |

**PARTIDUAK**

| Azaroak 15, domeka | | EPAILEAK |
|---|---|---|
| **10:00** | Zigalikatis-UD Akabaoak | **Diego Val.** |
| **11:00** | Diego Valor II.-CM Errotagain | **Zigalik.** |
| **12:00** | Monte Tab.-Internac. | **CM Errotagain** |
| **16:00** | Niu Tim-Komando Piperrak | **Alytis** |
| **17:00** | Alytis-Niu Tim | **Komando Piperrak** |
| **18:00** | Alytis-Irish Pub | **LSJ** |
| **19:00** | Los Latinos-LSJ | **Irish Pub** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | UD Akabaoak | 18 | 6 |
| **2.** | Los latinos | 15 | 6 |
| **3.** | CM Errota-gain | 15 | 5 |
| **4.** | Niu Tim | 15 | 5 |
| **5.** | Diego Valor Ileapain. | 12 | 6 |
| **6.** | Alytis FK. | 6 | 4 |
| **7.** | Internacional. | 4 | 6 |
| **8.** | Komando Piperrak | 7 | 6 |
| **9.** | LSJ | 3 | 6 |
| **10.** | Irish Pub | 3 | 6 |
| **11.** | Zigalikatis | 0 | 6 |
| **12.** | Monte Taberna | 0 | 6 |

### Kiroldegiko arauak errespetatu, eta baita arduradunen esanak ere

Antolatzaileak haserre daude hainbat taldetako jokalari eta zaleen jokabidearekin, ez dituztelako errespetatzen kiroldegiko arauak. Labegaraieta kirola egiteko gune bat da, eta, normala den moduan, debekatuta dago bertara beirazko edalontziak sartzea, eta baita erretzea ere. Horrekin batera, kiroldegi horrek arduradun batzuk ditu, eta errespetua merezi dute. Gertaera horiek errepikatzen badira, antolatzaileek ez dute birritan pentsatuko jokalari edo talde osoa kanporatzeko.

### Alytis taldeak bi partidu jokatuko ditu

Domekan Alytis taldeak lan bikoitza izango du, bi partidu jarraian jokatuko dituzte-eta, 17:00etan eta 18:00etan.

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

EGURRA SALGAI
Pagoa eta haritza Prestatuta
699 86 16 19

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

EDEL
TAPIZ DENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

## mingainari tiraka

**Arantxa de la Fuente** > Markeliñe umeendako arropa-denda

# "Gurasoek neskak hobeto janzten dituzte"

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

**Zazpi urte daroatza Markeliñe umeendako arropa-dendak Bergaran, zazpi urte Herrilagunak kalean. Arantxa de la Fuente beasaindarra da dendako arduraduna, eta 0 eta 16 urte bitarteko haurrendako arropa eta osagarriak saltzen dituzte. Sektore horretan ere krisia igartzen dela dio De la Fuentek.**



**Heltzear da negua, dendan hotzari eta euriari aurre egiteko arropa jarrita duzue dagoeneko. Badago aurtengo nabarmenduko den arroparik edo osagarririk?**

Haurrendako arropetan koloreak izaten dira aldagai garrantzitsuenak. Aurten, adibidez, kolore ilunak izango dira nagusi.

**Haurrak ez dira lehen moduan janzten. Lehen txandala zena bakeroa da orain.**

**Hala dela uste duzu? Zergatik?**

Moda kontua da. Urtez urte aldatzen doa eta arropa ezberdinak heltzen dira urtero. Hori bai, lehen baino gehiago zaintzen da haurra nola jantzi. Gurasoek neskak hobeto janzten dituztela esango nuke; edo, behintzat, gehiago begiratzen dutela. Neskendako arropetan gehiago saltzen da.

**Batek baino gehiagok uste du haurrendako arropa bereziki garestia dela. Zer uste duzu?**

Denetarik dagoela, helduendako arropan moduan. Marka garestiak daude eta marka merkeak.

Askotan garestia dela dirudi umeendako arropak, oso gutxi irauten duelako. Izan ere, umea hazten doan heinean arropa txiki geratzen doa. Arroparen ekoizpena ez da garestiagoa.

**Krisiak badu eraginik umeen arropan?**

Bai, igartzen da. Jendeak prezioari gero eta gehiago begiratzen dio.

## txaloak eta txistuak

# Euria, arazo iturri Zubietan

Horra hor asteon izandako euriteek sortutako arazoen beste adibide bat. Goiko trenbidera doazen eskaileretan, bertako bizilagun batek jakinarazi duenez, "euriteak dauden bakoitzean" urak hamaika arazo sortzen ditu. Ubidea txikiegia da eta, gainera, ondoko lurretatik erortzen diren harriek eta adarrek urari bidea mozten diote. Kexu da bizilaguna: "Urteak joan urteak etorri, inork ez du ezer egiten, nahiz eta Udalak onartua duen gunea konpontzea". Oraingoan, gainera, etxebizitza batera sartu da ura.



GOIENKARIA

## bere ustez



Andres Osa

# Ibaiak eta eskriturak

Euri jasa, haizea, txingorra, elurra eta zer ez da izan egun hauetan.

Naturak berari dagokiona ongi egingo du eta lege hori inortxok ere ezin izango du aldatu. Honen aurrean zer egiten dugu gizakiok? Hobe esanda, zer egiten dute hainbat erakundek?

Kantauri isuri honetan ibaiak eta errekak motzak baina azkarrak dira. Ibilbidean zehar batzen duen zakar pila, gehienak gizakiaren mesprezuak eta arduragabekeriak sorturikoak eta jaurtitakoak izaten dira. Ibaiaren ibilbidea zaborrez bete ez ezik etxeak, txabolak, errepideak, lur-jateak eta abar gainean eta albotan hormigoiz betetzen dira. Euskal Herri osoan ikus daiteke aipatu jokabide arlotea.

> **"Ibaiak garbitu ordez bakar batzuen patrikak sendotzen dituzte arduradunek"**

Ibaiak garbitu ordez, bere eremuan lurraren espekulazioa, lapurreta eta bakar batzuen patrikak sendotzea izan da eta da eskrupulo gabeko hainbat erakundeetako arduradunen jokabidea. Harritzekoa bada ere, krisi garai honetan inoiz baino gorbatadun lapur gehiago agertzen ari dira. Zoritxarrez, gainera, uholdeen arriskutik salbu izaten dira. Gogoan izan: ibaiek idatzi gabeko eskriturak dituzte. Hauen aurka ari den gizarteak larrutik ordainduko du.

BOLU SUKALDEAK



Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02 • *bolusukaldeak@euskalnet.net* • *http://goiena.net/blogak/bolusukaldeak*

**UDALA** > KULTURA ETXEA

# Ama-Lurrek kudeatuko du beste urtebete Arkupe

Kultura etxeko aurrekontua zelan murriztu erabaki beharko du Kultura batzordeak laster

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Iaz, urri bukaeran eman zion udalbatzak Portugaleteko Ama-Lur enpresari Arkupe kultura etxearen ardura. Urtebeterako sinatu zuten kontratua orduan, beste urtebete luzatzeko aukerarekin, eta halaxe egin dute orain.

**AURREKONTU MURRIZKETA**

Ekitaldi asko antolatu dituzte urtebetean kultura etxean: umeendako ikuskizunak, zinema –hamar urteren ostean–, kontzertuak, erakusketak… Hilero kaleratzen dute eskuorria hitzorduen berri emanaz. Alkate eta Kultura batzordeburu Inaxio Garrok ez dauka Ama-Lurrek ematen duen zerbitzuaren gaineko kexarik: "Seguru asko, hobetu daitezkeen kontuak egongo dira, baina ez diot inori entzun emandako zerbitzuaren kontrako iritzirik".

Hala ere, onartu du datorren urteari begira kultura etxeari dagokion aurrekontua murriztu beharrean izango direla: "Kultura batzordea noiz elkartuko zain nago gainerako alderdien iritziak entzuteko. Handik edo hemendik moztu beharko dugu eta gainerakoek zer dioten jakin gura dut". Datorren astean elkartuko da Kultura batzordea.


Txotxongilo erakusketa eta Corrado Masaccik umeei eskainitako saioa Arkupeko erakusketa aretoan. M.A.

**HERRIAN LANDU**

Kultura plana egin zuen Udalak udaberrian, herritarrekin elkarlanean. Herriko bizitza eta kultura dinamikaren gaineko hausnarketa egitea zuen helburu planak eta lau lan ildo zehaztu zituzten orduan. Herritarrek egindako eskaeretako bat izan zen herrian lantzea kultura. Hori horrela, datorren urterako gestio plana egitea eskatu zion Udalak Loramendi Euskara Elkarteari. Herri mailako kultura plana dabiltza gertatzen hilabeteotan, Arkupeko jarduna barruan, eta azaro bukaerarako bukatuta izango dutela uste du alkateak.

**OSPAKIZUNA** > MEMORIA HISTORIKOA

## Herriko parroko izandako eta 1936an hildako Jose Joakin Arinen aldeko meza gertatu dute

Abesbatzak gertatu du eta Santa Zezilia egunean da; eskuorria banatuko dute apaizaren gaineko kontuekin

**M.A.** > ARETXABALETA

Azaroaren 22an, Santa Zezilia eguna, Jose Joakin Arin (1875-1936) abadearen aldeko meza esango dute parrokian (11:30), Aretxabaleta Abesbatza lagun. Hamar urtean Aretxabaletako parroko izandakoaren omenez gertatu du abesbatzak meza. Horrez gain, Txartyn de Basterbero elkarteko kide Aitor Antxia Leturiak artxibo lanak egin ditu memoria historikoa berreskuratzeko, eta eskuorria gertatu du apaizaren gaineko kontuekin. XX. mende hasieran parroko izandakoa ezagutu zuen herritarrik ez dago Aretxabaletan, baina Antxiak uste du garrantzitsua dela memoria historikoa berreskuratzea.

**OIARTZUNEN FUSILATUA**

Villabonan jaio zen Jose Joakin Arin Oiartzabal. Seminariora joan eta apaiztu ostean Aretxabaletan egon zen parroko lanetan 1901etik 1911ra. Hemendik Arrasatera bidali zuten eta euskararen aldeko jarduerak bultzatu zituen han, abade etxearen behealdean. Arrasateko lehen ikastola sortu zuen bertan, Gasteizko gotzain Mateo Muxikaren babesean.

Euskal zaletasun hori, baina, ez zioten barkatu batzuek, eta, halako batean, Urraca Pastor hizlari karlista famatuak Portaloi parean ikusi eta paparretik helduta, "¡Viva, España!" oihukatzera behartu zuen. Mehatxu egin zion, gainera: "Si de mí dependiera, ahora mismo serías fusilado". Handik hilabetera, 1936ko urriaren 24tik 25era bitarteko gauean fusilatua izan zen Oiartzungo kanposantuko hormaren kontra, Jose Markiegi eta Leonardo Jauregi Arrasateko apaizekin eta Joseba Zeziagarekin batera. Guztira 14 apaiz fusilatu zituzten frankistek.

Antxiak gaineratu du eskuorri horretan Leintz bailarako apaizek kofradia sortu zutela orain dela 400 urte laguntzak, mezak, hiletak… antolatzeko. Kofradiako 1937ko zerrendan Jose Joakin Arinen izenaren alboan *asesinado* berba agertzen da eskuz idatzita.

> OSPAKIZUNA

### Arkarazo auzoan San Milixan jaiak ospatuko dituzte

Etxafuegoak botata iragarriko dituzte San Milixan jaiak gaur Arkarazo auzoan. Meza izango dute bihar (13:00) eta gero auzo bazkaria egingo dute, bertsolariek eta trikitilariek girotuta. Arratsaldean, ostera, bolo, mus eta briska txapelketak dituzte (17:00), baita aitzur eta laia jaurtiketak ere.

Domekan meza izango da auzoan hildako guztien alde (12:30) eta gero mokadutxoa eskainiko dute. Arratsaldean (17:30) jolasak egingo dituzte umeek eta mus eta briska txapelketako finalak helduek.



**JAIA** > DIRU-BATZEA

# Odoloste Eguna egingo du bihar UDAk, 800 odoloste eskainita

Odolosteekin batera txistorra ere eskainiko dute, eta ardoa; UDAk antolatutako bigarren jaia da eta dirua batzea da helburua

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Astean izan da San Martin eguna –hilak 11–, eta hori gogoan, Odoloste Eguna antolatu du Aretxabaleta Kirol Elkarteak biharko. Herriko plazan egingo dute, 18:00 inguruan hasi eta odolosteak bukatu artean.

**HERRIKO HARAKINEN LAGUNTZA**

800 odoloste dituzte gertu bihar egosi eta herritarrei eskaintzeko. Horrekin batera txistorra mokadutxoa ere egongo da eta, eztarrian trabaturik ezer ez geratzeko, ardoa. Prezioari dagokionez, norberak hautatzen duenaren araberakoa izango da.

Herriko hainbat harakinen laguntza izan dute jaia gertatzeko: Juanito Bengoak eta Imanolek odolosteak ekarriko dituzte eta Jon Diazek, txistorra. Ardoari dagokionez Gomez de Segura eta Luis Alegre upategietako Errioxa ardo gorriak eta beltzak izango dira aukeran.

Gainera, kirol elkarteko zuzendaritzako kideen asmoa da txerri-hilketaren gaineko erreportajea ematea plazan bertan, mokadutxoa jan bitartean: "Txerria Herriko plazara ekartzerik ez dugu izan, baina hilketaren gaineko kontuak erakustea gurako genuke: odolosteak eta txorizoak egiten… Izan ere, askok ez dute sekula halakorik ikusi ".

**DIRUA BATZEA HELBURU**

Irailean egin zuen lehen jaia UDAk, denboraldi hasierako jaia, eta orduan iragarri zuten beste bi egingo zituztela aurtengo denboraldian: San Martin egunaren inguruan eta ekainean. Jai horien guztien helburua dirua batzea da; horregatik, mokaduarekin eta ardoarekin batera asteroko errifak, UDAk atera duen loteria eta elkartearen armarria duten kopak eskainiko dizkiete herritarrei.



Irailean egindako jaian txahal okela banatzen UDAko kideak. M.A.



Odei Vazquez domina lepoan duela, zapatuan. ODILO VAZQUEZ

**KARATEA** > GARAIPENA

# Odei Vazquez, autonomien txapelketan hirugarren

**M.A.** > ARETXABALETA

Autonomia arteko kadete eta gazte mailetako txapelketa jokatu zuten joan den zapatuan, hilak 7, Gasteizen. Aragoi, Errioxa, Nafarroa eta Euskal Autonomia Erkidegoko karatekak elkartu ziren; tartean, aretxabaletarrak.

Aretxabaleta Kirol Elkarteko karate taldeko bi jokalari izan ziren txapelketan: Ekaitz Irusta kadeteen artean eta Odei Vazquez gazteen mailan. Vazquezek txapelketa polita egin zuen eta hirugarren postua eskuratu 61 kiloz azpiko kumite modalitatean.

Autonomia arteko txapelketa txandaka antolatzen dute: iaz Errioxak, aurten EAEk eta datorren urtean Nafarroak. Ekitaldi garrantzitsua da, Espainiako txapelketara joango diren karateka askoren maila ezagutzeko izaten delako eta, bide batez, prestaketa lanak egiteko.

**EAE-KO TXAPELKETA**

Hilaren 22an EAEko txapelketa jokatuko dute Astigarragan. Txapelketa horretan izango diren karatekak oraingo aste bukaeran aukeratuko dituzte. Horretarako hainbat proba egingo dizkiete.

**XAKEA** > TXAPELKETAK

# Arlutzeko hiru jokalari lehen hamarren artean daude Arrasateko txapelketan

Aste bukaeran bukatuko da nazioarteko txapelketa hori, azken partidak jokatu eta gero

**M.A.** > ARETXABALETA

Arlutz xake taldeko lau aretxabaletar jokatzen dabiltzan Arrasateko Nazioarteko Txapelketa bukaerara iritsi da eta gaur azken partidak jokatuko dituzte. Joan den astean galdu egin zuten hiruk: Fran Miguelek, Maisu Handi den Holden Hernandez kubatarraren aurka; Aitor Alcaidek, Carlos Nava Maisuaren aurka; eta Mikel Alcaidek, Francisco Javier Alvarezen aurka. Irabazi zuen bakarra Andoni Miguel izan zen Josu Tornay arrasatearrari.

Txapelketako azken partida jokatzeko dagoela, Arlutz taldeko hiru kide daude sailkapeneko lehenengo hamarren artean: Andoni Miguel, bosgarren; Fran Miguel, zortzigarren; eta Aitor Alcaide, hamargarren. Baina azken partidak ez dira samurrak izango; hona: Andoni Miguel-Alejandro Franco; Fran Miguel-Cesar Montolio; Aitor Alcaide-Jokin Fernandez; eta Mikel Alcaide-Jabier Axpe.

Bestalde, Gipuzkoako txapelketako hirugarren jardunaldia jokatu du Aitor Alcaidek. Mikel Alvarado izan zuen aurkari eta berdindu egin zuten. Hala, sailkapeneko zazpigarren postuan dago aretxabaletarra eta aste bukaeran Diego Olmoren aurka jokatuko du.

**ALCAIDE, NAGUSI OÑATIN**

Joan den domekan, ostera, Oñatin izan ziren herriko bost xake jokalari eta Arlutz taldeko kide bi geratu ziren sailkapeneko lehen postuetan: Aitor Alcaide lehenengo eta Fran Miguel bigarren. Aurkari indartsuak izan zituzten; tartean, Holden Hernandez kubatarra eta Alejandro Franco –biak Maisuak–, baina zorte handia izan zuela jakinarazi digu Alcaide txapeldunak: "Hainbat Maisu izan arren, nik bakarraren aurka jokatu dut, eta gero, Maisu horiek elkarri irabazi diotenez, nik gora egin dut".

Aipatu behar da federatu barik dagoen Luis Mateo aretxabaletarra hamaikagarren geratu zela lau puntu lortuta, eta Andoni Miguel hamabigarren.

## oharrak

ZINEA

**> 'Pagafantas' eta 'La montaña embrujada' filmak aste bukaeran**

Helduek Borja Kobeagaren *Pagafantas* dute eta umeek *La montaña embrujada*, domekan.

ERRETIRATUAK

**> Autoestimuaren gaineko berbaldia astelehenean**

*Autoestima* izeneko berbaldia eskainiko diete erretiratuei Basotxon, astelehenean (17:00).

KINTOAK

**> 1973an jaiotakoek afaria**

Hilaren 21ean egingo dute Hirusta jatetxean. Izena aurrez eman Hirustan edo Txiki tabernan 10 euro ordainduta.

GAZTEAK

**> Larrua lantzeko ikastaroak eguenetan**

Azaroko eguen guztietan larrua lantzeko ikastaroak egingo dituzte gaztelekuan (18:00).

PARROKIA

**> Fedean sakontzeko bilera guraso gazteendako**

Bihar, hilak 14 (16:30-18:00), kristau-fedean sakondu gura duten guraso gazteak elkartuko dira parrokiako lokaletan. Seme-alabekin joan daitezke, ekintza bereziak gertatuko dizkiete-eta haiei. Aurreko urteetan parte hartu ez duten bikote gazteendako ere zabalik dituzte ateak.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

MAPFRE
DESKONTU BEREZIAK
AUTO, ETXEBIZITZA ETA BIZITZA ASEGURUETAN
INFORMA ZAITEZ!
Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: *angelzubi@euskalnet.net*

**AZPIEGITURAK** > AP-1 AUTOBIDEAK EGINDAKO KALTEAK

# Udalak elizateetako bideak ahalik eta azkarren konpon ditzatela eskatu du

Diputazioak iragarri du Zarimutz, Apotzaga eta Mazmelako bideak birgaitu egingo dituela

Esandako lanak "atzerapenarekin" iritsi direla dio Elizateetako zinegotziak

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Gipuzkoako Diputazioak Apotzaga, Zarimutz eta Mazmelako elizateetara doazen errepideetako bide zoruaren egitura erabat birgaituko du laster. Lan horiek egiteko, guztira, 770.000 euro bideratuko ditu.

Diputazioak onartu egin du esandako bideak oso hondatuta geratu direla Eibar eta Gasteiz arteko autobidea eraikitzeko lanen eraginez: "Azken urteotan, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga (GI-3310) arteko errepidetik AP-1 autobideko lanetara sartzeko bide gisa erabili izan dira". Horren harira, gaineratu du autobideko lanak egin bitarteko urteotan, errepide horietan mota guztietako ibilgailuen zirkulazio handia izan dela, bereziki ibilgailu astunena.

Horregatik, behar bezala konponduko dira. Bide zoruaren egitura honako puntuetan birgaituko da: Apotzagan, 0 kilometrotik 1,8 kilometro punturaino; Mazmelan, 0tik 0,77 kilometro punturaino; eta Zarimutzen, azkenik, 0tik 1,23 kilometro punturaino. Hain justu ere, elizateraino doazen zatiak.

Diputazioak jakinarazi du esandako lanak dagoeneko enkantera aterata daudela, eta bi hilabete eta erdiko epean egin beharko direla.

**BIDEEN ARRISKUA**

Elizateetako zinegotzi Leire Okarantzak salatu du, horren harira, bide horien konponketa lanek iazko martxorako amaituta egon behar zutela, eta, hortaz, "atzerapen handiarekin" iritsiko direla. Dena dela, Gipuzkoako Diputazioari eskatu dio obren hasiera "ahalik eta gehien" azkartzeko: "Elizate horietara doazen errepideak oso egoera kaskarrean daude eta, eguraldi txarrarekin, oso arriskutsu bihurtzen dira. Hortaz, tramiteak bete behar direla jakin badakigu ere, Diputazioari eskatu nahi diogu ahalik eta azkarren egiteko".

Horrekin batera, Okarantzak gogorarazi gura izan du AP-1 autobideak bestelako kalteak egin dituela Eskoriatzako elizateetan: "Kontua ez da lau bide bakarrik konpontzea; haratago doa gaia. Errepidea puntu bat baino ez da eta oraindik gauza asko daude egiteke". Adibide moduan, hondakindegiak aipatu ditu Elizateetako ordezkariak.

Bestalde, kexu da autobidea zabaldu denetik oso lan gutxi egin direlako ingurunean: "Udalak gestio lan guztia eta Diputazioak lanen esleipena egin dezatela gura du Bidegik. Irtenbidea bilatzeko lanean ari gara".



Mazmela elizaterantz doan errepidea oso egoera txarrean dago. M.B.

**EUSKARA** > IKASTAROA

## Bidelagun izeneko egitasmoa jarri dute martxan berriro

Interesatuek gaur arte dute izena emateko aukera ikastetxeetan edo kultura etxean

**M.B.** > ESKORIATZA

Aurten ere Bidelagun izeneko proiektua jarri dute abian Eskoriatzako ikastetxeek, Leintz Udal Euskaltegiak eta Udalak elkarlanean. Helburua da euskaraz ez dakiten gurasoak euskararekin harremanetan jartzea eta hizkuntza menderatzen dutenei euskaraz hobeto egiten laguntzea. Modu horretan, gurasoek seme-alaben ikas prozesuan parte hartzeko aukera zabalagoa izango dute.

**BI IKASTARO**

Horretarako, bi ikastaro gertatu dituzte: euskara menderatzen ez dutenei begira, azarotik maiatzera bitarteko ikastaroa egingo dute. Besteak beste, agurrak, zenbakiak, ohiko esamoldeak eta oinarrizko hiztegia ikasiko dituzte.

Bestalde, euskara dakitenendako ikastaroak azarotik abendura iraungo du. Euskaraz egiterakoan ohiko akatsak zuzentzea eta ahozko jarduna hobetzea lortu nahi dute ikastaro horren bidez.

Kasu bietan, eskolak astean bitan izango dira, ordu eta erdiko saioetan. Egunak eta orduak ikastaroetan izena ematen dutenekin zehaztuko dituzte.

**70 ETA 20 EURO**

Interesa dutenek gaur, egubakoitza, eman behar dute izena semealaben ikastetxean edo kultura etxean. Lehenengo ikastaroaren matrikulak 70 euro balio du; eta bigarrenekoak, 20 euro.

**JENDARTEA** > PERTSONA NAGUSIAK

## Gabonetarako egonaldietan izena eman daiteke

Bi egonaldi daude: lehen hamabostaldi edo hilabeterako; eta bigarren hamabostaldirako

**M.B.** > ESKORIATZA

Nagusiak etxean zaintzen dituztenek aldi baterako egonaldiak eska ditzakete. Izan ere, urtero moduan, Gipuzkoako Diputazioak egonaldiak antolatu ditu Gabonei begira.

Lehenengo hamabostaldirako edo hilabeterako eskaera egin nahi dutenek hilaren 23ra arte izango dute izena emateko epea. Bigarren hamabostaldirako eskaerak, ostera, azaroaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira. Azken horren harira, Diputaziotik ohartarazi dute urtarrilaren 1ean ez dela garraio egokiturik eskainiko.

Horrekin batera, Foru Aldunditik gaineratu dute eskaeren kopurua libre dauden plazen kopurua baino handiagoa baldin bada, urtean zehar aldi baterako egonaldirik izan ez dutenei lehentasuna emango zaiela.

Bestalde, epez kanpo jasotzen dituzten eskaeren harira azaldu dute horiei plaza esleituko zaiela leku libreak geratzen diren heinean.

**TXANDA, AURRETIK**

Gabonetarako aldi baterako egonaldietan interesa dutenek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo behar dute. Jakinarazi dute, baina, eskaera egiteko aurretik txanda hartu behar dela 943 71 31 36 telefono zenbakian.

**AISIALDIA**

## Parkean begiraleak behar dira

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak Gabonetako parkerako begiraleak behar ditu. Curriculuma bidali nahi dutenek azaroaren 24ra arte dute horretarako aukera, kultura etxean edo Gazteria Zerbitzuan. Internetez ere bidali ahalko da, *gazteria@eskoriatza.net* helbidera.

**ABENDUAK 28 ETA 29**

Aurten, abenduaren 28an eta 29an jarriko dute Gabonetako parkea kiroldegian, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Udaletik jakinarazi dutenez, tailerrak egitea eta puzgarriak zaintzea izango da begiraleen zeregina.

**JENDARTEA** > GARABIDE

# Truke programako indigenei agurra egingo diete gaur

Umeendako jolasak lehendabizi, eta gero nahi adina aukera dago: musika, dantza eta ipuinak, esaterako

**M.B.** > ESKORIATZA

Garabide elkarteak antolatutako esperientzien truke programan egondako indigenei agur festa egingo diete gaur, egubakoitza, Eskoriatzan. Hasiera baten aialdia herriko plazan egitea aurreikusita badago ere, eguraldi txarra eginez gero Udal Pilotalekuan izango da hori.

**EKIMENAK**

Ekimenak 17:00etan hasiko dira, umeendako hainbat tailer eta jolasekin. Ordubete geroago ipuin kontalaria eta 18:30ean txokolate jana egingo dira. Bitartean, bertsolariak, txistulariak, opari banaketa eta Ekuadorko dantzak ere izango dira. 19:00etan, azkenik, euskalgintzaren esperientzia ezagutzen egondako indigenei agurra egingo diete.

## oharrak

UMEAK

**> Buztinarekin jolastuko dira gaur Tortolis ludotekan**

Gaur, egubakoitza, buztinaren gaineko tailerra egingo dute Tortolis ludotekan, 18:00etan.

KIROLA

**> Aste bukaerako hitzorduak**

Astero moduan, kirol hitzorduak daude herrian. Bihar, hiru norgehiagoka jokatuko dira. 16:00etan, saskibaloi partiduak egongo dira. Kadete mailako neskek Goierriko Hierros Mavikoak izango dituzte aurrean eta gazte mailakoek, Krafft Atxo. Sn. Sn. Anie. 18:00etan, Ohorezko Ligako areto-futbolean, etxekoek Atletico Aretxabaleta B izango dute aurrean. Domekan, berriz, Gazte Ligako areto-futboleko partidua dago, Eskoriatza eta Elgoibar artean.

EUSKARA

**> Dirulaguntzak eska daitezke**

Euskara Zerbitzuaren dirulaguntzak eskatzeko epea astelehenean, hilak 16, amaituko da. Udalak bi laguntza deialdi egin ditu: euskara hutsezko errotuluak eta irudi korporatiboa euskaraz jartzeko, hain justu ere.

GAZTEAK

**> Eingeinkek bertso afaria egingo du azaroaren 20an**

Eingeinke gazte mugimenduak bertso afaria egingo du azaroaren 20an, Dorleta elkartean, 21:30ean. Antolatzaileek jakinarazi digute Julen Zelaieta eta Haritz Casabal bertsolariek parte hartuko dutela esandako ekimenean. Interesatuek Aldatz edo Inkernu tabernan topatuko dituzte horretarako sarrerak, 15 euroren truke.



Jimmy Arrabit Trio taldeak joko du gaur gauean Inkernu tabernan. ARTXIBOA

**MUSIKA** > KONTZERTUAK

# Jimmy Arrabit Trio hirukotea eta Petti bakarlaria izango dira gaur Inkernun

Abenduaren 6an tabernak 6 urte beteko ditu, eta hori ospatzeko Esmolem l'Eina taldeak joko du

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Aitzorrotz kultura elkartearen eskutik, kontzertuak izango dira gaur, egubakoitza, gauean Inkernu tabernan. Jimmy Arrabit hirukotea eta Petti bakarlari nafarra igoko dira agertoki gainera, 22:30ean.

Azken hamarkadetako pop-rock euskaldunean ahaztu ezinezko musikaria da Jimmy Arrabit. Besteak beste, Itoiz, Anje Duhalde, Juan Carlos Perez, King Mafrundi, Labrit, Imuntzo eta Beloki eta Sustraia taldeetan ibilia da. Orain, Jimmy Arrabit Trio taldearen lana aurkeztu berri du, Fred Feugas (pianoa) eta Xabi Hayetekin (kontrabaxua) batera. Arrabitek bateria jotzen du. Jimmy Arrabit Trio taldeak musika pertsonala proposatuko die gaur gauean Inkernura joaten direnei: afro-beat erritmoen artean,Euskal Herriko betidaniko melodiei jazz eta elektro-dub eraginak lotuko dizkie.

**PETTI**

Petti abeslari eta gitarra-jole nafarra ere Eskoriatzan izango da. Estiloari dagokionez, rock, folk-rock, post-rock eta minimalismoan sailkatu ohi dute Berako musikaria. Kaleratu dituen bost diskoen kantuak eskainiko ditu; bereziki, joan den urtean argitaratutako *Awañak* izeneko lanean daudenak.

**INKERNUREN 6. URTEURRENA**

Bestalde, abenduaren 6an, Inkernu tabernak sei urte beteko ditu, eta, hori dela-eta, Aitzorrotz kultura elkartekoak jaialdia prestatzen hasi dira. Egun horretan Esmolem l'Eina talde katalaniarrak kontzertua eskainiko du han, 22:30ean.



Joan den urteko azoka. ARTXIBOA

**UDALA** > INGURUMENA

# Ura izango da protagonista aurtengo eraikuntza jasangarriaren eta energia alternatiboen azokan

Enpresek euren produktuak erakutsiko dituzte, eta alor horietako berrikuntzak ezagutarazi

**M.B.** > ESKORIATZA

Joan den urtean egin zuten lehen aldiz eraikuntza jasangarriaren eta energia iturri alternatiboen azoka Eskoriatzan. Ekimenak oso harrera ona izan zuen, eta, hala, Udaleko Ingurumen Sailak aurten bigarrenez antolatzea erabaki du. Azaroaren 21ean eta 22an egingo dute.

Aurtengo edizioa, baina, berezitasun batekin dator: jakina denez, Udalak urari buruzko ordenantza sortu berri du. Gai horri garrantzia eman gura dio eta, hortaz, urarekin lotutako hainbat sistema eta gailu ikusteko aukera egongo da datorren aste bukaeran jarriko duten azokan.

**HAMAIKA POSTU**

Baina, horretaz gain, enpresek euren produktuak erakutsiko dituzte, eta alor horietan dauden berrikuntzak ezagutu ahal izango dira. Saioa Altzua udal teknikariak azaldu digunez, oraindik zehazteke badago ere joan den urtean egondako postu kopuru antzekoa egongo da aurten. Hain justu ere, hamaika postu.

Esan bezala, azaroaren 21ean eta 22an izango da azoka, Udal Pilotalekuan. Zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara ikusi ahalko da; eta domekan, berriz, goizez bakarrik: 11:00etatik 14:00etara. Aurten ere herriko emakume talde batek taloak egingo ditu.

Villar
Ile apaindegia
Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

**AISIALDIA** > 'ANTZUOLA EZAGUTZEN'

# Ibilaldia domekan herriko basoetan barrena

Besteak beste, zuhaitz mota ezberdinak ezagutzeko aukera izango dute irteeran parte hartzen duten antzuolarrek basozainaren argibideekin

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Herri sailak ezagutzeko eta inguruko zuhaitzen berri jakiteko irteera antolatu dute domekarako, azaroaren 15erako. 09:00etan Olaranen elkartu eta zailtasun handirik gabeko ibilbidea autoan eta oinez egingo dute; lau ordu ingurukoa izango da.

Autoz Uzarragara igota, Arrasate, Aizpakar, Azkue gaineko larreak eta Kostarratzu inguruak ezagutuko dituzte. Gero, autoz Azaldegieta, Landarraitz eta Astoaga aldera joango dira, han baitaude lursailik handienak, guztira 97 hektarea baso, landare mota askorekin.

**MOTA BEREZIKO ZUHAITZAK**

Ibilbidean barrena pagoak, haritzak, gaztainondoak, urkiak, lizarrak... ikusiko dituzte, baita landatutako larizeo, alertze, douglas izei eta Korsikako alizoa ere. Badira mota bereziko zuhaitzak ere: *pinus strobus, picea, sitchensisere, adies nordnaniana...*

Antzuolak, guztira, 248 hektarea ditu lursailetan (erabilera publikoko mendiak): basoetan, 179 hektarea; eta zelaietan, 69 hektarea (horietako gehienak Gorla inguruan).

**IRTEERA GIDATUA**

Domekako ibilaldian parte hartzen duten herritarrek gidari berezia izango dute azalpenak emateko: Imanol Astola basozain zegamarra. Jose Mari Iturbe Ingurumen zinegotziak esan digunez, "hark oso ondo ezagutzen ditu landare motak, baita herri sailak ere".

Jose Mari Iturbek gonbidatu nahi ditu herritarrak domekako ibilaldian parte hartzera, "ondare garrantzitsua" direlako gure basoak: "Gure arreta eskatzen dute eta ezagutzeak lagundu behar gaitu zaintzera".

**KULTURA** > ANTZERKIA

# 'Ate joka' antzezlana eskainiko dute gaur, Torresoroan, telebistako hiru aktore ezagunek

'Goenkale' telesaileko Joseba Usabiaga, Iker Galartza eta Sara Cozar izango dira taula gainean



Joseba Usabiaga, Iker Galartza eta Sara Cozar antzerkiko une batean. GOIENKARIA

**I.A.** > ANTZUOLA

Gaur, egubakoitza, *Ate joka* komedia arin eta entretenigarria ikusteko aukera izango da, 22:00etan, Torresoroan. Telebistatik ezagunak diren aktoreak izango dira taula gainean: Iker Galartza (*Goenkale*, *Vaya Semanita* eta *Euskolegas*); Joseba Usabiaga (*Goenkale*) eta Sara Cozar (*Mi querido Klikowsky*, *Ero eta Bero*, *Kutsidazu bidea, Ixabel* eta *Goenkale*). Neil Simonen *La extraña pareja* komedian oinarritutako antzezlana da.

**BI LAGUN, BI BIZITZA**

Bi lagunen elkarbizitza izango da ardatza: dibortziatua, orain arte bakarrik bizi izana eta bizitzako bizio guztien zalea bata; eta betiko laguna, ezkondua eta dibortziatzekotan dena bestea, maniatikoa, garbizalea, obsesiboa... egoera barregarriak ez ezik, tristeak ere azalduko dituzte.

> JENDARTEA

## Globalizazioaren gaineko kafe-tertulia izango da gaztetxean

Antzuolako gaztetxeak gertu du azarorako egitaraua. Kafe-tertulia eta zinema saioa antolatu ditu. Azaroaren 14an, zapatuan, izango da kafe-tertulia *Danok bide iguala hartu biu?* izenburupean. Hitz egingo dute globalizazioak bizitzako hainbat alderditan duen eraginaz. Ustez astuna dirudien gaia arintzeko kafea, txokolatea eta pastak izango dira. Parte hartu nahi duenak 17:00etan gaztetxean agertu baino ez du egin behar.

> LITERATURA

## Gabonetako loteria salgai jarri dute erretiratuek

Antzuolako erretiratuen elkarteak jakinarazi nahi du Gabonetako loteria ipiniko dutela salgai datorren astean. Interesatuek azaroaren 18an eta 19an joan beharko dute Torresoroan dagoen Landatxope elkartera. 16:00etatik 18:00etara bitartean Landatxope elkarteko zuzendaritzako kideak egongo dira han eta bost euroren truke saldu ko dituzte loteria txartelak.

bere ustez



Iraia Gabilondo

## Gutxiengoena; eta batzuk kanpoan

Larunbatean, Bergarako kiroldegian, Euskal Herriko bertsolari txapelketako finalerdia jokatu zen. 17:30ean hasten zenez, eta sarrerarik ez genuenez, 16:00etarako joan ginen. Iritsi eta jada 100 bat pertsona egongo ziren. Eguraldia ere ez genuen lagun izan, pare bat zaparrada harrapatu genituen aterkipean.

Bertsolaritza hizkuntza gutxiengo batekin jolasteko modua da. Zerikusi estua du poesiarekin. Hitzak neurtu, hitzei zentzu jakin bat eman,

**"Hizkuntzaren inguruan horrenbeste jende biltzeko ahalmena izatea poztekoa da"**

gai baten inguruan inprobisatuz, entzuleari mezu bat helarazi. Saioak iraun bitartean, adi-adi bertsolariei entzun.

Euripean ordu eta erdi pasa arren, sarrera gabe geratu ginen. Momentuan ez zidan graziarik egin, baina buruari pare bat buelta eman ondoren pozgarria ere iruditu zitzaidan.

Ahozkotasunari historian garrantzi gutxi eman zaio, euskara hizkuntza gutxiengoa da, poesia ez dago oso zabaldua; entzuten ere gero eta gutxiago dakigu... Hala ere, guzti hau biltzen duen ekitaldi batek jendetza erakartzen du. Gutxiengo hizkuntza duen herrialde batek, hizkuntzaren inguruan horrenbeste jende biltzeko ahalmena izatea pozteko arrazoia da, nahiz eta sarrera barik gelditzean amorratu.



UGAITZ ITURBE

## Los Viernes al Ron martitzenean Aiherran

Ez du ez egubakoitzetan bakarrik jarduten Antzuolako folk taldeak, eta martitzenean, Aiherrako gaubeilan hartu zuten parte *Pepi*-k, Iraia Gabilondok eta Hodei Letek, Los Viernes al Ron-ekoek, gau giro polita sortuz. Aiherrako kontzertura hemendik jende gutxi joan arren, abenduaren 28an entzun ahal izango dituzte gertuago, Urretxuko gaztetxean.

oharrak

LIBURU DENDA

**> Toti Martinez de Lezea Itzar liburu-dendan egubakoitzean**

Itzar liburu-dendaren 30. urteurrenaren harira, Toti Martinez de Lezea idazlearekin solasaldia antolatu dute azaroaren 20erako, egubakoitzerako. 20:00etan hasita, *Toti, una mujer en la literatura* izenburupean jardungo du idazleak eta, besteak beste, bere liburuak izango ditu hizketarako gai.

MENDIA

**> Arrolako zuzendaritza**

Jardunean bi urte egin ostean, Arrola mendizale elkarteak zuzendaritza batzordea berritu nahi du. Parte hartzeko gertu dauden herritarrek 943 76 63 94 telefonora deitu behar dute edo *arrolamendi@euskalerria.org* helbidera mezu bat idatzi. Zuzendaritza berritu ezean, besteak beste, aurrerantzean ez da irteerarik antolatuko.

**POLITIKA** > MENDEURRENA

# Ospakizuna egingo dute zapatuan, Antzuolako EAJren 100. urteurrenean

Iñigo Ramirez de Okarizek liburu batean jaso du batzokitik hasi eta Antzuolan 100 urtetan barrena Euzko Alderdi Jeltzaleak izan duen bilakaera; liburu hori Udalean alderdia ordezkatu dutenei emango diete

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

EAJk 100 urte bete ditu Antzuolan, eta, mendeurrenaren harira ospakizuna egiteaz gain, liburu bat ere kaleratu dute. Ez da erraza izan liburua osatzea, Iñigo Ramirez de Okariz egilearen esanetan: "Jendeak beldurrez dokumentuak erre, bota edo ezkutatu egin zituen. Hortaz, informazioa jasotzeko baliatu naiz zeharkako kontuetatik".

1908an hainbat herritar gaiarekin arduratzen hasiak zeuden arren, 1909an inauguratu zen Antzuolan batzokia; orain Ongi Etorri taberna dagoen lokalaren gainean zegoen, hain zuzen.


Tomas Arbulu alkatea Uzarragako jaietan. GOIENKARIA


Donato Lamariano. GOIENKARIA



EAJko hainbat ordezkari Sabino Arana Fundazioak berritutako ikurrinekin. SABINO ARANA FUNDAZIOA

**HASIERAKO URTEAK**

Garai haiek ez ziren batere baketsuak herrian, karlistak, monarkikoak eta nazionalistak baitzeuden. "Hain herri txikian hainbeste ideologiak topo egitea eztabaidarako iturri zen. Zer esanik ez errepublikarrak herrian sartu zirenean", dio Ramirezek. Gerra Zibila hasi zenean alderdi politikoen hiru egoitza zeuden: karlistena Isidoranekoan, nazionalistena eta Lapatza Etxeberrin errepublika-zaleena. "Errepublika etorri zeneko bazegoen nahikoa kontzientzia ideologiko", dio.

Antzuolan ekintza asko egiten zen batzokian; batik bat, kultura ekintzak. Horien bultzatzaileak emakumeak ziren, batik bat, eta EAJtik sortu zen Emakume Abertzaleen Batza ere. Juan Lamariano antzuolarrak gogoan du nola bere arrebekin antzerkiak ikustera joaten zen batzokira. Antzuolan baziren EAJren babesetik aldendu nahian zebilen eta pentsaera erradikalagoa zuen nazionalista talde bat, Mendigoizaleena. "Gazteak ziren eta EAJren hainbat araurekin ez zeuden gustura", esan digu Iñigo Ramirezek.

**LEHENENGO ALKATEAK**

Sorrerak izan zuen garrantzia, baina pauso garrantzitsuenak nazionalistak Udalean karguak hartzen hasi zirenekoak direla esan digute. Antzuolako alkate nazionalistak, 36ko gerra hasi bitarte izan ziren: batetik, Tomas Arbulu, bi aldiz alkate izan zen, eta batzokiko presidente ere izan zen; bestetik, Donato Lamariano, Errepublikatik 36ko gerra hasi arteko alkate nazionalista. "Harekin batera nazionalistak gailurrera iritsi ziren ordezkaritza politikoari dagokionez, betiere karlistekin pare samarrean Antzuolan, borroka eta botere alternantzia beti egon da".

Ramirezek azaldu digu Lamarianok bere agintaldian alkatetzari uko egin behar izan ziola, ez zeudelako ados Madrilgo zenbait akordiorekin, baina gero berreskuratu zituztela karguak. "Ikus daiteke nola zikloak errepikatzen doazen, nahiz eta konnotazioak beste mota batekoak izan". Donato Lamarianok alde egin behar izan zuen eta beste batzuk gerrara, batailoietara, kontzentrazio eremuetara…

**BATZOKIKO TELOIA**

1936ko irailaren 21ean, Espainiako gerrarekin batera itxi zituen ateak batzokiak. Baina bada bitxikeria bat, Ramirezek kontatu diguna: "Teloi bat zegoen han, Simon Arrietaren margolan batekin eta frankistak sartu zirenean bilerak egiteko ikurrinaren gainean bandera espainiarra margotu zuten. Orain, berreskuratu egin du Sabino Arana Fundazioak (SFA). Orain dela urte batzuk batzokian aurkitutako beste ikurrina batzuk ere berritu zituzten".

Batzokirik ez zen gero berreskuratu eta militanteek gaur egun duten zalantza da ea beharrezkoa ote den batzoki bat, kontuan hartuta gaur egungo ohiturak asko aldatu direla. "Orain 15 afiliatu inguru ditu alderdiak Antzuolan eta gehien eduki zituen sasoian 30etik gora ginen", dio Ramirezek.

Batzokirik ez eta 1986an EAren sorrerarekin EAJren barruan izan zen etenak ahuldu egin zuen alderdia, ia boto erdiak galdu. Bestalde, "ezker abertzalea agertu eta EAJri aurrez aurre begiratuta harrezkero alkate alternantziak markatu du herriko eszenatoki politikoa", dio Ramirez de Okarizek.

Iraganari nostalgiaz begiratu ostean, kezkaz begiratzen diogu etorkizunari, euren ondoren jenderik ikusten ez dutelako. Ramirezen esanetan, "jendeak politika ez beste balio batzuk lehenesten ditu. Aztertzen dihardugu nola erakarri jendea, gure proiektura ez ezik, herriko beharretara, ideologiak alde batera utzita, herrigintza krisian baitago".

Mendeurrena ospatu eta etorkizunari begira jartzeko bihar, zapatua, ospakizuna egingo dute.

## Alkate nazionalistak

| | AGINTE URTEAK |
|---|---|
| Tomas Arbulu | 1920-1922/1930-1931 |
| Donato Lamariano | 1931-1936 |
| Paco Legorburu | 1979-1983 |
| Jose Mari Ugalde | 1983-1987 |
| Iñaki Lete eta Roke Iñarra | 1991-1995 |
| Mikel Larrea | 1995-1999 |
| Jose Angel Zabalo | 2003-2007 |

## Egitaraua, azaroak 14

**11:00** Hildako alderdikideen aldeko abestutako meza

**Ondoren,** Ongi etorriko agurra Olaranen txistulariekin.

**11:45** Antzuolako Uri Batzarrak egindako EAJ-PNV Antzuolan (1909-2009) liburuaren aurkezpena.

**12:15** Joseba Egibarren hitzaldia.

**13:00** Omenduei liburu banaketa.

**13:15** otordu txikia.

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



*Bortxazko tatuaiak II* argazkiak irabazi zuen *Salaketa* ataleko argazki onenaren saria. MENDI TALDEA

**KULTURA** > DEIALDIA

# Mendia eta Natura VI. argazki lehiaketa deitu du Aloña Mendik

Lanak mendi taldearen egoitzara bidali behar dira azaroaren 27a baino lehen, eta epaimahaiak abenduaren 18an emango du aditzera erabakia

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Aloña Mendi elkarteko mendi taldekoek Oñatiko VI. Mendia eta Natura argazki lehiaketarako deialdia egin dute. Aurreko bost edizioetan egindako moduan, argazkiak bi kategoriatan banatuko dituzte, gaiaren arabera: alde batetik, *Mendia eta natura* kategorian, alpinismoa, eskalada, mendi paisaia edo naturarekin zerikusia duten argazkiak bilduko dituzte; beste alde batetik, *Salaketa* atalean, ingurumenari egindako erasoen gaineko argazkiak jasoko dituzte. Lanak aurkezteko epea azaroaren 27an bukatuko da.

Informazio gehiago gura dutenek 943 78 07 80 telefonora dei dezakete eguazten iluntzeetan, edo mezua bidali *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidera. Lehiaketaren gaineko informazioa *www.alona-mendi.com* webgunean ikus daiteke.

**TAMAINA LIBREAN**

Argazkiak tamaina librean baina 40x50 zentimetroko euskarri bertikalean aurkeztu beharko dira. Erretratuaren atzealdean, gaia (*Mendia eta natura* edo *Salaketa*) eta argazkiaren izena jarri beharko da.

Horrekin guztiorrekin, lehiaketan parte hartzeko inprimakia beteta eroan beharko da Aloña Mendik Atzeko kaleko 18an duen egoitzara. Lehiaketan, 18 urtetik gorakoek bakarrik har dezakete parte eta argazkilari bakoitzak hiru erretratu aurkez ditzake, gehienez ere.

**ZORTZI SARI BANATUKO DITUZTE**

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez atal bakoitzeko sari bat jasoko duen arren, guztira zortzi sari banatuko dituzte: kategoria bakoitzeko hiru onenendako 250, 150 eta 100 euroko sariak; Osi kirol-dendan gastatzeko 100 euroko erosketa-txartela herriko argazki onenarendako; eta 100 euroko saria mendiko ekintzaren bat islatzen duen argazki onenarendako. Epaimahaia argazkigintza arloko adituek osatuko dute, eta abenduaren 9an emango dute euren epaia. Abenduaren 18an, 19:00etan, sari banaketa ekitaldia egingo dute kultura etxeko erakusketa gelan.

Bestalde, irabazleekin eta lehiaketara aurkezten diren lan onenekin erakusketa egingo dute. Hain zuzen ere, erretratuak ikusgai egongo dira kultura etxeko erakusketa gelan abenduaren 18tik urtarrilaren 2ra arte. Urtarrilean zehar lehiaketan parte hartutako argazki guztiak postaz bueltatuko zaizkie egileei.

Gainera, Aloña Mendi elkarteko mendi sailekoek saria irabazten duten argazkiak erabili ahalko dituzte euren publikazioak ilustratzeko.

## 'Bortxazko tatuaiak II' eta 'Mozoloa' izan ziren iazko lehiaketako argazki onenak

V. Mendia eta Natura argazki lehiaketara 147 argazki aurkeztu zituzten: 105, *Mendia eta natura* atalerako, eta 42, *Salaketa* atalerako. Zumaiako Jose Maria Llavoriren *Mozoloa* eta Iñaki Idigoras oñatiarraren *Bortxazko tatuaiak II* izan ziren onenak, *Mendia eta natura* eta *Salaketa* ataletan, hurrenez hurren. 300 euroko sari bana jaso zuten.

150 euroko bigarren sariak Ricardo Gartzia bergararraren *Mitxoleta* lanak (*Mendia eta natura*) eta Andoni Campos oñatiarraren *Zugzpitze* erretratuak eroan zituzten. Azkenik, hirugarren sariak Bergarako Javier Pedro Fernandezen *Gatxe* (*Mendia eta natura*) eta Jose Benegas legazpiarraren *Bicicleta* (*Salaketa*) argazkiek irabazi zituzten.

Bestalde, oñatiarren arteko lan onenendako 100 euroko erosketa txartelak Iñaki Idigorasen *Zazpigarrena* (*Mendia eta natura*) eta Ernesto Agirreren *Zuhaitzaren hilketa* argazkiek jaso zituzten. Iaz banatu zuten azken saria alpinismoko erretratu onenarena izan zen; hain zuzen ere, Joseba Leturia bergararraren *Freeride* lanak irabazi zuena.

**HEZKUNTZA** > ERAKUSKETA

# Jostailuen balioak erakutsiko dituzte ludotekan

Hilaren 28an eta 29an erakusketa egingo dute, Udal Euskara eta Hezkuntza Sailak antolatuta

**M.B.** > OÑATI

Udal Euskara eta Hezkuntza Sailak antolatuta, jostailuen gaineko erakusketa egingo dute Txaloka ludotekan hilaren 28an eta 29an, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. "Gabonetako jostailuak erosi aurretik azalpenak eta aholkuak eman gura dizkiegu gurasoei", diote ludotekako hezitzaileek.

**JOSTAILUAK, SAILKATUTA**

Erakusketa bi zatitan banatuko dute: alde batetik, ludotekako gela handian, ukitu egin daitezkeen jostailuak jarriko dituzte; eta beste alde batetik, gela txikian, euskarri informatikoan dagoen materiala erakutsiko dute. Jostailu guztiak sailkatuta jarriko dituzte, adinaren (9 urte artekoendako) eta motaren (sinbolikoak, araujolasak, jolas kooperatiboak...) arabera.

**GURASOEKIN SOLASALDIA**

Bestalde, ludotekako hezitzaileek adin tarte bakoitzeko umeei ondoen datozkien jostailuen gaineko azalpenak emango dituzte bi egunetan, 12:00etan eta 18:00etan. "Solasaldia egingo dugu gurasoekin, eta jolasaren balioen dekalogo bat emango diegu, jolasak haurrarengan izango duen eragina azalduz. Gurasoen zalantzak argitu eta galderei erantzungo diegu. Gainera, Durangoko azokan salgai egongo den materiala erakutsiko diegu", esan digute.



Jostailuak ikusgai egongo dira. M.B.

> KIROLA

### Spinning saioan parte hartzeko izenematea hilaren 18ra arte

Markel Irizarren lagunarteak eta E-goitek enpresak antolatutako spinning saioan parte hartu gura dutenek hilaren 18a baino lehen eman behar dute izena kiroldegiko sarreran. Spinning saioa 10:00etatik 11:30era egingo dute hilaren 21ean, eta profesional mailako txirrindulariek parte hartuko dute. Bukaeran, opariak zozketatuko dituzte.

> OSPAKIZUNA

### Rufino Arantzeta Arregik 100 urte beteko ditu domekan

Rufino Arantzeta Arregik 100 urte beteko ditu domekan. Larrain Gain elkartean bilduko dira ospakizuna egiteko, eta han egongo dira Lourdes Idoiaga alkatea eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Rosarito Galdos. Arantzetak oroigarriak jasoko ditu udal ordezkarien eskutik, 13:00etan. Ondoren, familiarekin bazkaria egingo du elkartean bertan.

## oharrak

OSPAKIZUNA

**> Meza esango dute domekan San Martingo ermitan**

Eguaztenean Tourseko San Martin eguna izan zen, eta hori ospatzeko meza esango dute domekan, 12:00etan, San Martingo ermitan.

KINTADA

**> 1966. urtean jaiotakoek afaria egingo dute**

Azaroaren 28an egingo dute afaria. Parte hartu gura dutenek 20 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxakokontu honetan: 30350005320051038676.

KINTADA

**> 1971. urtekoek bazkaria egingo dute Etxeberrian**

Abenduaren 12an egingo dute. Izena emateko 657 70 67 48 telefonora deitu edo posta helbide honetara idatz dezakete interesatuek: *quintos71@gmail.com*

HITZALDIA

**> 'Beste Gasherbrumak', Juan Vallejoren eskutik**

Aloña Mendi elkarteko mendi sailak antolatuta, hitzaldia egingo du Juan Vallejok azaroaren 17an kultura etxean, 19:30ean.

**EKONOMIA** > 2010EKO ORDENANTZA FISKALAK

# Udal zerga arruntak ez igotzeko erabakia hartu du udalbatzak

"Urte gogorra da denondako", esan zuen Oxel Erostarbe alkateak martitzeneko osoko bilkuran

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Udalbatzak aho batez hartu zuen udal zerga arruntak ez igotzeko erabakia martitzenean. "Urte gogorra da denondako", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Aldaketa txiki batzuk egin ditugu, besteak beste egon ahal diren espekulazio kasuen kontra egiteko". Hala, gora egingo duen udal zergetako bat hiri-lurren gainekoa da. Udalak mailakatu egin du zerga horren aplikazioa. Aurrerantzean ez dute berdin ordainduko erosi eta urtebetera etxebizitza saltzen duen jabeak edo 20 urteren buruan saltzen duenak. Gero eta urte gutxiago, gero eta handiagoa izango da zerga. Gora egingo du, halaber, hilerriaren gaineko tasak. Egun, 145 euro da. Aurrerantzean, pertsonalaren kostua, 12 euro, herritarrek ordaindu beharko dute. Eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari gutxieneko kopurua finkatu diote: 40 euro. "Lanak egiteko baimena eman aurretik udal teknikariak lekua ikusi eta txostena idatzi behar du", adierazi du alkateak.

Tasa berria ere sortu dute aurten: txakurtegi zerbitzuarena, hain zuzen ere. Martxan dagoenez, udalbatzak onartu du 4,17 euroko tarifa ipintzea txakur eta katu bakoitzaren eguneko mantenuari aurre egiteko. Udalak, bestetik, mantendu egingo ditu indarrean dituen hobari edo bonifikazio guztiak; familia ugariendako, ezinduendako, mugikortasun zailtasunak direla-eta etxean irisgarritasun lanak egin behar dituztenendako eta eraikin historikoendako.

**KIROL ZERBITZUAK**

Martitzeneko plenoan ez zuen aurrera egin, baina udal gobernuaren proposamenetako bat izan zen herrian erroldatuta ez daudenei kirol zerbitzuen prezioa %150 igotzea. "Nahi genuen herritarrak jabetzea Elgetan erroldatuta egotea zenbateraino den garrantzitsua Elgetarendako", azaldu du alkateak. "Zapateroren dirulaguntzak, esaterako, erroldatuta dauden herritar kopuruaren arabera finkatzen dira. Elgetan bizi garen denok herrian erroldatuta egongo bagina, dirulaguntza handiagoak jasoko genituzke".

**HIRIGINTZA** > HIRIGUNEA

## Errehabilitazio plan berriari ekarpenak egiteko unea da

L.Z. > ELGETA

Erdiguneko etxebizitza hutsak okupatzea, gutxieneko baldintza batzuk betetzen dituzten garajeetan eta ganbaretan etxebizitzak egitea eta gaur egungo eraikinetan etxebizitza gehiago egiteko aukera ematea dira, besteak beste, Udalak aurkeztutako errehabilitazio plan berriaren zenbait ardatz.

Abenduaren 16ra bitartean, plana erakusketa publikoan egongo da; herritarrek dokumentua aztertu eta proposamenak egiteko aukera dute.

**IKUSGAI UDALETXEAN**

Udal Gobernuak otsaileko osoko bilkuran eman nahi dio hasierako onarpena hiriguneko errehabilitazio plan berriari. Alegazioak aurkezteko epea etorriko da martxoan, eta kalkulatzen dute alegazio horiek aztertu ondoren uztailean izango direla behin betiko onarpena emateko moduan. Dokumentua ikusi eta aztertzeko interesa dutenek udaletxean aurkituko dute testu osoa. Bestalde, laburpen bat ipini dute ikusgai *www.elgeta.org* webgunean.



Erdiguneko etxebizitza asko hutsik daude. L.Z.

4 t'erdiko pilota txapelketa

### Lehenengo tarteak zabaltzen ari dira

Goiz da oraindik, txapelketa hasi berria da, baina dagoeneko hasi dira zenbait bikote nabarmentzen. Lehia estua aurreikusten da aurten txapelketako bi kategorietan. Argibide behiago, asteburuan.

| 40 URTETIK GORAKOAK | J | I | G |
|---|---|---|---|
| **1.** Angel Ibarluzea - Alberto Telleria | 3 | 3 | 0 |
| **2.** Asier Morales - Fernando Zenitagoia | 4 | 3 | 1 |
| **3.** Luisan Alkorta - Gorka Bolinaga | 5 | 3 | 2 |
| **4.** Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre | 3 | 2 | 1 |
| **5.** Koldo Goenaga - Alex Arantzabal | 4 | 2 | 2 |
| **6.** Joseba Arbulu - Mikel Elkoro | 4 | 2 | 2 |
| **7.** Jose Mari Zubiaurre - Iñaki Ugarteburu | 2 | 1 | 1 |
| **8.** Pello Larrea – Jesus Belamendia | 3 | 0 | 3 |
| **9.** Julio Calleja - Mikel Arkarazo | 3 | 0 | 3 |

| 40 URTETIK BEHERAKOAK | J | I | G |
|---|---|---|---|
| **1.** Iban Retolaza - Jabier Larrañaga | 2 | 2 | 0 |
| **2.** David Peñalver - Txomin de Vega | 2 | 2 | 0 |
| **3.** Unai Alkorta - Etor Garate | 2 | 2 | 0 |
| **4.** Enrike Elkoro - Oier Billa | 2 | 2 | 0 |
| **5.** Argoitz Arantzabal - Koldo Erostarbe | 1 | 1 | 0 |
| **6.** Asier Osoro - Sergio Bouzas | 2 | 1 | 1 |
| **7.** Mikel Ormaetxea - Jon Irazabal | 2 | 1 | 1 |
| **8.** Oxel Erostarbe - Gorka Arizmendiarrieta | 2 | 1 | 1 |
| **9.** Haritz Gallastegi - Kepa Odriozola | 2 | 0 | 2 |
| **10.** Samu Gorrotxategi - Luis Atorrasagasti | 2 | 0 | 2 |
| **11.** Gaizka Etxeberria – Satur Ramos | 3 | 0 | 3 |
| **12.** Gaizka Bolinaga - Igor Irazabal | 3 | 0 | 3 |

**ONGIZATEA** > BERDINTASUN PLANA

## Lehenengo bileran ekarpen baliagarriak egin ziren

Hurrengo bilera hilaren 23rako deitu du Bideberri mankomunitateak

L.Z. > ELGETA

Bederatzi lagun elkartu ziren astelehenean Bideberri mankomunitateak Berdintasun Plana lantzeko deituriko bileran. "Egindako ekarpenak oso baliagarriak izango zaizkigu", adierazi du proiektuan aholkularitza lanak egingo dituen Ainara Ibañezek. "Berdintasun Planak emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea du helburu", azaldu du Ibañezek, "eta udalerriko hainbat esparru izan behar ditu kontuan: hezkuntza, kultura eta kirola, enplegua eta lana, osasuna, gizarteratzea, hirigintza, garraio publikoa eta ingurumena, Udala...".

**KONTZIENTZIAZIO PROZESUA**

Alor horiek guztiak landu behar dira emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko, eta emakume eta gizonen arteko bereizkeriari eusten dioten oztopoak eta egiturak gainditzeko. "Orain arte bizi izan ditugun eta, oraindik ere, bizi ditugun desberdintasun egoerei aurre egiteko", adierazi du Ibañezek. Hurrengo bilera ere zabalik dute herritarrek. Hilaren 23an izango da, 18:00etan, udaletxean.

bere ustez



Patxi Basauri

## Patxi, auzolanean eredu

Elgetan gauza asko egin ziren auzolanean 70eko hamarkadaren amaieran. Familia gurasoen elkartearen eta autogestio taldearen ekimenez herritarren bizi kalitatea nabarmen hobetu zuten lan interesgarri ugari egin ziren.

Administrazioak ez zuen orduan sosik, eta herriaren gabeziak handiak ziren. Gaur egun etxebizitza guztietan dugu edateko ura, Urkulutik datorkigu. Orduan, baina oso urria zen. Luzaz, Intxortatik hornitu zen Elgeta. Gerora ekarri zen Udaixatik lehenengo, eta Aitxulutik beranduago.

**"Zenbat gau Intxorta magalean ubideak garbitzen ura herrira bideratzeko!"**

Gogoan dut edateko ura zisterna-kamioietan Bergaratik ekartzen zeneko garaia. Uda batzuk egin ditugu edateko ura egunean gehienez hamar orduz bakarrik izanda herrian!

Familia gurasoen elkarteak lan handia egin zuen urte horietan. Tartean zen joan berria zaigun Patxi Arantzabal, *Larraña*. Zenbat iluntze, zenbat gau Intxorta mendi magalean ubideak garbitzen! Tantarik alperrik galdu barik ura herrira bideratzen! Ez dut ahaztuko ura Aitxulutik eta bereziki Urkulutik ponpatzea lortu zenean denen poztasuna, eta bereziki Patxi *Larraña*rena.

112 SOS DEIAK



Martitzenean bilera irekia egin zen Plan Orokorraren irizpide berriak azaltzeko. JULEN IRIONDO

**HIRIGINTZA** > PLAN OROKORRA

# Irizpide berriak onartu eta urtebete pasatxoan prest egon daiteke plana

Plan Orokorraren irizpide berriak zehazteko kanpo txosten bat egin da; Stoa enpresak orain aurrerakin berria prestatu beharko du

**JULEN IRIONDO/ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Urtebete pasatxoan Aramaioko Plan Orokorra onartuta egon daiteke. Planaren irizpide eta helburuen inguruan sortutako eztabaidaren ostean eta Plan Orokorraren Aholku Batzordeak hala eskatuta, Udalak kanpo txosten bat egitea erabaki zuen. Maribi Juaristi hirigintza kontuetan aditu eta abokatuak egin du, udalbatzaren, Aholku Batzordearen eta herritarren iritziak kontuan izanda. Txostenean irizpide berriak zehazten dira eta horien berri eman zuten martitzenean. Auzoei dagokienez, txostenean garbi azaltzen da gehienak landa eremu moduan mantentzeko nahia; Stoa enpresak egindako aurrerakinak ez zien izaera hori ematen auzo askori. Baina Aldundiak inbentarioa egin du eta zehazten da 14 auzoetatik 12 landa eremua direla. Ibarran, berriz, etxebizitzak egiterakoan noren beharrak asetzeko izan behar duten aztertzen da eta, horren arabera, zenbat etxeren premia dagoen zehaztu. Txostenean esaten da herritarren premiak ase behar direla, ez eskualdekoak, eta datu bat gehitzen da: Etxebiden 33 aramaioar daude izena emanda. Ondorioz, planaren aurrerakinak proposatzen zituen 303 etxebizitzak gehiegizkoak direla eta 100 kopuru aproposagoa dela dio. Horrekin batera, industria jarduteretarako zortzi hektarea beharrean hiru proposatzen ditu.

**AURREKARIAK**

2006. urtean, aurreko agintaldian, lehiaketa bidez Stoa enpresari eman zitzaion Plan Orokorra egiteko ardura. 2008ko urrian aurkeztu zuen hark planaren aurrerakina, baina haren edukia ez zen izan udalbatza berriaren gustukoa. Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Sailak ere geldiarazi egin zuen planaren tramitazioa.

Planaren aurrerakinean zehazten ziren irizpideek herrian sortutako eztabaida eta egonezina ikusita, Udalak erabaki zuen Plan Orokorraren Aholku Batzordea eratzea, herriko hainbat eragilerekin batera. Batzordeak irizpide berriak finkatzeko lehen aipatutako kanpo txostena egitea eskatu zuen. Txostena Aholku Batzordeak, Udaleko Hirigintza batzordeak eta osoko bilkurak onartu beharko dute orain. Stoa taldeari irizpide berrien arabera planaren aurrerakin berria egiteko eskatuko diote ondoren. Planaren tramitazioak bere bidea jarraituko du, eta Aldundiak eman beharko dio azken onarpena. Dena ondo joanda, urtebete pasatxoan izan dezake Aramaiok Plan Orokorra.

**JAIAK** > SAN MARTIN EGUNA

## Partxis lehiaketa eta trikiti jaia antolatu dituzte gaurko

**A.B.** > ARAMAIO

San Martin eguna ospatuko da gaur, barikua, Aramaion. Arratsaldean giro aparta egongo da herriko plazan eta baita udaletxean ere. Txirritola Euskara Elkarteak antolatuta partxis lehiaketa egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 18:00etan hasita. Bi kategoria bereiziko dira: 1995 eta 2003. urte bitartean jaiotakoak eta 1995. urtetik aurrera jaiotakoak. Kategoria bakoitzean hiru sari banatuko dira. Horrez gain, trikiti jaia ere egongo da, hura ere 18:00etan hasita. Lehenengo, kalejira egingo da herriko trikitilariekin eta ondoren buzkantzak eta ardoa dastatzeko aukera egongo da udaletxeko arkupeetan.

**JAIAK** > SANMELIXENAK

## Gantzagan jai giroan ibiliko dira aste bukaera honetan

**A.B.** > ARAMAIO

Gantzagako auzotarrek San Melixen jaiak ospatuko dituzte aste bukaera honetan; gaur hasi eta domekara bitartean ez da aspertzeko astirik izango Gantzagan. Gauean kantu afaria izango dute. Bihar ere egongo da zer egin egun osoan; erromeriarekin amaituko dute eguna zapatuan: Jon Ostolatza eta Unai Andonegirekin. Domekan, 29. Gantzaga Saria txirrindulari igoera egingo dute eta arratsaldean, triki poteoa eta tute txapelketa.

### Egitaraua

**13, barikua**
**20:30** Kanpai errepika eta etxafuegoak
**21:00** Kantu afaria

**14, zapatua**
**09:00** Kanpai errepika eta etxafuegoak
**12:00** Meza nagusia Aretxabaletako koroarekin
**13:00** Bermut dantza trikitilariekin
**17:00** Mus txapelketa
**17:30** Patata tortilla lehiaketa
**17:30** Txikiendako ipuin kontalaria
**23:00** Erromeria Jon Ostolatza eta Unai Andonegirekin
Ohera joan aurretik txokolatea

**15, domeka**
**09:00** Kanpai errepika eta etxafuegoak
**11:00** Meza santua hildakoen alde
**11:30** Arrasateko txistularien kontzertua
**12:00** 29. Gantzaga Saria txirrindulari egoera
**13:00** Triki poteoa
**17:00** Tute txapelketa

agenda 21 txokoa

## Agenda 21en teknikaria kontratatu du Udalak



Luis Casado. L.C.

**UDAL TALDE 21** > ARAMAIO

Aramaion Tokiko Agenda 21en diagnostikoa eta ekintza plana landuko dugu hemendik eta 2010. urtearen amaierara arte. Tarte horretan, *Tokiko Agenda 21en txokoa* irekiko dugu hilean behin GOIENKARIAn, prozesuaren berri emateko eta dudak argitzen joateko.

Beraz, hileko bigarren ostiraletan hemen izango gaituzue, berriak zabaltzeko prest.

**ORAIN ARTE EGINDAKOAK**

Irailaren amaieran udaletxean izan zen bilera irekiaren ostean, diagnostikoaren zirriborroa osatzeko lanei ekin zaie, eta aste honetan bertan Tokiko Agenda 21eko teknikaria hasi da lanean udaletxean. Teknikariak udalerriko eragileen ekarpenak jasoko ditu eta udaletxean bildu beharreko datuak osatzen joango da. Haren izena Luis Casado da, eta harekin harremanetan jarri nahi izanez gero, udaletxean aurkituko duzue ostegunetan udal bulegoetako ordutegian.

Luis lanean hasi arte ezin izan da askorik aurreratu udalerrian bertan jaso beharreko datuen bilketan, baina Luisekin batera lanean dabilen aholkularitza enpresa jada hasi da diagnostikoaren zirriborroa moldatzen; beste erakundeetatik lortu beharreko datuak biltzen ari da eta irailaren bukaeran izandako bileran jasotako ekarpenak dokumentu horretan jasotzen.

Hurrengo hilabeteari begira honakoak dira helburu nagusiak: udalerrian jaso behar den informazioa biltzea, udalerriko eragileekin harremana mantentzea eta urtarrilean egin nahi den inkesta prestatzea. Beraz, hemendik aste batzuetara kontatuko dizuegu zenbat aurreratu ahal izan den lan hauetan.

UDAL TALDE 21 AGENDA LOCAL • BERTAKO AGENDA

al21zuia@gmail.com

**OSPAKIZUNA** > SAN MILIXAN FERIA

# Artisauen lanak eta txerri-hilketaren gaineko kontuak ikusgai domekan

Pilotalekuan 15 postu egongo dira, kultura etxean erakusketa eta Labidea alboan tailerra

Txerri bat ekarriko dute, hilda, eta bertan zatitu; txorizoak eta txitxikiak egingo dituzte



San Milixan eguneko artisau feriako postu bat Gatzagako pilotalekuan. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Domekan, azaroak 15, ospatuko dute gatzagarrek zaindari duten San Milixanen omenezko eguna. Azken urteotan legez, artisauak izango dituzte lagun egun horretan eta XVII. eskulangintza feria egingo dute (10:00-14:30).

Antolatzaileek jakinarazi gura diete kanpoko bisitariei aurten ere autobusa antolatu dutela automobilek arazorik ez sortzeko herrian, baina Eskoriatzatik Gatzagara egingo ditu joan-etorriak autobus horrek –ez herrian hara eta hona.

**TXERRI JAKIAK SALGAI**

Herria girotzea du helburu feriak, eta, era berean, artisautzatik bizimodua ateratzen dutenei laguntzea. Udalak eta herriko talde batek elkarlanean antolatu dute aurtengo ospakizuna, eta, beste urte batzuetan legez, galtzeko bidean diren lanbide eta ohiturak erakutsi gura dituzte domekan. Hala, txerri-hilketaren gaineko erakustaldia egingo dute San Migel plazan, feriak iraun bitartean.

Txerrizaleok elkartea izan dute lagun horretarako eta Basatxerri kalitatea duen txerriarekin egingo dute erakustaldia. Euskal Herriko mendietan aske hazitako txerria izango da ekarriko dutena, ezkurrak, gaztainak, belarra, garoa eta bestelako elikagai natural bidez elikatua. Hilda ekarriko dute eta herriko hainbat lagunek zatituko dute bisitarien aurrean. Txorizoak eta txitxikiak zelan gertatzen zituzten sasoi baten baserrietan ere erakutsiko dute.

Domekan ez da egongo jaki horiek probatzeko aukerarik, baina salgai jarriko dituzte gero etxean jateko. Salgai egongo direnak aurrez gertatutakoak izango dira, txerri erdia ekarri eta astean ibili dira-eta hainbat herritar odolosteak, txitxikiak eta adobatuak egiten.

**ARTISAUAK, PILOTALEKUAN**

San Milixan eguneko protagonistak artisauak izan dira beti eta pilotalekuan izango dute haiek kokalekua. 15 postu izango dira eta salgai jarritako produktuak zelan egiten dituzten erakutsiko dute bertan. Hainbat eratako osagaiak erabiliko dituzte elkartutakoek: buztina, burdina, egurra, beira, larrua, zeta… Eta osagai horiek landuta benetako artelanak egin daitezkeela erakutsiko dute: bitxiak, pilotak, kaikuak, musika tresnak, jostailuak… Euskal Herriko txoko askotatik etorri arren, artisau horiek gehienak gipuzkoarrak izango dira, eta Debagoieneko bakarra egongo da: Angiozarko Mendi Artelanak larrua lantzen.

Bestalde, herriko Eskuz Larrugintza denda ere zabalik egongo da Pilar kalean.

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**

Artisauen postuak ez ezik erakusketa eta tailerra ere antolatu dituzte, azken urteotan legez. Birziklatutako materialekin egindako lanparak kultura etxean egongo dira ikusgai feriak iraun bitartean. Lazkaoko Pedro Castelo artistak egindakoak izango dira lanpara horiek.

Eta Labidea denda alboko txokoan enkoadernatzeak zelan egiten diren erakutsiko du Errenteriko Arantxa Paskualek. Papera eta oihala erabiliko ditu horretarako eta albumak eta kuadernoak zelan egin jakinaraziko die elkartutakoei.

**GATZ MUSEOAN SUA PIZTUTA**

Eugenio Otsoa gatz museoa zabalik egongo da domekan (11:00-14:00) eta bertako arduradun Aitziber Gorosabelek iragarri du sua egingo dutela dorlan gatza zelan egiten zuten sasoi baten erakusteko bisitariei. Gainera, gatzarekin egindako orea eskainiko diete umeei irudiak egiteko eta bonboi gaziak salgai jartzekotan daude.

Museoak dagoeneko neguko ordutegia dauka: zapatu eta domeketako bisita gidatuak: 12:00etan –euskaraz– eta 13:00etan –gazteleraz.

ESANAK

## "Basatxarri izendapena duen hirugiharra eta txistorra erabiliko ditugu 'sorginok' taloetan sartzeko"

**Rosa Urreta** > Sorginak elkartea


Sorginak emakume elkarteko kideak taloak egiten pilotalekuan. GOIENKARIA

## Taloak, aurten ere, 'sorginen' eskutik

Urtero legez, taloak eta edatekoa eskainiko dituzte Sorginak emakume elkarteko kideek pilotalekuan, feriak iraun bitartean. Geratu barik jardungo dute lanean Gatzagara hurreratutakoei talo goxoak eskaintzeko. Aurten, gainera, talo barruan sartuko dituzten hirugiharra eta txistorra Basatxarri izendapena duen txerriarenak izango dira; hau da, elikagai naturalez elikatutako txerriarenak. *Sorginek*, gainera, Gatzagan elkartutako artisauendako bazkaria egingo dute.

MOTZEAN

## San Milixan feriaren inguruko datu esanguratsuenak

**> TXERRI OSOA IKUSGAI**
Hilda ekarriko dute txerria erakustaldirako, txerri osoa. Astean, ostera, txerri erdia ekarri dute aurrez gertatzeko jakiak: odolosteak, txitxikiak, adobatuak…

**> 15 POSTU PILOTALEKUAN**
Artisauen 15 postu egongo dira; horietatik zortzi gipuzkoarrak izango dira, hiru arabarrak, beste hiru bizkaitarrak eta bakarra nafarra, Cascante herrikoa.

**> LANPAREN ERAKUSKETA ETA ENKOADERNATZE TAILERRA**
Erakusketa Garro jauregian izango da eta tailerra Labidea alboko txokoan (10:00-14:30).

**> TRIKITILARIAK**
Goiz osoan, feriak iraun bitartean, trikitilariak ibiliko dira kalean ospakizuna girotzen.

**> AUTOBUSA ESKORIATZATIK**
Goierri Bus konpainiako autobusak –24 leku dituena– joan-etorriak egingo ditu Eskoriatzatik Gatzagara. Bi geltokitan hartu ahal izango da: Akeita taberna parean eta Aranburuzabala kalean.

**> GATZ MUSEOA ZABALIK**
Gatz museoa zabalik izango da eta bisita gidatuak eskainiko dituzte. Hona ordutegia: 11:00-14:00.

**FUTBOLA**> OHOREZKO ERREGIONALA

# Etxekoen artean lehenengoa

## Aloña Mendiko eta Bergarako entrenatzaileek domekako derbiaren gainean egin diote berba GOIENKARIAri

**XABIER URTZELAI** > BERGARA
Lau urte igaro dira Aloña Mendik eta Bergarak ligan elkarren kontra azkenekoz jokatu zutenetik, eta domekan Josu Zubiaren eta Manu Diazen mutilak aurrez aurre izango dira berriro (16:30, Azkoagain). Eta derbiaren atarian, GOIENKARIA bi entrenatzaileekin izan da berbetan.




Unai Arregi (Aloña Mendi) eta Jon Urteaga (Bergara) argazkietan. GOIENKARIA

**ALOÑAK, BEHAR HANDIAGOA**
Aloñak (10) Bergarak (13) baino hiru puntu gutxiago ditu, eta hori ez da tarte handia. Baina azken jardunaldietako nondik norakoak ikusita, txantxikuarrek mahoneroek baino puntu behar handiagoa dute, eta bi entrenatzaileak bat datoz horretan: "Azken partiduetako bolada negatiboa etetea ezinbestekoa da guretako. Gol mordoa jaso ditugu azken jardunaldietan, baina alde handia dago Berioren eta Beti Gazteren arteko partiduen artean. Berion kezkatuta amaitu nuen partidua, baina joan den astean Beti Gazteren kontra galduta ere, gauza positibo mordoa ikusi nizkion taldeari", adierazi du Zubiak.

Diazen taldeak bi partidu jarraian jokatuko ditu etxetik kanpora, baina etxean batu dituzten puntuek lasaitasuna eman diote taldeari: "Ilusio handiarekin goaz Azkoagainera jokatzera, hor jokatzea berezia delako. Eta bai, liga hasiera honetan puntu kopuru polita batu dugu, eta horrek lasaitasuna emango digu partidu hauetarako. Ondo egongo litzateke, gutxienez, kanpoan jokatuko ditugun datozen bi partiduetako bat irabaztea, eta Oñatira garaipen gosez goaz".

**DERBIETAN, MAKAL**
Hor dago, hain zuzen, Bergararen erronketako bat, derbi bat irabaztea; izan ere, azken urteotan BTLS eta Antzuolaren kontrako derbietan mahoneroak pattal ibili dira. Diazek badaki zergatik: "Nik uste dut antsietateagatik izan dela hori. Hau da, partidu horietan guk asko izaten genuen jokoan, eta taldea antsietatearekin zelairatzen zen. Ea orain arte batu ditugun puntuek ematen duten lasaitasunarekin jokatu, behingoz, derbi bat irabazteko gauza garen".

Oiartzun da erregional mailatik igo eta sorpresa handiena eman duen taldea –sailkapenean hirugarren–, baina Bergara ere ondo moldatu da kategoria berrira. Zubiak ondo daki hori: "Bergara kategoria honetan geratzera etorri da, nik ez dut ikusten kategoriako talde makalen artean, ezta gutxiago ere. Jokalari onak ditu, eta gutxienez gu besteko taldea. Bai, iaz ez ziren derbietan ondo moldatu; bada, irabaz dezatela hurrengo derbia, baina ez domekakoa".

ESANAK



GOIENKARIA

**"Azken urte hauetako derbietan antsietateaz jokatu dugu, baina Oñatira lasai joango gara"**

**Manu Diaz** > Bergarako entrenatz.



GOIENKARIA

**"Taldea puntu beharrean dago, eta guretako ezinbestekoa da bolada txarra etetea"**

**Josu Zubia** > Aloñako entrenatz.

**TXIRRINDULARITZA** > QUEBRANTAHUESOS PROBA

# Abenduaren 14ra arte eman daiteke izena Quebrantan

## Antolatzaileek ez dute nahi iazko arazoak errepikatzea, eta zozketa bidez banatuko dituzte dortsalak

**X.U.** > BERGARA
2010eko Quebrantahuesos proban izena emateko antolatzaileek sistema berria erabiliko dute aurten; izan ere, iaz jendea haserre ibili zen webgunea blokeatu egiten zelako. Antolatzaileek ez dute horrelakorik errepikatzerik nahi, eta aurten zozketa bidez banatuko dituzte dortsalak, 8.000 inguru.



Ziklistak Quebrantan, Portaleten gora. GOIENKARIA

Hala, datorren urteko Quebrantahuesos proban izena emateko epea zabalik dago joan den azaroaren 3az geroztik; baina lasai, iaz ez moduan, aurten azkarrenak ez du saririk jasoko. Hau da, antolatzaileek abenduaren 14an itxiko dute izenemate epea, eta lehenengo egunean izena eman zutenak berdin-berdin sartuko dira zozketan, inongo abantailarik gabe.

**TALDEKA IZENA EMATEA, HOBETO**
Hori bai, zozketan aukera gehiago izateko komeni da izenematea taldeka egitea –gehienez bosteko taldeak–; izan ere, taldeko bati dortsala tokatuz gero, talde osoak ere jasoko du dortsala.

Zozketa abenduaren 15ean egingo dute, eta zortea daukaten ziklistek urtarrilaren 29ra arte izango dute ordainketa egiteko epea.

> TXIRRINDULARITZA

### Spinningeko saioa egingo dute Markel Irizarren eta Euskalteleko ziklisten laguntzarekin

Iazko arrakasta ikusita, azaroaren 21ean spinning ikastaroa egingo dute Zubikoan. Ikastaroan E-goitek enpresako kideak eta Euskaltel Euskadiko hainbat kide izango dira.

Hitzordua zabalik dago kirola eginez ondo pasa nahi duten guztiei, eta 10:00etatik 11:30era arte iraungo du. Ondoren sariak banatuko dituzte. Izenematea hilaren 18ra arte dago zabalik, eta bost euroko fiantza ordaindu behar da –dirua itzuli egingo da.

> PILOTA

### Aitor Mendizabal antzuolarra txapeldun Euskadiko selekzioarekin Mexikon

Aitor Mendizabal pilotari antzuolarra Mexikon izan da Euskadiko selekzioarekin jokatzen. San Martin de las Piramidesen (Mexiko) jokatu zuten Mundu Kontseiluak antolatutako torneoa, eta Diez bizkaitarrarekin batera Antzuolakoa finalerako sailkatu zen.

Finalean, Euskal Herriko ordezkariek Monsalvo eta Alba izan zituzten aurrean, baina Mendizabalek eta Diezek erraz irabazi zuten (22-6). Antzuolakoak erakustaldia egin zuen.

> FUTBOLA

### Aretxabaletak Basconiaren bisita izango du domekan Ibarran; Mondrak Donostian jokatuko du

Aretxabaletak sailkapenean seigarren lekuan dagoen Basconiaren bisita izango du domekan Ibarran (16:30). Gordobilen eta Arenatzaren mutilek txukun jokatu zuten joan den astean Durangon, baina Aretxabaletako mutilak esku hutsik itzuli ziren handik.

Ohorezko erregional mailan, Mondrak etxetik kanpora jokatuko du bihar (19:15), Herreran. Sailkapenean azken postuan dagoen EHUren zelaitik puntuak batu nahi ditu Mondrak.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Albacete-Reala
Zapatua. 18:00. Albacete.

**Hirugarren maila**
Aretxabaleta-Basconia
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Gazteen liga nazionala**
Leioa-Aretxabaleta
Domeka. 17:00. Leioa.

**Gazteen euskal liga**
San Martzial-Bergara
Domeka. 11:15. Irun.

**Ohorezko erregiona maila (lehengo preferentea)**
Aloña Mendi-Bergara
Domeka. 16:30. Azkoagain.

EHU Vasconia-Mondra
Zapatua. 19:15. Herrera.

**Erregional preferentea**
Antzuola-Soraluze
Zapatua. 16:00. Estala.

Elgoibar-Aretxabaleta
Zapatua. 17:30. Mintxeta.

**Lehen erregionala**
Urki-UDA-Arizmendi
Zapatua. 15:30. Unbe.

Bergara B-Mondra
Zapatua. 16:00. Ipintza.

**Gazteen ohorezko maila**
Mondra-Aurrera Ondarroa
Zapatua. 16:00. Mojategi.

Burumendi-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Ibarra

**Gazteen lehen maila**
Arizmendi-Bergara
Zapatua. 15:30. Almen.

Aretxa.ArizmenB-Amaikak
Zapatua. 10:00. Ibarra.

**Ohorezko kadeteak**
Aretx.Arizmendi-Beasain
Zapatua. 12:00. Ibarra.

Bergara-Zarautz
Domeka. 11:45. Ipintza.

**Kadeteak**
Arrasate-Elgoibar
Zapatua. 12:00. Mojategia.

Bergara-Arizmendi
Domeka. 10:00. Ipintza.

Eibartarrak-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Eibar.

**Emakumezkoen liga**
Bergara-Arizmendi
Zapatua. 18:15. Ipintza.

Mondra-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Mojategi.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila**
Viajes Marfil-MU
Zapatua. 18:15. Iruñea.

**Senior autonomikoa**
Aloña Mendi-Deusto Loiola
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako seniorrak**
Kevian Sport-Soraluce BKE
Zapatua. 20:15. Donostia.

Ruibal-Soraluce BKE B
Zapatua. 16:30. Ipurua.

Gabi jatetxea-MU
Domeka. 12:00. Elgoibar.

Katu Kale-Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Ipurua.

**Senior emakumezkoak**
Añorga-Eskoriatza
Domeka. 12:00. Donostia.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko seniorrak**
Egia Servi-Ford Mugarri Ar.
Zapatua. 19:30. Donostia.

**Euskadiko senior mailako emakumezkoak**
Ies Construc.-Verkol Aloña
Zapatua. 19:00. Gasteiz.

**Euskadiko gazte mailako emakumezkoak**
Usurbil-Verkol Aloña
Domeka. 11:30. Usurbil.

**Euskadiko kadete mailako emakumezkoak**
Usurbil-Verkol Aloña
Domeka. 10:00. Oiardo.

**Lehen territorial maila**
Oirmaiztegi-Soraluce BKE
Domeka. 11:45. Ormaiztegi.

Soraluce BKE-Hegialde
Zapatua. 18:30. Labegar.

**Bigarren territoriala**
Urnietako-Arrasate
Domeka. 12:00. Urnieta.

**Gazte mailako gizonezk**
Aloña Mendi-Rotula Stud.
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

**ERRUGBIA**

**Euskadiko seniorrak**
Kanpanzar ART-Bera Bera
Zapatua. 17:30. Mojategi.

**Emakumezko seniorrak**
Kanpanzar/Dur.-Gaztedi
Zapatua. 16:00. Mojategin.

**Gazteak**
Durango-Bilboko Uniber.
Zapatua. 10:30. Durango.
(Arrasatek Durangorekin jokatzen dute).

**Emakumezko seniorrak**
Kanpanzar/Dur.-Gaztedi
Zapatua. 16:00. Mojategin..

**XAKEA**

**Arrasate Hiria torneoa**
Gaur, 19:00, Arrasateko udaletxean, azken jardunaldia.


Torneoko bigarren jardunaldian egindako erretratua; gaurko saioa Arrasateko udaletxean jokatuko dute. JOSU TORNAY

**XAKEA** > ARRASATE HIRIA

# Holden Hernandez kubatarrak eskura du, gaur, garaipena

### Xakelariek torneoko azken jardunaldia jokatuko dute, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Gaur jokatuko dute udaletxean Arrasate Hiria torneoko seigarren eta azken jardunaldia. Eta, joan den astean Aretxabaletako Fran Miguelen kontra lortutako puntuari esker, Holden Hernandez kubatarrak aurre hartu du sailkapenean. Gaurko zeingehiagokan, Hernandezek ez du kontrario makala izango, torneoa irabaztea zer den badakien FIDE maisu Carlos Nava izango du-eta aurrean; baina txapela jantzeko, kubatarrak seguruenik nahikoa du berdinketarekin. Navak arriskatzera joko du; izan ere, Hernandezi ezustea ematen badio, txapelketa irabazteko nahiko puntu batu ditzake.

Bigarren taulan, Alejandro Francok eta Fran Miguelek azken kartutxoak erreko dituzte, eta kubatarraren hanka-sartzearen zain egongo dira. Kontuan izan behar da Alain Prietok ere aukerak dituela torneoa irabazteko; Argandoña izango du aurrean.




txokolatea
sentitu egingo duzu
Natra zahor
Arantzazuko bidea z/g
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 63 69 Faxa: 943 78 03 99
www.natra.es






Gaur egungo hiru Eskolania onenetakoen
bi kontzertu bakarrik

Easo Eskolania
Escorial Eskolania
Montserrat Eskolania

2009-11-13, ostirala
20:00etan, Kursaal Auditorioa

2009-11-14, larunbata
12:00etan, Arantzazuko Basilika

SARRERAK SALGAI:

kutxa
CAJEROS SERVIKUTXA
943 00 12 00
www.kutxa.net

SARREREN PREZIOA:

KURSAAL: 10 - 25 €
ARANTZAZU: 15 €

Babeslea:
kutxa

Laguntzailea:
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
OÑATIKO UDALA

SAN SEBASTIAN DONOSTIA 2016

Antolatzailea:
IPD MANAGEMENT

Komunikabide kolaboratzaileak:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
etb



> ARANTZAZUN
Montserrat, Easo eta Escorial eskolaniak bihar Arantzazun > 38



> DISKO BERRIA
Ruper Ordorikaren emanaldia hurrengo zapatuan Gatzagan > 39

> MAITANE ARTEGA
Edozein tokitatik ateratzen du astia; orain dela gutxira arte saskibaloiko jokalaria izan da; Trikitia txikitatik jo izan du, eta orain gitarra ikasten dihardu > 42





Lurdes Mujika, Rosa Maria Markina eta Mari Paz Alustizan (1970).



'Hamar abeslariak', 1970eko hamarkadan.



Serafin Esnaola ikastolako jaia filmatzen San Martzialen (1970).

# Garai bateko testigantza Serafin Esnaolaren argazkiei esker

**ERAKUSKETA** Serafin Esnaola zenaren argazki erakusketa zabalduko dute gaur

**LEKUKOTASUNA** Belaunaldi askoren lekukotasuna osatzen dute Aroztegin ikusgai jarritako argazkiek

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Serafin Esnaola apaiza zenak Bergarako egonaldian (1964-1992) ateratako argazkien erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan. On Serafin ezagunak ateratako ehun bat argazkiez gain, hark erabilitako zine eta diapositiba proiektoreak, zinema eta argazki kamerak eta editatzeko tresnak ere egongo dira ikusgai. Bisitariak On Serafinek egindako hainbat film ikusteko aukera ere izango du erakusketa irauten duen bitartean; azaroaren 29ra arte, hain zuzen ere.

Serafin Esnaolaren (1915-2002) adiskide izandako Miguel Angel Elkoroberezibarrek zuzendu du gaur zabalduko duten erakusketa. Elkoroberezibarrek zera dio: "hil aurretik utzi zizkidan ia 4.000 argazkien artean aukeraketa egitea ez da langintza erraza izan, baina bere bizitzaren hariari segika eta lagunen testigantzez baliatuz, alor guztietako argazkiak aurkezten saiatu naiz. Zailena argazkietan ageri diren guztiak identifikatzea izan da". Hain zuzen ere, bergarar belaunaldi askoren bizitzako momentu jakin bateko lekukotasuna osatzen dute Aroztegin ikusgai jarritako argazkiek. On Serafinek utzitako filmak Euskal Filmotekan daude gordeta. Elkoroberezibarrek azpimarratzen duenez, "irudi horietako asko historiko bihurtu dira; Ikurriñarenak, esaterako: Atotxan Kortabarriak eta Iribarrek atera zutenekoak; legeztapenarena Bergarako udaletxean; edota 68 herritako udalen bilkura San Pedro elizan egin zenekoak".

**TRINTXERPETIK BERGARARA**

Klandestinitateko euskal kleroaren berregituraketan funtsezko papera bete zuen Esnaolak; euskal apaizen taldeko zutabe nagusietako bat bilakatu zen. Edozein modutan, herrigintzan jokatutako rola nabarmentzen du Elkoroberezibarrek: "Trintxerpeko moldea ezarri zuen Bergaran, eta, han bezala, arrakastaz. Lider handia izan zen, antolatzaile aparta. Herria biziki maite zuen eta talde asko sustatu eta egituratu zituen. Antolatzeko modu bat erakutsi zigun, berritzailea, gaur egun oraindik eraginkorra izango litzatekeena". Egindako lanaren testigantza grafikoa jasota dago. Aroztegitik bueltatxo bat ematea besterik ez dago.




Liburuaren azala. GOIENKARIA

## 'Serafin Esnaola. Herrigintzaren erretratua'

Erakusketaren inaugurazioarekin batera, *Serafin Esnaola. Herrigintzaren erretratua* liburua aurkeztuko du Miguel Angel Elkoroberezibar ikerlari bergararrak gaur Aroztegin. On Serafinen ibilbidea eta haren gaineko testigantza ugari jaso ditu; "On Serafin ez zen protagonismo bila zebilen horietakoa, klandestinitateak berarekin dakarren diskrezioari heldu zion beti. Baina aurreneko lerroan aritu zen beti. Ekintza historiko ugaritan hartu zuen parte; esaterako, Jose Antonio Agirre lehendakariak Gernikako arbolapean bere kargua zin egin zuen moduan, Leizaolak On Serafinen guardasolpean egin zuen. Bere gertukoenek ere ezagutzen ez dituzten alderdi ugari zituen On Serafinek. Horietako gehienak liburuan ageri dira". Txikitatik ezagutu zuen Elkoroberezibarrek; "Oso praktikoa zen. Jenio bizikoa eta keinu gogorrekoa; umoretsua eta sentibera ere bai. Asko estimatzen nuen". Bergarako Udalak herriko semetzat hartu zuen 2002an. Esnaolari kale edo plaza bat agintzea ere adostu zuen udalbatzak, baina oraindik ez dute egin; "San Antonioko ermita zaharra zegoen lekua toki aproposa litzateke", dio Elkoroberezibarrek.



Katekesiko txangoa Donostiara (1982).



Jose Etxeberria eta Imanol Sorondo Aralarren (1967).



Pol-Poleko gaztetxoak. ARGAZKIAK: BUA/M.A. ELKOROBEREZIBAR FONDOA/EGILEA: SERAFIN ESNAOLA

**MUSIKA** > TOPAKETA

# Eskolanien kontzertua Arantzazun

## Montserrat, El Escorial eta Easo eskolanietako haur abesbatzen emanaldia zapatu eguerdian

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Gaur egungo hiru eskolania onenetakoek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Arantzazuko Basilikan, 12:00etan. *Kulturen arteko topaketa* izenburupean, Montserrat, El Escorial eta Easo eskolanietako 110 mutikok hartuko dute parte biharko emanaldian. Katalanez, gazteleraz eta euskaraz abestuko dute, hurrenez hurren, eta amaieran hiru eskolaniek bat egingo dute hainbat pieza elkarrekin abesteko. Abesbatza bakoitzak bina konposizio aukeratu ditu amaieran abesteko.

Santos Sarasola Easo abesbatzako presidentearen hitzetan, "ikuskizun mundiala izango da zapatukoa, oso zaila delako hiru eskolania hauek elkartzea. Aukera paregabea da biharkoa musikazale guztiendako". Gaur, egubakoitza, aipatutako hiru eskolaniek emanaldia egingo dute Donostian, Kursaal auditoriumean, 20:00etan.

### GAZTETXOEN ABESBATZAK

Easo eskolania Gorka Garmendiak zuzentzen du eta 7 eta 16 urte bitarteko 36 mutikok osatutakoa da. Donostiarrek Edward Elgar, Javier Bello Portu, Aita Donostia eta Lorenzo Ondarraren piezak eskainiko dituzte kontzertuko lehen zatian.

Montserrat eta El Escorial eskolaniak adin bereko 35 eta 36 mutikoekin osatutakoak dira eta Bernat Vivancos eta Javier M. Carmena dira, hurrenez hurren, taldeetako zuzendariak.

Kontzerturako sarrerak Oñatiko kultura etxean, Arantzazuko opari dendan, Kutxako kutxazain automatikoetan eta *www.generaltickets.com* helbidean eskura daitezke, 15 eurotan.



Argazkian, Montserrat Eskolaniako abesbatza. GOIENKARIA

### Kontzertuko egitaraua

| EASO ESKOLANIA | |
|---|---|
| **Edward Elgar** | Two Partsongs Op. 26 |
| **Javier Bello-Portu** | No lloréis mis ojos |
| **Aita Donostia** | Ja l'he trobat |
| **Lorenzo Ondarra** | Autu-Mautuak |

| EL ESCORIAL ESKOLANIA | |
|---|---|
| **Gabriel Faure** | Ave María<br>María Mater<br>In paradisum |
| **Franz Schubert** | Gott ist mein Hirt (Sal 21) |
| **F. Guerrero** | Sanctissima María<br>Adios, verde ribera<br>O virgen, quand'os miro |
| **Gregor Aichinger** | Regina coeli |

| MONTSERRAT ESKOLANIA | |
|---|---|
| **Cant gregoriano** | Germinans germinabit, con campanas |
| **Joan Cererols** | Salve Regina amb ecos |
| **Narcís Casanovas** | Angelus ad pastores |
| **P. Àngel Rodamilans** | Moreneta en sou |
| **Ar Francesc Civil** | El cant dels ocells |

| DENEK BATERA | |
|---|---|
| **Jose de Olaizola** | Agur jaunak |
| **Cesar Franck** | Panis Angelicus |
| **Llibre Vermell** | Imperayritz |
| **Pau Casals** | Nigra sum |
| **Jesus Guridi** | Ave María |
| **Arantzazuko Ama** | |


# 110 opari



**Eskolanien kontzerturako 110 sarrera banatu ditugu, ASTELEHENEKO GOIENKARIA-ko harpidedun hauetako bakoitzari bi.**

Libe Oregi
Luis Moyua Elortza
Angel Irizar Gallastegi
Joseba Iparragirre San Sebastian
Idoia Conget Olañeta
Joxe Antonio Amundarain Arana
Jose Luis Galdos Elorza
Luis Malbadi Olano
Patxi Balanzategi
Joseba Azkarate Urkiola
Mari Asun Otxoa Ugalde
Inazio Arriaran Larrañaga
Josu Arana Oregi
Bixente Madina Zabaleta
Josu Barandiaran Oruna
Pilar Yarza Villar
Arantxa Galdos Elorza
Santiago Uribetxeberria
Maribi Arregi Zufiria
Lurdes Ugalde Esparza
Esteban Irusta Mallea
Iñaki Mujika Agirrezeaga
Bittor Kortabarria Ortueta
Edurne Kortabarria Ortueta
Julio Unamuno Vega
Jose Ramon Lasaga
Maria Dolores Peña Urmeneta
Elkarhezi ikastetxea
Mari Jose Gomez Zabala
Itxaro Artola Lizarralde
Alberto Trojaola Larrea
Miren Anduaga Kortabarria
Gabriel Mendizabal Arabaolaza
Kontxita Murgiondo Guridi
Anton Aranbarri Riviere
Nerea Vicente Navas
Victor Bikuña
Gerardo Elortza
Gurutze Arana Oregi
Mertxe Bengoa Ezkibel
Arantxa Madinabeitia Erostarbe
Roberto Azkarate Larrazabal
Amaia Etxaniz
Lurdes Otxoa Elkorobarrutia
Jose Zulueta Uribe
Ana Jesus Ferreiro Irizar
Jabi Bikuña Olaldeç
Jose Mari Olabarria Laskurain
Beatriz Gereka Zelaia
Joxean Arenaza Ezenarro
Jesus Auzmendi Laskurain
Rafael Leturia Arregi
Benedicta Bengoa Ezkibel
Jose Ramon Balerdi Arregi
Ainara San Vicente Zumalde

**Zorionak eta gozatu!**

**Egin zaitez harpidedun!**
943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 10 €

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

**MUSIKA** > DISKO AURKEZPENA

# Ruper Ordorikaren disko berria, hilaren 18an kalean

## Datorren urtean 30 urte beteko dira kantari oñatiarrak lehen diskoa kaleratu zuenetik

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

*Haizea Garizumakoa* izenburuko diskoa kaleratuko du Ruper Ordorikak hilaren 18an. Oñatiarraren 15. diskoa izango da; datorren urtean gainera, lehen diskoa (*Hautsi da anphora*) kaleratu zuela 30 urte beteko dira. Iaz, berriz, Bilboko Kafe Antzokian zuzenean grabatutako *Hamar t´erdietan* diskoa eta DVDa argitaratu zituen.



Disko berriaren azala.

Lan berriaren grabazioa ekainean eta uztailean egin zuen New Yorken, Brooklyn auzoan hain zuzen eta, besteak beste, Ben Monder, Kenny Wollesen eta Skuli Sverrison musikarien laguntza izan zuen Ordorikak. Azken asteotan kantuen nahasketak egin ditu kantari oñatiarrak Donostiako Elkar estudioetan, Jean Phocas teknikariaren laguntzaz.

Elkarreko iturrien arabera, Ruper Ordorikaren marka, kalitate mailarik altuenaren laguntzarekin dator; "melodia iradokitzaileak, bizitzaren zentzuaz beteriko mezuak... Kantatzeko era zuzena eta erakargarria".

**HAINBAT EMANALDI IRAGARRITA**

Disko berriaren aurkezpena azaroaren 18an egingo dute, Bilbon, eta hilaren 27an eta 28an Bartzelonan eta Iruñean joko du, hurrenez hurren. Hurrengo zapatuan, hilaren 21ean, Gatzagan joko du, baina ikusle gutxi batzuen aurrean. Bihar, zapatu, Amezketan egingo du kontzertua.


Ruper Ordorika kantari oñatiarrak emanaldia egingo du Gatzagan hurrengo zapatuan, hilaren 21ean. GOIENKARIA


Berezo dantza taldea izango da biharko gonbidatuetako bat. GOIENKARIA

**FOLKLOREA** > EUSKADIKO EXTREMADURAKO ELKARTEAK

# Dantza jaialdia izango da zapatuan Amaia antzokian

## 130 parte-hartzaile izango dira; Lore Gazteak dantza taldeak ere saioa eskainiko du bihar

**E.M.** > BERGARA

Euskadiko Extremadurako elkarteen federazioak antolatuta, dantza jaialdia ospatuko da bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian, 17:30ean.

Zapatuko jaialdirako antolatzaileek gonbidatu duten taldeetako bat Madrigal de la Verako (Caceres) Berezo taldea da. Hango dantzariek eta abeslariek emango diote hasiera biharko jaialdiari. Arrasatek ere ordezkaritza izango du jaialdian; hain zuzen ere, Lore Gazteak dantza taldearekin batera, Arrasateko txistulariek eta gaita-joleek hartuko dute parte.

Horiez gain, ondoko taldeen saioak ikusi ahal izango dira Amaia antzokian: Donostiako Extremadurako Elkarteko Virgen de Guadalupe taldea; Ermuko Flor de Tomillo; eta Galdakaoko Alma Extremeña. Jaialdiaren bukaeran, Berezo taldeak saioa egingo du berriz ere. Bi ordu inguruko iraupena izango du jaialdiak.

**BIGARREN ALDIZ ARRASATEN**

Zapatukoa Faedek, Euskadiko Extremadurako elkarteen federazioak antolatzen duen 16. dantza jaialdia izango da. Azken bi urteetan Zarautzen eta Andoainen ospatu dute eta Arrasaten ere egin da aurretik.

Dantza jaialdirako sarrera doanekoa izango da.

**LITERATURA** > POESIA

# 'Denbora enaren hegaletan' olerki liburua kaleratu du Karmele Igartuak

## Irakasle aretxabaletarrak 'Hitzak orbainetan' argitaratu zuen iaz

**E.M.** > BERGARA

Oso ezaguna ez bada ere, Karmele Igartua poetika garatua duen idazlea dela adierazi zuen Jose Angel Irigaraik, Pamiela argitaletxeko editoreak, martitzeneko aurkezpenean. Karmele Igartua aretxabaletarraren bigarren olerki liburua da *Denbora enaren hegaletan*, iaz kaleratutako *Hitzak orbainetan* lanaren ostean. UNEDeko Idazle Eskolan ibilitakoa da Igartua eta Eskolako zuzendari Tere Irastortzak ere hartu zuen parte aurkezpenean: "Euskal literaturan olerkaritza trebatzeko genero bat dela dirudi, baina gazteenarekin alderatuta, Karmele Igartuak edo Xabier Letek beste idazkera bat dute. Ez bakarrik hizkuntzagatik; sentimenduak adierazteko beste ahal bat daukate".


Tere Irastortza, Karmele Igartua eta Irigarai, martitzeneko aurkezpenean. PAMIELA

Sinbolismoak eta metaforek karga handia dute poesietan: enarak, olatuak, izarrak... "Nire izaeraren adierazgarri dira; abstrakzio hori hala ikusi beharra daukat", dio Karmele Igartuak.

**LITERATURA** > ITZULPENGINTZA

# Jokin Zaitegi Sariketaren 23. ekitaldia deitu dute AEDk eta Elkarrek

## Herta Müller azken Literaturako Nobel saridunaren 'Arnasaren kulunka' eleberria itzultzea da xedea

**E.M.** > BERGARA

Arrasateko AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak, Kutxaren laguntzarekin, Jokin Zaitegi arrasatear idazlea gogoratzeko eta hark literatura unibertsala euskaratzen egindako ahaleginari jarraitzeko, 23. Jokin Zaitegi Sariketa antolatu dute. Aurreko ekitaldietan bezala, azken Literaturako Nobel saridunaren lana itzultzeko zuzenduta dago beka. Hain zuzen ere, Herta Müller idazle errumaniar-alemanaren *Atemschaukel* (*Arnasaren kulunka*) eleberria itzularaztea da xedea. Aipatutako eleberria itzultzeko gogoa eta gaitasuna dituen edonork har dezake parte lehiaketan. Horretarako, obraren lehenengo orriak euskaratu beharko ditu, eta egindako lan horren hiru kopia bidali AED elkartearen egoitzara (Pablo Uranga 4, behea, 20500, Arrasate), abenduaren 18a baino lehen.

Joxe Austin Arrietak, Joxe Mari Berasategik eta Irati Marañonek osatutako epaimahaiak jasotako itzulpenak aztertu eta haietako bat izendatuko du irabazle 2010eko urtarrilaren amaiera baino lehen. Argibide gehiago AEDn, 943 77 12 28 telefonoan.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com edo http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. Sukaldea, hiru gela, egongela, bi bainugela, bi balkoi eta despentsa. Jantzita utziko genuke. Garaje itxiarekin. 687 11 07 21

**Aramaio.** Baserria salgai. Guztiz berriztatua. 180 metro koadro, 2.000 metro koadroko lursailean. Prezio interesgarria. 648 56 41 38.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Jose Luis Iñarran. Eguzkitsua. Bi komun, hiru logela, jantzigela, sukaldea eta egongela handia. Trastelekua. Guztiz berritua. Aukera ezin hobea. Deitu 658 72 09 87 telefonora.

**Bergara.** 80 m²ko etxebizitza salgai erdigunean, Justo Garate plazan. Sukalde eta bi komun jantziak, hiru logela, egongela, balkoia, despentsa eta garaje itxia. Jantzita utziko genuke. Ia berria eta oso egoera onean. Deiutu 650 79 28 63 edo 626 11 55 14 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zabalotegin. 5. solairuan. 3 logela, sukaldea, jangela, komuna, balkoia eta trasteleku txiki bat. 20 metro koadroko sotoarekin. Deiut 607 41 14 44 zenbakira.

**Marieta (Araba).** Etxe bakarra saltzen da. 200 metro koadro eta nahiko berria: 7 urte. 5 logela, 3 komun, 2 autorentzako garajea eta 40 metro koadroko egongela, beheko suarekin. 900 metro koadroko lorategia. 628 45 09 62.

**Oñati.** Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta ganbara. Garajea aukeran. 620 02 51 95

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 40 metro koadroko apartamentu kapritxosoa ematen da errentan herri erdialdean. Aproposa pertsona batentzat zein bikotearentzat. 650 euro hilean. Deitu 639 17 49 52 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logelarekin. Oso ondo kokatuta dago eta berokuntza zentrala dauka. 659 44 86 79.

**Arrasate.** Gela bateko apartamendua ematen da errentan. Deitu arratsaldez. 619 34 88 52

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 679 09 33 34 telefonora.

**Arrasate.** Bikotea urtarrilaren 1etik aurrera bi gela edo gehiagoko etxebizitza alokatzeko prest. Deitu 665 72 79 38 edo 635 70 96 43 telefonora.

**Bergara.** Errentan hartzeko etxebizitza bila nabil. Deitu 697 88 35 62 telefono zenbakira.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Gelak errentan Makatzenan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Telebista, DVDa, kafetera... erosotasun guztiekin. Bista polit eta giro ezin hobea. 690 61 05 26. Alexandra.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 270 euro. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

**Bergara.** Gela ematen da errentan Irizar pasealekuan. Bikote batentzat edo pertsona bakarrarentzat. 943 03 62 00 edo 696 03 80 07.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Garaje itxia saldu edo errentan ematen da Uarkapen. Autoa eta bi motorrendako sartzekolekua. 615 73 98 30.

**Bergara.** Ibargarai kalean garaje itxia salgai, ate automatikoarekin. 943 76 01 29.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Debagoiena.** Taberna hartuko nuke errentan Debagoienean. 677 05 39 06.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Esperientziadun emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Legezko paperekin eta etxean bertan bizitzeko. 636 30 09 16.

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakume arduratsua gertu adinekoak zaindu, etxeko garbitasun lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia adinekoekin. Mari. 943 53 33 92.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

**Bergara-Arrasate.** Emakumea gertu edozein lan egiteko, 09:00etatik 14:00etara. Pertsona nagusiak gustura zainduko nituzke. 669 98 46 47.

**Bergara.** Emakume gaztea gertu garbiketa lanak egiteko. Orduka lan egingo nuke. Deitu 671 33 75 54 telefonora.

**Bergara.** Esperientziadun mutila etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 650 17 74 87 telefono zenbakira.

**Bergara.** Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko prest. Aste bukaeretan, jaiegunetan eta gauetan lan egingo nuke. 630 88 54 46.

**Bergara.** Neska euskaldun arduratsua orduka etxeko garbiketak egiteko gertu. 680 99 68 94.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. Manuel. 943 75 22 30 edo 636 17 27 65.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: etxeak, atariak, tabernak edo bestelakoak. Sukaldean ere arituko nintzateke. 676 28 87 84.

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein tokitan lan egiteko, baita baserriko lanak egiteko ere. 639 88 64 13.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota pertsona edadetuak zainduko nituzke, egun osoz. 697 88 35 62.

**Debagoiena.** Gertu nago tabernari edo zerbitzari jarduteko, garbiketa lanak egiteko eta pertsona edadetuak zaintzeko. 671 71 90 03.

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. 645 72 92 87.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaimena daukat. Jhony. 943 75 22 30 edo 636 17 27 65.

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 610 95 79 79 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. 638 10 29 63.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 680 30 24 64.

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. 660 37 20 47.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, ume edo nagusiak zaintzen zein zerbitzari lanetan aritzeko. Deitu 660 56 65 58 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Paperak eguneratuta dauzkan mutil gaztea gertu zerbitzari, lorezain edo garbiketa lanak egiteko gertu. 647 19 36 95.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. Deitu 943 75 22 30 edo 636 17 27 65 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Arratsaldez eta baita aste bukaeretan ere. 697 93 73 32.

**Debagoiena** Garbiketarako lanak egin eta pertsona edadetuak zainduko nituzke. Deitu 649 83 08 82 edo 943 76 44 27 telefono zenbakira.

### 403. BESTELAKOAK

**Zugatik egiten dut.** Denborarik ez badaukazu posta, banketxe eta abarretara joateko, nik egingo dut zugatik. Errekaduak ere bai. 605 74 52 19.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Baxu elektrikoko** eskola partikularrak hartuko nituzke. Bergara, Arrasate edo Eibarren. Ordubete edo pare bat ordu astean. Nerea. 652 71 74 96.

**Bergara.** Batxilergoko bigarren mailako eskolak jasoko nituzke. 686 51 07 86.

**Debagoiena.** EHUko Psikopedagogia ikaslea naiz eta Ikerketa Diseinua ikasgairako eskola partikularrak jaso gura nituzke. 686 20 31 35.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniari industriala naiz. LH, DBH edo batxilergoko eskola partikularrak emango nituzke: matematika, marrazketa teknikoa, fisika, ingelesa eta abar. 667 32 35 00.

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen gazte batek DBH eta batxilergoko eskolak emango lituzke. Mikel. 634 84 41 96.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak emateko gertu nago. 654 94 87 26.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Deitu 637 52 89 83 telefono zenbakira.

**Bergara.** Umeendako ingeles eskolak ematen ditut. Deitu 671 76 22 28 edo 943 76 01 99 telefono zenbakietara eta Aitorrengatik galdetu.

**Debagoiena.** Neska euskalduna LHko nahiz DBHko eskola partikularrak emateko gertu. Natur Zientzien batxilergoa eta EGA tituluak ditut eta Erizaintzako ikasketak egiten ari naiz. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara nahiz Oñatira joateko arazorik ez. Deitu 690 66 19 80 edo 943 03 78 31 telefono zenbakira.

**Diseinu Industrialeko** ikaslea naiz eta DBHko ikasle bati eskola partikularrak emateko prest nago. Arrasaten bizi naiz eta berdin zait nire etxera etortzea edo ni ikaslearen etxera joatea. 645 73 53 95.

**Musika eskolak.** Gitarra elektriko zein akustiko eta harmonia eskolak ematen ditut. Maila eta estilo guztiak. Jon. Deitu 679 22 86 07 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ardiak** salgai. Hamar, hogei... kopuru desberdinak aukeran. 620 13 83 86.

### 703. EMAN

**Katakume** eme bat ematen da opari. 685 79 07 61.

### 704. BESTELAKOAK

**Katua.** Urriaren 10ean katu ilegorria galdu genuen Bergarako Labegaraietan, Santa Katalina auzoan. Aiki izena du. 943 76 33 78.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Gasolio-galdara.** Osagarri guztiekin. Roca modeloa. 20.000 kcal. 12 berogailurentzat. Baserrirako egokia. Prezio negoziagarria. 943 79 34 74 edo 616 23 81 74.

**Hiztegia.** 'Lur hiztegi entziklopedikoa' salgai. 350 euro. Ondo zainduta, ia-ia erabili barik. 625 83 84 13.

**Ibiltzeko zinta** elektrikoa salgai. Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. 652 76 25 41.

**Monozikloa** saltzen dut. Monty etxekoa. Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. 605 73 07 77.

**Sofa-ohea.** Kanpoko neurriak 1,97x91x92 eta oheak 1,40x1,90. Mugimendu bakarrean irekitzekoa. Urdina eta oso gutxi erabilia. 500 euro. 616 09 46 34.

### 802. EROSI

**Debagoiena.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Zuriñe. 627 22 45 79.

### 806. GALDU

**Biolina Bergaran.** Biolina galdu dugu, azaroaren 10ean, martitzena, 16:00ak inguruan. Umearena da eta funda marroi batean dago. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. 665 75 41 32.


Aretxabaletako Udala

**GIZARTE LANGILEA**

**Aretxabaletako Udalak Gizarte langile baten hautaketa egin behar du egun erdiz eta denboraldi baterako.**

**Titulazioa:** Gizarte lanetan diplomatua.
**Hizkuntza eskakizuna:** 3
**Eskariak aurkezteko azkeneko eguna:** azaroak 20.

Aretxabaleta, 2009ko azaroaren 10a.
Alkateak.

**LAN ESKAINTZA**

**MENDI ETA LORATEGIETAKO PEOIA**

Bergarako Udala mendi eta lorategietako peoi lanpostua betetzera doa lehiaketa-oposizio ireki bidez.

**Lehiakideen baldintzak:**
Oinarrietan jasotakoak eta ondorengoak:
a) 16 urte beteta izatea.
b) Eskola-ziurtagiri edo parekoa den titulazio maila.
c) B motako gidabaimena edo baliokidea.

**Instantziak aurkezteko epea:**
2009ko azaroaren 26a.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan eta *www.bergara.net* webgunean.

*Bergara, 2009ko azaroaren 13a.*
*ALKATEAK*

Bergarako Udala

**EHORZLE OFIZIALEN LAN-POLTSA**

**Izena emateko epea:** azaroaren 14tik 20ra arte (biak barne).

**Oinarri-arauak:** BAZen (goiz eta arratsalde) edo Arrasateko udalaren webgunean jaso daitezke *www.arrasate-mondragon.org*.

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Pertsonal Saila

INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak.**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Zubiaurre, 55 m², 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.
- Adosatuak eta bifamiliarrak. Eraikuntza berriak.

ULMA



Oñatin kokatutako **ULMA Packaging**-ek, ontziratze sistema eta makinen eskaintzaren bitartez merkatuari konponbide berritzaileak hornitzen liderra, lanean hasteko behar du:

**INGENIARI ELEKTRONIKOA**
(erref.:05/09)

- Industria automatizazio ezagutzak.
- 2-3 urteko esperientzia.
- PLC eta PC sistemak programatzen jakitea (C eta Visual Basic hizkuntzak).
- Ekipamendu-ondasun sektoreari eta bereziki Packaging-aren sektoreari buruzko ezagutza baloratuko da.
- Pertsona arteko harremanetarako trebetasuna eta taldean lan egiteko gaitasuna duena, hala nola, sormenezko pentsaeraduna eta ikasteko gaitasuna duena.
- Ingelesez jakitea; beste hizkuntza batzuen ezagutza ere baloratuko da.

Eskaintzen dugu: garapen profesionalerako aukerak dituen enpresa talde sendoan lanean berehala hastea. Ordainsaria esperientzia eta erakutsitako balioaren arabera adostea.
CVa ULMA Packaging, Giza Baliabideetako Saila. 145 P.Ku., 20560 Oñati
Aurrehautatutako hautagaiei erantzungo zaie soilik.

Eskatutako informazioa Norberaren Datuen Babeserako abenduaren 31ko 5/1999 legean jasotakoari jarraituz baliatuko da.


Horrelako mahai batek hemengoa behar zuen
UTB %3 generotan
dirutan ordaindu beharrik gabe
baxera 19 pieza
1.900 €ko gordagailuagatik
4 hilabetera
max
max kontua
Esku-dirutan egiten diren diru-sarreretarako bakarrik edo beste erakundetako txeke bidez.
Sartutako zenbatekoa 2009-10-12an indarrean dauden Ageriko Kontuetako eta Eperako Gordailuetako saldo guztietan izandako gehikuntzaren parekoa izango da.
MAX kontu bateko titular izatea edo kontu bat irekitzea ezinbestekoa izango da eskaintza horretan sartzeko. Gehienez artikulu bat kontu bakoitzeko. Helbideratzeak ez dira onartzen kontu honetan.
PFEG arauak bete beharko dira promozio honetan. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako sukurtsaletan egindako lehenengo 15.000 eragiketak sartuko dira promozioan.
50 urte
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Maitane Arteaga > Trikitilaria eta kirolzalea

# "Trikitia jotzean musikan barneratu eta ez dut beste ezertan pentsatzen"

Neska okupatua da benetan, baina nahi duena egiteko edozein tokitatik ateratzen du astia; etxekoekin eta lagunekin egoteko, eta baita bere zaletasunetarako ere. Orain dela gutxira arte saskibaloiko jokalaria izan da; orain, noizean behin korrika egiten du. Trikitia txikitatik jo izan du, eta orain gitarra jotzen ikasten dihardu. Hori guztia, ikasketekin bateratuta.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Bergarako 16 urteko neska gazte horrek pozik bizi dela esan digu. Hala sumatu diogu gurera irribarretsu etorri eta galderak lasaitasun osoz erantzun dizkigula ikusita. Gazteen kezken eta bere zaletasunen gainean jardun dugu berbetan Maitane Arteagarekin.**

**Gazteria Kontseiluko kide zara. Nolatan sartu zinen?**

Gazteria Kontseiluan hainbat gazte elkartzen gara alkatearekin eta hezkuntza teknikariarekin, eta batzarrak egiten ditugu gazteon kezkak azaltzeko eta gazteondako ekintzak antolatzeko. Esaterako, Errege bezperakoak. Koadrilan komentatu genuen ondo egongo litzatekeela parte hartzea, laguntzeko ez ezik gazteon alde ere zerbait egiteko, eta horrela hasi ginen. Gero, gustura geunden eta jarraitu dugu ahal duguna ematen.

**Zer egiten duzue Kontseiluan?**

Hilean behin elkartzen gara eta gazteoi kezka sortzen diguten herriko gaiez jarduten dugu. Orain, esaterako, gaztelekuaren gaia dugu esku artean. Proposamena aurkeztu genuen eta badirudi, poliki bada ere, aurrera doala. Bestalde, egun berezietarako ekintzak antolatzen ditugu.

**Gazteok zer eskatzen duzue?**

Gazteon artean giroa badago, baina asko egoten gara lokaletan eta kalera ateratzeko arrazoiren bat badago giro politagoa sortzen da. Egun berezietarako kontzertuak, bazkariren bat, karaokea… antolatzea gustatuko litzaiguke, gazteon artean harremanak sortzeaz gain, ondo pasatzeko.

**Asko egoten zarete lokaletan?**

Orain, ikasketak direla-eta aste barruan ez gara apenas egoten, baina aste bukaeretan bai, batez ere eguraldi txarra dagoenean. Egonean egoten gara, musika entzuten, telebista ikusten eta lagunekin berriketan.

**Gazte Kontseilutik aurten danborradarako talde berria atera da eta zu izan zara zuzendari. Gustura ibili zinen?**

Koadrilan, hasieran askok parte hartu behar bagenuen ere, gutxi batzuk geratu ginen; baina beste gazte batzuk animatu ziren. Txikien danborradan izan nintzen behin zuzendari eta oraingoan ere gustura jardun nuen. Gainera, ibilbidea motza gertatu zitzaidan.










IRATI AGIRREAZALDEGI

**PERTSONALA**

**Herria:** Bergara. **Adina:** 16 urte. **Ikasketak:** Batxilergoko lehen mailan dihardut. **Gorroto duzu ezer?** Batzuetan barrutik ateratzen zaidan umore txarra. **Musika talde bat?** Denetarik entzuten dut, baina aukeratzekotan, Kauta edo Lor. **Abesti bat?** Kautaren *Zoriontsu izan*. **Zer duzue faltan gazteok?** Mugimendua. **Eta soberan?** Etxeko lanak, gehiegi izaten ditugu. **Bizi izateko toki bat?** Bergara. **Bidaiatzeko?** Mexikora gustura joango nintzateke. **Bizitzarako lelo bat?** Kantuak esaten duen moduan: *Zoriontsu izan*.

**Danborradan aurrean, baina beste jarduera batzuetan ere aurrean ibili zara?**

Zaletasunak eduki baditut, baina ez nuke esango ezertan nabarmendu naizenik. Txikitatik beti izan dut saskibaloirako zaletasuna. Etxean denok gara zaleak. Gurasoek bultzatu ninduten eskolan hainbat kirol probatzera, baina ni burugogorra naiz eta saskibaloian jokatu nahi nuen. Bergaran nesken gazte mailako taldean ibili naiz eta aurten utzi dut, denborarik ez neukalako. Beharbada, nabarmendu banaiz saskibaloian egin dut aurrera; izan ere, orain dela hiru urte Gipuzkoako selekzioan izan nintzen. Esperientzia polita izan zen, lagunak egin genituen, baina ikasketak, entrenamenduak, partiduak, trikitia… dena bateratzea ezinezkoa zen.

**Partiduak ikusten dituzu?**

Anaiarenak bai, eta iaz Tauren partiduren bat ere ikusi nuen, baina ikusteko baino gehiago, jokatzeko izan dut zaletasuna.

**Beste kirolik egiten duzu?**

Osaba korrikalari amorratua da eta esan zidan saskibaloia ez uzteko eta utziz gero beste zerbaitetan hasteko. Hortaz, korrika saio batzuk egin ditut eta iaz Zarauzko bikotekako lasterketan harekin hartu nuen parte. Gabonetan familiakoekin eskiatzera joateko ohitura ere badut.

**Trikitia ere jotzen duzu, ezta?**

Bai, 9 urte nituenetik-edo. Gauza asko eman dizkit trikitiak; lagunak, esaterako. Zaldibarko trikitilariekin harreman polita daukagu. Bestalde, musikarako grina ere sortu dit. Trikitia jotzen nabilenean ez dut beste ezertan pentsatzen, musikan barneratzen naiz. Hasieran, fandango eta arin-arin errazak jotzen nituen, gero porrusalda eta trikitiak eta orain, Alaitz eta Maider, Etzakit eta halako taldeen abestiak. Oraindik joaten naiz trikiti eskoletara eta aurten, gitarra jotzen ikasten ere hasi naiz. Beti izan dut gustuko eta akordeekin abesti ezagun eta errazak jotzen hasi naiz.

**Batxilergoa zientzien adarretik ikasten ari zara; aurrerantzean zer egiteko asmoa?**

Bi mutur neuzkan aukeran: enpresaritza edo medikuntza; hortaz, pentsatu nuen zientzia alorra aukeratzea eta, gustuko izanez gero, Medikuntza ikastea.


Asier Agirre, Aramaioko alkatea. GOIENKARIA

# Aramaioko alkatea eta lehiaketa 'Magazinea' saioan

Jokin Zaitegiren biografiaz eta Vasco-Navarro trenaz ere jardungo dute

**O.E.** > ARRASATE
Datorren asteko *Magazinea* programan mota askotariko gaiak jorratuko dituzte. Astelehenean, adibidez, Joxe Mari Velez de Mendizabal idazle eta historialaria elkarrizketatuko dute telebistako platoan. Jokin Zaitegiren inguruko biografia idatzi du Velez de Mendizabalek, Zaitegi hil eta 30 urtera, eta haren bizimodua kontatuko du zuzenean. Martitzenean ere historia kontuak izango dituzte hizpide: Vasco-Navarro trenaz hitz egingo dute Juan Jose Olaizolarekin batera. Eguaztenean asteroko lehiaketa egingo dute eta eguenean, berriz, Asier Agirre Aramaioko alkatea joango da kazetari eta herritarren galderak erantzutera.

**GOITB, 'Magazinea'**
> Aste barruan, 19:45

## telebegi

**Oihane Agirre**
> 'oagirre@goiena.com'

### 'Spot'-a, hilzorian?

Publizitate etenaldietan, ikus-entzulea mantentzeko ez dakite zer asmatu. Programatzaileek ez dakite non egin lekua betiko *spot*-ari, baina bereziki ez dakite zelan. Ikuslea, urrutiko agintea duenetik, hara eta ona dabil, bereziki iragarkiak eskaintzen dituzten tarteetan. Orain telebista guztiek egin dute apustua tartearen iraupenaz ikuslea abisatzeko. Tarte hauek normalean ez dira bost minututik gorakoak izaten, eta, antza, hainbeste ikusle ez galtzea lortu dute.

Ohikoa izaten da publizitate tarteari "publizitate tartean eskainiko dizugu irudi ikusgarri hau edo bestea" esaldiarekin aurkeztea. Edo tarte horretan ikusiko dugun zerbaiten inguruko galdera bat egitea, bereziki lehiaketa dagoen saioetan.

Telebistak iragarleak behar ditu, baina iragarleek publizitatea egiteko beste euskarri batzuk ere badituzte. *Spot*-a ere, krisian ote?

# Zarzuelako kideekin hizketan

**O.E.** > ARRASATE
Arrasateko Izaskun Murgia Elkarte Lirikoa prestatzen ari den zarzuelaren berri emango dute datorren martitzenean Arrasate Irratiko *Igo autobusera* irratsaioan. *La corte del faraón* zarzuelako kide batzuk zuzenean elkarrizketatuko dituzte esatariek. Horrez gain, hilaren 27an eta 28an Amaia antzokian egingo dituzten emanaldietarako sarrerak ere zozketatuko dituzte: emanaldi bakoitzerako bi sarrera.

**Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**
> Aste barruan, 10:00




GIPUZKOA KULTURA

## Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarin 'Gipuzkoa Kultura'-n

Kirmen Uribe idazleak eta Mikel Urdangarin musikariak elkarrekin prestatu duten *Internet Kafe* ikuskizuna, San Adriango galtzadaren eta gazteluaren aztarnak eta Ataungo musika barrokoaren zikloaren barruan Tomas Ospital organo-joleak egindako emanaldia *Gipuzkoa Kultura*-n.

**GOITB, 'Gipuzkoa Kultura'** > Eguaztena, 22:15

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## astea GOITBn

| Egubakoitza, 13 | Zapatua, 14 | Domeka, 15 | Astelehena, 16 | Martitzena, 17 | Eguaztena, 18 | Eguena, 19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **13:15** Marrazki bizidunak . | **08:00** Marrazki bizidunak. | **08:00** Barrebusa. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. | **13:15** Marrazki bizidunak. |
| **13:45** Kantari. | **10:30** Barrebusa. | **09:00** Marrazki bizidunak. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. | **13:45** Kantari. |
| **14:15** On ein. | **11:30** Kantari. | **11:30** 28 klip. | **14:15** Eltze beroa. | **14:15** On Ein. | **14:15** Udazken loreak. | **14:15** Eltze beroa. |
| **14:45** Berriak. | **14:00** On ein. | **12:00** Itsasoari begira. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. | **14:45** Berriak. |
| **15:15** Ur eta Lur. | **14:30** Udazken loreak. | **12:30** Wazemank. | **15:15** Sakonduz. | **15:10** Harmailatik. | **15:10** Ilunpean. | **15:15** Gipuzkoa kultura. |
| **15:45** Itsasoari begira. | **15:00** Barrebusa. | **13:00** Erreportajea. | **15:45** Ikusmira. | **15:50** Ikusten. | **15:50** Sakonduz. | **15:45** Kalekantoi. |
| **16:15** Ikusten. | **16:00** Marrazki bizidunak. | **13:45** Ur eta Lur. | **16:15** 28 Klip. | **16:20** Itsasoari begira. | **16:20** 28 Klip. | **16:15** Ikusmira. |
| **16:45** Berriak. | **18:30** Gipuzkoa Kultura. | **14:15** Puntuz Puntu. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. | **16:45** Berriak. |
| **17:15** Marrazki bizidunak. | **19:00** Kale kantoi. | **14:45** Kale kantoi. | **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:10** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. | **17:15** Marrazki bizidunak. |
| **18:00** Ilunpean. | **19:30** Itsasoari begira. | **15:15** Gipuzkoa Kultura. | **17:45** Kalekantoi. | **17:35** Wazemank. | **17:35** Harmailatik. | **18:00** Sakonduz. |
| **18:45** Berriak. | **20:30** 28 Klip. | **15:45** Marrazki bizidunak. | **18:15** Ilunpean. | **18:15** Gipuzkoakultura. | **18:15** Ur eta lur. | **18:45** Berriak. |
| **19:15** Marrazki bizidunak. | **21:00** Ilunpean. | **18:15** Barrebusa. | **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. | **18:45** Berriak. | **19:15** Marrazki bizidunak. |
| **19:45** Goiena Magazinea. | **21:45** On ein. | **19:15** Kantari. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:15** Marrazki bizidunak. | **19:45** Goiena Magazinea. |
| **20:45** Kantari. | **22:15** Ikusten. | **21:15** Wazemank. | **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. | **19:45** Goiena Magazinea. | **20:45** Kantari. |
| **21:15** Goiena Magazinea. | **22:45** Ikusmira. | **22:00** Erreportajea. | **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. | **20:45** Kantari. | **21:15** Goiena Magazinea. |
| **22:15** Sakonduz. | **23:15** Wazemank. | **22:45** GipuzkoaKultura. | **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. | **21:15** Goiena Magazinea. | **22:15** Puntuz Puntu. |
| **22:45** Udazken loreak. | **00:30** 28 klip. | **23:15** Ilunpean. | **22:15** Harmailatik. | **22:15** Ilunpean. | **22:15** Gipuzkoa Kultura. | **22:45** Erreportajea. |
| **23:15** Kale kantoi. | **01:00** Emisio amaiera. | **00:00** Itsasora begira. | **23:00** Gipuzkoakultura. | **23:00** Wazemank. | **23:00** Kalekantoi. | **23:20** Itsasoari begira |
| **23:45** Magazinea | | **00:30** Emisio amaiera. | **23:30** Goiena Magazinea. | **23:30** Goiena Magazinea. | **23:45** Goiena Magazinea. | **23:45** Goiena Magazinea. |
| **00:45** Emisio amaiera. | | | **00:30** Emisio amaiera. | **00:30** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. | **00:45** Emisio amaiera. |

## herritarrak galdezka

### ARRASATEARREN GOITIZENA

**Irakurle batek eskutitz bat bidali digu honako galdera eginez: "Arrasatearra naiz, eta nahi dut jakin ze ezizen, goitizen duten arrasatearrek".**

Jose Angel Barrutiabengoa arrasatearrak liburu batean jasoak dauzka Arrasateko goitizenak, milatik gora. Harengana jo dugu arrasatearren goitizena zein den jakiteko, baina esan digu berak *sarrailagile* edo *cerrajero* goitizena baino ez duela ezagutzen. "Hori Zerrajeraren garaitik honakoa da, baina horren aurretik beste goitizenik ba ote zen jakiteko aukerarik ez dut izan", esan digu.

### KREDITU TXARTELAK

**Herritar batek kalean entzundako zurrumurrua argitzeko asmoz, honako galdera egin digu: "Erosketak egitera joan eta behin baino gehiagotan iruditu zait dendariek gogo txarrez hartu izan didatela txartela. Orain, entzun dut gaur arte dendariek bere gain hartzen zuten komisioa aurrerantzean erosleak ordaindu beharko duela. Egia al da hori? Zenbatekoa izango da ordaindu beharko dugun kopurua?".**

Euskal Herriko Kontsumitzaileen Batasunera jo dugu erantzunaren bila eta esan digute Ordainketa Zerbitzuen Lege Proiektua dela orain onartu dutena, eta oraindik zertan eragingo duen erabaki gabe dagoela.

Arau horrek dio Ordainketa Zerbitzuen Legeak bermatuko duela Europako Batasunean egindako ordainketak, batez ere, transferentziak, zordunketa zuzenak edo txartel bidezko ordainketak estatu bakoitzaren barruan egiten diren besteko segurtasun eta erraztasunez egitea. Hau da, esaterako, Frantzian gureko txartel batekin ordaintzeko arazorik ez izatea.



Txartelarekin egindako erosketen komisioak orain dendariek ordaintzen dituzte. GOIENKARIA

Albisteek diote %1 garestiagoa izango dela erosketak txartelarekin egitea, urtarrilaren 1etik aurrera, baina Kontsumitzaileen Batasunetik esan digute oraindik zehazteke dagoela.

Hala ere, honako gomendioak egin dituzte txartel bidezko ordainketen harira: "Norbait denda batera erosketak egitera joaten denean txartel bidez ordaintzeagatik erosleak komisio bat ordaindu behar badu, dendariak aurrez esan behar du hala dela, eta komisioa zenbatekoa izango den, erosleak erabaki dezan txartelarekin ordaindu ala ez. Bestalde, gomendatzen dugu , txartel bidezko erosketak garestiagoak izango direnez eskudiru bidez ordaintzea".

**Galdera egiteko:**
Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin.
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

### NORTASUN AGIRIA

**Diru zorroa lapurtu zioten irakurle bati eta horrekin batera nortasun agiria. Berria eskatu behar duela-eta zera galdetu digu: "Zein agiri aurkeztu behar ditut nortasun agiri berria egiteko".**

Nortasun agiria galdu, lapurtu edo ondatuz gero, bi argazki eta 601 ereduko inprimakia baino ez dira aurkeztu behar. Inprimaki hori bulegoan emango diote nortasun agiri berria egitera doanari eskatzera doan momentuan. Gainera, nortasun agiria formatu elektronikoan jasoko du aurreko agiriaren iraungitze-data berarekin.

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN

**Zapatua, 14**
Tenperaturek behera egingo dute. Goizean euria egin arren, eguerdirako eguzkia aterako da, baina iluntzean berriz lainotuko du.

**Domeka, 15**
Lainoak izango dira protagonista egun osoan barrena gurean. Tenperaturek gora egin arren, ez du argituko.

### EUSKAL HERRIAN

Zapatuan lainotsu izango da zerua eta toki batzuetan euria egin arren, eguzkia ere agertuko da. Domekan, aldiz, laino ilunagoek hartuko dute tokia eta euria ere egingo du.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Eguena, 5 — 7° C

**MAXIMOA** Egubakoitza, 6 — 15° C

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — 335,5 L

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria l/m² |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 4 | 15 | 13 | 3,4 |
| Eguena, 5 | 14 | 7 | 73,6 |
| Egubakoitza, 6 | 15 | 8 | 73,9 |
| Zapatua, 7 | 10 | 8 | 67,2 |
| Domeka, 8 | 10 | 8 | 72,9 |
| Astelehena, 9 | 10 | 8 | 13,8 |
| Martitzena, 10 | 12 | 11 | 29,7 |

## bono fotoa



**Mendeetan zehar urak eta haizeak egindako harrizko arkitektura ikusgarri hau Arantzazuko bidetik sumatu daiteke, baina haraino hurbildu behar da. Non dago eta nola du izena?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Fernandez

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Aretxabaletako **Enrique Caballé.**
Zorionak!
**Erantzun zuzena: Aramaio.**

Garmendia Ardoak
Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!
* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago kriantza botila bat.

**ERANTZUNA** ..........
IZEN-DEITURAK ..........
HERRIA .......... TELEFONOA..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 14 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 15 | Fernandez | Maisu Aranbarri, 1 | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 16 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 17 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Eguaztena, 18 | Español | Araba Etorbidea, 14 | 943 79 18 65 |
| Eguena, 19 | Ruiz | Nafarroa Eorbidea, 1 | 943 79 14 09 |
| Egubakoitza, 20 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 79 16 30 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 14 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 15 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Astelehena, 16 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Martitzena, 17 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Eguaztena, 18 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguena, 19 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Egubakoitza, 20 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 14 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 15 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 16 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 17 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 18 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 19 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 20 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 7 | Anitua | Belorrieta, 1) | 943 08 11 43 |
| Domeka, 8 | Anitua | Belorrieta, 1) | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 9 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 10 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 11 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 12 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 13 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.



Bergarako **Josu** eta Oñatiko **Iratxe** azaroaren 14an ezkonduko dira Murgia auzoko Asentzio ermitan. Zumarragako Etxeberri jatetxean egingo dute ospakizuna eta bidaian Argentinara joango dira. Ondo-ondo ibili, etxekoen eta lagun guztien partetik.



Paules de Larako (Burgos) **Urbano Gil** eta **Ascension Moreno** 1959ko azaroaren 16an ezkondu ziren. Hilaren 21ean ospatuko dituzte urrezko ezteiak Zumarragako Etxe-Berri jatetxean familiakoekin. Seme-alaben, biloben eta familiakoen partetik, zorionak, bikote!



Arrasateko **Manolo Colino** eta **Sonia Sesto** zapatuan, azaroaren 14an ezkonduko dira Uribarriko parrokian. Ondoren, familiakoekin Zarauzko Aiten-Etxe jatetxean ospatuko dute. Lagunen partetik, zorionak, bikote, eta ondo ibili Argentinan. Muxuak.



**Alberto Larrea** eta **Maria Pilar Arrondo** Oñatin bizi diren zegamarrek azaroaren 14an egingo dute urrezko ezteien ospakizuna. Zorionak, alaba Rosaren, seme Simonen eta biloba Jon, Ainhoa, Joseba eta Maiderren partetik, eta oso ondo ibili! Patxo bana.

## hildakoak

- **Serapio Azkarate Agirrezabal.** Antzuolan, azaroaren 5ean. 88 urte.
- **Isabel Ortueta Irasuegi.** Aramaion, azaroaren 5ean. 92 urte.
- **Pilar Larzanguren Unamuno.** Arrasaten, azaroaren 5ean. 72 urte.
- **Natalia Tena Sanchez.** Bergaran, azaroaren 6an. 63 urte.
- **Clemente Calzada Hernandez.** Oñatin, azaroaren 6an. 95 urte.
- **Maria Nieves Gallastegi Kortazar.** Bergaran, azaroaren 6an. 73 urte.
- **Begoña Lasaga Ibabe.** Arrasaten, azaroaren 6an. 48 urte.
- **Migel Angel Ena Garitaonandia.** Bergaran, azaroaren 7an. 62 urte.
- **Ignacio Kortabarria Larzanguren.** Arrasaten, azaroaren 10ean. 83 urte.
- **Dolores Uribetxeberria Osinaga.** Arrasaten, azaroaren 11n. 84 urte.
- **Juan Markiegi Garai.** Elgetan, azaroaren 11an. 81 urte.

OROIGARRIA

## Pilar Larzanguren Unamuno

Gasteizen hil zen 2009ko azaroaren 5ean.

Urte guzti hauetan emandako laguntzagaitik, eskerrik asko.
Beti gogoan izango zaitugu.



Arrasaten, 2009ko azaroaren 13an.

ESKER ONA

## Maria Nieves Gallastegi Kortazar

Bergaran hil zen 2009ko azaroaren 7an, 73 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko azaroaren 13an.

URTEURRENA

## Iñaxita Erostarbe Uriarte

Lehen urteurreneko meza zapatuan, azaroaren 14an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian ospatuko da.

—

*Ama Birjinak*
*gorde dezala bere magalean,*
*hain maitatua izan dugun*
*emazte, ama eta amama.*



Bertaratuko zareten guztioi, aurrez mila esker.

URTEURRENA

## Juan Emilio Barrena Gorostiza

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 15ean, 12:30ean, Musakola auzoko Santa Teresa elizan ospatuko da.

—

*Betirako gure bizitzan,*
*betirako gure bihotzean.*
*Maite zaitugu.*



Zure emazte eta alaba: Olatz eta Ione.
Arrasaten, 2009ko azaroaren 13an.

URTEURRENA

## Susana Larrañaga Guillen

*Orain urtebete joan zinen*
*baina gure bihotzetan*
*betirako egongo zara.*



Ziripoteko lagunak.
Bergaran, 2009ko azaroaren 13an.

URTEURRENA

## Susana Larrañaga Guillen

*Asier eta familiakoek*
*ez zaitugu inoiz ahaztuko.*



Bergaran, 2009ko azaroaren 13an.

URTEURRENA

## Susana Larrañaga Guillen

Lehen urteurreneko meza domekan, azaroaren 15ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Susana Larrañaga Guillen

2008ko azaroaren 13an hil zen, 24 urte zituela.

*Epa Susi, zer moduz?*
*Zurekin gare gu.*
*Bihotz-bihotzez, irri*
*barrerik ezizu galdu.*
*Betirako barnian*
*eukiko zaittugu,*
*kuadrilako batasunak*
*mugarikan ez du.*



Zure kuadrilakuak.
Bergaran, 2009ko azaroaren 13an.

## ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**
Edo zatoz ordezkaritza batera.
**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.
**Goienkaria: astero, 36.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



ESKELA

## Juan Bautista Markiegi Garai

Elgetako Udaleko langile ohia

Elgetako Udalak bat egiten du familiaren saminarekin.

Elgetako Udala

Elgetan, 2009ko azaroaren 13an.

# Azaroak 13-20

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



ESKORIATZA
**> Jimmi Arrabit Trio eta Petti gaur, Inkernuren 6. urtemuga ospatzeko**
Jimmi Arrabit Trio taldeak eta Pettik emanaldia egingo dute gaur gauean Eskoriatzan, Aitzorrotz kultura elkarteak Inkernuren 6. urtemuga ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan. Gaur, egubakoitza, 22:45ean Inkernu tabernan.

## Musika



ARRASATE
**> Orereta abesbatzaren emanaldia zapatuan San Juan parrokian**
Orereta abesbatza 50 gaztetxo inguruk osatzen dute. Imanol Elizasuren zuzendaritzapean, *Ave Maria* (Caccini), *Pasayan Xexenak* (Garbizu) eta *Euskal jokoak* (Busto) piezak abestuko dituzte, besteak beste. Bihar, zapatua, 20:00etan.

## Musika



OÑATI
**> El Escorial, Montserrat eta Easo eskolaniak zapatu eguerdian Arantzazun**
150 haur kantari batuko dira bihar, zapatua, Arantzazun, 12:00etan. Eskolania onenen artean dira Easo, Montserrat eta El Escorial. Kulturen arteko topaketa ere bada biharko kontzertua, gazteleraz, katalanez eta euskaraz abestuko dute-eta.

Azaroaren 29ra arte Aroztegi aretoan. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

OÑATI
**> Teresa Diazen margo erakusketa kultura etxean**
Teresa Diaz oñatiarrak hainbat koadro ikusgai jarri ditu kultura etxean.
Azaroaren 13tik azaroaren 27ra. Erakusketa egunero zabalik, 18:00etatik 20:00etara.

ARRASATE
**> 'Goikobalu abesbatzaren ibilbidea argazkitan'**
Goikobalu abesbatzaren eta Goikobalu Txikiren urteurrenen harira antolatutako erakusketa.
Harresi aretoan, gaur eta bihar, zapatua, 18:0etatik 20:00etara. Azaroaren 20an ordutegi berean izango da zabalik.

# Musika

ARRASATE
**> Vomito, Golpe de Estado eta Argi Ibili taldeak 3 aretoan**
Vomito irundarrak eta Golpe de Estado eta Arbi Ibili oñatiarrek emanaldia egingo dute Arrasaten.
Gaur, egubakoitza, 3 aretoan, 22:30ean. Sarrerak aurrez 8 eurotan; leihatilan, 10 euro.

ARRASATE
**> Acoustic Covers Band Biterin zapatuan**
*Erdigunea piztu!* egitarauaren barruan.
Bihar, zapatua, Biterin, 19:30ean.

ARRASATE
**> Bill Lierly zapatuan Gure Leku tabernan**
Blues, country eta rock doinuak uztartzen ditu Bill Lierly estatubatuarrak.
Bihar, zapatua, Gure Leku tabernan, 23:00etan. Sarrera doan.

# Dantza

ARRASATE
**> Dantzen jaialdia bihar Amaian**
Euskadiko Extremadurako Elkarteen Federazioak antolatuta.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

# Antzerkia

ARRASATE
**> Cesar Buenoren bakarrizketa Iamai kafetegian**
Magia eta umorezko bakarrizketa.
Gaur, egubakoitza, gauerdian Iamai kafetegian, Kontzezino kalean.

ARRASATE
**> 'La mujer sola' eguenean Kulturaten**
Asun Abad antzezlearekin, Ana Maestrojuanek zuzenduta. Dario Foren eta Franca Rameren testuan oinarrituta.
Eguenean, hilaren 19an, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan. Emakume Txokoak antolatuta.

OÑATI
**> Maskarada taldearen 'Souvenir' datorren egubakoitzean**
Historiako kantaririk txarrenari buruzko antzezlana, Maskaradaren eskutik. Estreinaldia euskaraz.
Azaroaren 20an, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Sarrerak: 10 euro.

# Erakusketak

ARRASATE
**> Naturaren argazkilariak**
Naturan egindako argazkien bilduma ikusgarria.
Kulturaten, gaurtik abenduaren 6ra.

ARETXABALETA
**> Xabier Iturraranen margo erakusketa**
Hainbat koadro ikusgai jarri ditu Xabier Iturraranek Arkupeko aretoan.
Azaroaren 30era arte egongo da erakusketa zabalik. Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Zapatuetan, goizez bakarrik egon.

BERGARA
**> On Serafinek ateratako argazkien erakusketa**
Serafin Esnaola apaizak Bergarako egonaldian (1964-1992) ateratako 100 argazkiez gainera, hark erabilitako zinema eta diapositiba proiektoreak, zinema eta argazki kamerak eta editatzeko tresnak egongo dira ikusgai. On Serafin zenak egindako hainbat film ikusteko aukera ere izango du bisitariak.

# Ikastaroak

BERGARA
**> Argazkilaritza ikastaroa Photoshop bitartez**
Azaroaren 16tik 26ra (sakontze maila).
Argibide gehiago kultura etxean, 943 77 91 58 telefonoan.

ARRASATE
**> Mendekotasuna duten adinekoen zaintza ikastaroa**
Azaroak 16, 18, 23 eta 25, 15:30etik 18:30era.
Argibideak: 943 76 93 94 telefonoan (Miren) edo *info@bizikasi.com* helbidean.

PROPOSAMENA



ARRASATE
## > Naturaren argazkilariak Kulturaten

Erakusketa ikusgarria dago egunotan Arrasaten. Naturak utzitako irudi ikusgarriz osatutako argazki bilduma ederra ekarri dute Kulturateko klaustrora. Hain zuzen, 1964. urtetik *Naturaren argazkilariak* naturako argazkilaritza lehiaketa entzutetsuenekoa da; iaz, esaterako, 32.350 erretratu jaso zituzten, 82 herrialde ezberdinetatik. Arrasaten, 83 argazki jarri dituzte ikusgai. Naturaren edertasuna jaso eta erakustea da lehiaketen helburua eta irudi benetan ikusgarriak daude erakusketan.
Kulturaten, abenduaren 6ra arte. Martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**PLANETARIUM**
**Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta**

**Azaroak 14ko karteldegia:**
**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu. 12:00 (eusk.)
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa. 13:00 (gazt.)
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia. 15:30 (fran.).
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat. 17:00 (eusk.)
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia. 18:00 (gazt.)

**ANIMAZIO, IKUSKIZUN ETA ERAKUSTALDIAK...**

**Azaroak 14:**
**- Elektrizitate ikuskizuna:**
12:00 - 13:15 - 16:15 – 17:00
**- Planetarium Txiki:**
12:45 – 16:0
- Esperimentuak zuzenean:
18:00

**Azaroak 15:**
**- Ate irekien eguna Miramongo Parke Teknologikoan**

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org
**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00
Asteburu eta jai-egunetan: 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

ARRASATE

**> Sendabelarren ikastaroa Ekin elkartearen eskutik**

Azaroaren 25etik aurrera. Ekin Emakumeek elkarkidetza bultzatzeko antolatuta.

Izenematea 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 zenbakietan.

ARRASATE

**> Dementziak dituzten adinekoen zaintza ikastaroa**

Abenduaren 14tik 18ra, 15:30etik 18:30era.

Argibide gehiago 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietan.

ARETXABALETA

**> Dantza afrokaribearrak Jaiki elkartearen eskutik**

Martitzenero, 19:30etik 21:00etara, Aretxabaletako kuartel zaharrean. Ekainera arte.

Izenematea 653 70 50 68 telefonoan edo *jaikielkartea@ayahoo.es* helbidean.

ARETXABALETA

**> Hainbat ikastaro Arkupen**

Pintura, bainika, eskulan eta zeramika ikastaroak izango dira azaroan.

Argibideak Arkupen, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

ESKORIATZA

**> Gaztetxoei zuzendutako sexologia ikastaroa zapatuan**

12-14 urte bitarteko gazteei zuzenduta, Mirari Arando sexologa izango da tailerra bideratuko duena.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan. Txatxilipurdiko gazte sailak antolatuta.

ESKORIATZA

**> Larrugintza ikastaroa azaroko eguenetan**

Ikastaroa 18:00etan izango da eta Ainara Kortabarria izango da ikastaroa bideratuko duena. Lau saio izango dira, azkena azaroaren 26an, eta hauetan larrua landu eta eskulan ezberdinak egiten ikasteko aukera izango da; karteratxoak, lepokoak, giltza takoak… bideratuko duena.

Argibideak eta izenematea Txatxilipurdin, 943 79 54 46 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Komiki tailerra asteburuan Kulturaten**

Azaroaren 13an eta 14an, Anartz Aranguena ikasleareekin. Bereziki 14 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago.

Arrasateko Udal Bibliotekak antolatuta. Argibideak 943 25 20 28 telefonoan.

## Lehiaketak

DEBA

**> Tene Mujika beka, historia hurbilaz idazteko**

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak, Euskal Herriko historia hurbilaren ezagutza zabaltzeko eta gure literatura aberasteko asmoz, V. Tene Mujika beka sortu dute.

Proiektuak abenduaren 1era arte jasoko dituzte: Tene Mujika Beka, Debako Udaletxea, 20820 Deba. Argibide gehiago 943 19 28 40 telefonoan jaso ditzakete interesatuek.

# Zinema



## Adam ***

**Zuzendaria:** Max Mayer.
**Aktoreak:** Hugh Dancy, Rose Byrne.
AEB, 2009. 99 minutu.

Asperger sindromea (autismoarekin lotura duen arazo psikikoa) duen New Yorkeko gazte bat da Adam. Bizi den eraikinera haustura sentimental bat jasan duen neska bat heltzen da, eta bien artean sortzen eta sendotzen doan amodio istorioa izango da filmaren ardatz nagusia.

*Adam* ukitu dramatikoak dituen komedia sentimentala da. Amodio istorioa da Max Mayerrek indartu nahi duena; horregatik esaten badugu komedia bat dela ez da barre ugari sorrarazten duelako. Irribarrea bai, baina momentu dramatikoekin nahastuta. Eta ukitu dramatikoak baditu ere, dramak ez du melodrametan gertatzen den moduan osotasunean eztandarik egiten. Zuzendariak oreka bat lortzen du komediaren eta dramaren artean eta horiekin jokatzen badu ere, ez da komedia sentimentalen egoera gozoegietan erortzen: bai, erabiltzen ditu genero horretako klitxe batzuk (halako filmetan ia derrigorrez sartzen den abestia…), baina halako kiribil horretan sartzeko arriskuan dagoela sumatzen dugunean, istorioan izaten dira tonu aldaketak, topikoetatik ihes egiteko.

Filmaren hasieran ondo azaltzen da Adamen egoera. Gizarteratze arazoak ditu, besteekin komunikatzeko arazoak ditu, ez ditu gizartearen araudiak ulertzen: ironia eta esaldien zentzu bikoitza, noiz den zerbait esateko edo isiltzeko momentu egokia. Oso ondo dago hasierako partean neskak Adam irtetera gonbidatzen duenean; desiratzen dago, eta nahiz aspaldi gertatuta egon, ez da irtetera ausartzen. Gaixotasuna ez da filmaren ardatz nagusia, gaixotasuna komedia sentimentalean barnean osatzen da, eta erabiltzen da harremanei tonu biraketa emateko. Komedia, drama eta amodio harramena ondo lotzen dira, *Adam* ez da gogorregia ezta bigunegia ere; komedia eraginkor bat da, aktoreen lanari ezker xarma berezia duen komedia.

Antonio Zabala

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**El secreto de sus ojos**
Domeka: 19:30.

**Shorts, la piedra mágica**
Domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ZARAIA**

**Pagafantas**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**La montaña embrujada**
Domeka: 17:00.

**Qué les pasa a los hombres**
Eguena: 19:30.

### OÑATI

**KULTUR ETXEA**

**Agora**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Kika superbruja**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Los limoneros**
Eguena: 20:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**La duda**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Bolt**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Still walking**
Eguena: 20:00.

**GAZTETXEA**

**El método Gronhölm**
Domeka: 18:00.

### ELGETA

**ESPALOIA**

**Ases calientes**
Eguaztena: 21:30.

### EIBAR

**COLISEO ANTZOKIA**

**Cuento de Navidad**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**2012**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 1**

**2012**
Egubakoitza: 22:00.

**Katyn**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.

**COLISEO 2**

**Cuento de Navidad**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**2012**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Triage**
16:45, 18:40, 20:35, 22:30,

**El imaginario del Doctor Parnassus**
17:30, 22:30.

**2012**
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 16:30, 19:25, 22:20.
Domeka: 17:30, 20:30

**Siempre a tu lado, Hachiko**
17:00, 18:45, 22:30.

**Pandorum**
17.:00.

**The Box**
20:00.

**Destino Woodstock**
17:30, 20:00, 22:30.

**Sin nombre**
20:35.

**La chica que soñaba con una cerilla...**
19:45, 22:30.

**Cuento de Navidad**
16:45, 18:40, 20:35, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

**FLORIDA-GURIDI**

**Celda 211**
17:30, 20:00, 22:30.

**Pluk eta bere garabia**
17:30.

**Julie y Julia**
17:30, 20:00, 22:30.

**La causa de Kripan**
17:15, 20:30, 22:30.

**50 hombres muertos**
17:15, 20:00, 22:30.

**Partir**
17:30, 20:00, 22:30.

**El secreto de sus ojos**
20:00, 22:30.

**Agora**
17:15, 20:00, 22:30.

**El viaje de la tortuga**
19:00.

Egubakoitzetik domekara.

**YELMO CINEPLEX**

**Cuento de Navidad**
(3-D emanaldiak)
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:30,19:30, 21:30, 23:30.
Egubakoitzetik domekara.

**Cuento de Navidad**
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**The Box**
15:50 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.

**Pandorum**
20:15, 22:15, 00:15.

**Celda 211**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:25, 22:30, 00:35.

**Julie y Julia**
19:35, 21:55, 00:20.

**Siempre a tu lado, Hachiko**
15:50 (zapatuan eta domekan), 17:50, 19:50.

**2012**
15:30 (domekan), 17:30, 18:30, 20:30, 21:30, 23:30, 00:30.

**Triage**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**This is it**
15:55 (zapatuan eta domekan), 18:05.

**G-Force**
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:40, 19:40.

**La cruda realidad**
21:40, 23:40.

**Agora**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:40, 20:00, 22:25, 00:50.

**La chica que soñaba con una cerilla...**
16:45 (zapatuan eta domekan), 19:15, 21:45, 00:15.

**Malditos bastardos**
18:25, 21:25, 00:25.

**Vicky el vikingo**
15:35 (zapatuan eta domekan), 17:35.

**Pequeños invasores**
16:00 (zapatuan eta domekan).

**El secreto de sus ojos**
21:50, 00:25.

Azaroaren 13tik 17ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Celda 211**
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 00:45.

**Siempre a tu lado, Hachiko**
16:10, 18:05, 20:05, 22:05, 00:30.

**Pandorum**
16:05, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

**Cuento de Navidad**
16:00, 18:15, 20:20, 22:30, 00:40.

**The Box**
15:50, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Julie y Julia**
17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

**La chica que soñaba con una cerilla...**
17:00, 19:45, 22:30.

**G-Force**
16:00, 18:00.

**2012**
15:45, 16:15, 18:45, 19:15, 21:45, 22:15, 00:45.

**This is it**
20:25, 22:40.

**La huérfana**
15:45, 18:05.

**Agora**
15:45, 18:05, 20:25, 22:45.

**El destino final**
20:00, 22:00, 00:30.

Azaroaren 13tik 17ra. Gauerdiko emanaldiak egubakoitzean eta zapatuan.



**Agora**
Zuzendaria: Alejandro Amenabar Espainia, 2009. 141 minutu.
IV. mendearen amaieran, Egipto Erromatar Inperioaren probintzia bat zen. Alexandria zen haren hiri nagusia. Hipatia astronomo eta filosofoa liburutegia salbatzen ahaleginduko da, eta Davo haren esklaboak bi aukera izango ditu: Hipatiarekin jarraitu, edo kristauekin bat egin, askatasuna lortzeko. Canneseko Jaialdian aurkeztu zen Amenabarren (*Abre los ojos*, *Los otros*) azken filma.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El secreto de sus ojos**
Argentina 2009. Zuzendaria: Juan Jose Campanella.
Buenos Aireseko epaitegi bateko idazkaria da Benjamin Exposito. Erretiratzera doa, eta duela 30 urte gertatutako zerbaiti buruzko eleberri bat idazteari ekingo dio. 70eko urteak ekarriko ditu gogora: orduan izandako hilketa bat eta, aldi berean, gauzatu gabeko maitasun istorio bat.

**This is it**
AEB, 2009. Zuzendaria: Kenny Ortega.
Michael Jackson hil aurretik, agertokietara itzultzeko egiten ari zen entseguen irudiekin osatutako dokumentala da.

**Millenium 2: La chica que soñaba con una cerilla y un bidón de gasolina**
Suedia, 2009. Zuzendaria: Daniel Alfredson
Poliziak gehien bilatzen dituen pertsonen zerrendako lehena da Lisbeth Salander. *Millenium* aldizkariko bi kolaboratzailek sexu merkataritzari buruzko eskandalu bat argitaratu behar dute eta, orduan, hilda azalduko dira. Heriotza eragin dien armak Lisbethen hatz aztarnak ditu... Liburu trilogia arrakastatsuaren bigarren zatia pantaila handira iritsi da dagoeneko.

**nire aukera**



Iñigo Trueba
Hiruatx gobernuz kanpoko erakundekoa

## Ibarraundiko hitzaldira bihar

Donostiarra da Iñigo Trueba (40 urte), Aiete auzokoa, hain zuzen; "Baina langileen partekoa, badagoelako baita Aiete *aberatsa* ere", zehazten digu. Dena dela, erdi debagoiendar ere bada honezkero, duela hamar urte etorri zelako gure ibarrera; Aretxabaletan, hain zuzen. Ingeniari Informatiko ikasketak egin zituen Donostian, eta, esan bezala, 1999a ezkero Hiruatx gobernuz kanpoko erakundean dihardu lanean.

Argazkilaritza, mendia eta sukaldaritza dira Truebaren zaletasunetako batzuk. Normalean, aste bukaeretan Donostiara, familiarengana eta hango lagunengana jotzen du, baina oraingoan hemen geratuko dela diosku.

**Asteburureako planik bai?**
Zapaturako bai, behintzat. Elkarhezitzen-ek antolatutako hitzaldira joateko asmoa dut. Monica Sanchez Girao nazioarteko aholkulari eta ikertzailea eta Inter Iuris elkarteko kidea Eskoriatzara etorriko da, giza eskubideen gainean berba egitera. Hain zuzen ere, *Guztion eskubideak* hitzaldia egingo du, 09:30ean, Ibarraundin. Ondoren, bazkaltzeko elkartuko gara hainbat lagun, paseotxo bat Eskoriatzan eman eta Monicari lagunduko diogu Gasteizera. Pentsatzen dut goiz erretiratuko garela zapatuan.

**Eta domekarako, zer?**
Normalean, mezetara joaten naiz, Aretxabaletako mojetara, 09:00etan, eta ondoren, eguraldiak laguntzen badu, Urkulun bueltatxoa ematea gustatzen zait. Pentsatzen dut urtegia beteta izango dela azken egunotan euri zaparradekin... Etxeko lanak egiteko ere aprobetxatzen dut domeka.

**Aretxabaletan, aisialdiari dagokionez, zerbaiten falta sumatzen duzu?**
Ekitaldi eta aukera asko dago, baina zera gertatzen da: jendearen parte-hartzea lortzea ez dela erraza izaten; jai nagusietan ez bada, behintzat.

Edu Mendibil

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-11-13

# New Yorkera korrika egitera

**MARATOIA** Iñigo Labaien eta Iban Vitoria arrsatearrek parte hartu dute New Yorkeko maratoian

**KORRIKALARI UGARI** 105 herrialdetako 45.000 lagunek parte hartu dute aurtengo edizioan

**IBILBIDEA** 42 kilometro egin dituzte, eta New Yorkeko bost konderri garrantzitsuenak zeharkatu

NAROA ODRIOZOLA > ARRASATE

Iñigo Labaien eta Iban Vitoria arrasatearrak New Yorkeko maratoian egon dira. Maratoia, urtero, azaroko lehen igandean egiten dute eta oso jendetsua izaten da. Aurten 45.000 pertsonak hartu dute parte. Arrasatearrak pozik daude lortutako markarekin. Izan ere, lehenengo 4.000 artean amaitu dute 3 ordu eta 27 minututuko denborarekin. Domina jaso dute sari gisa. Esan digutenez, maratoiko gauzarik deigarriena ibilbidea da, New Yorkeko bost konderri garrantzitsuenak zeharkatzen dituelako: Staten Island, Brooklyn, Queens Manhattan eta Bronx.

**LAGUNAK ERE NEW YORKERA**

Maratoiko 42 kilometroak egiteko, ekaina ezkero jardun dute gogor entrenatzen Labaienek eta Vitoriak. Hala ere, aurretik Behobia-Donostian parte hartutakoak dira.

Arrasateko atletak, ez ziren, baina, bakarrik joan. Hamahiru lagunekin batera ekin zioten abenturari. Izan ere, maratoian parte hartzeaz gain, astebetez egon ziren hiria bisitatzen; oporretan, lagunekin batera.

**MARATOI ESANGURATSUA**

Oso urruti gelditu da, jada, maratoiaren lehenengo edizioa (1970). Orduan 127 lagunek parte hartu zuten. Aurtengoa 40. edizioa izan da eta 105 herrialdetako atletek parte hartu dute. Maratoian korrika egiteko, zozketa batean parte hartu behar da. Zozketa horretan, aurretik parte hartutakoek lehentasuna dute; ondoren, New Yorkeko biztanleak izaten dira aukeratuak; eta azkenik, beste guztiak. Hala, helmuga gurutzatzea bezain zaila da bertan parte hartu ahal izatea.

**IRABAZLEA, AMERIKARRA**

Hogeita zazpi urte igaro behar izan dira New Yorkeko maratoia berriro estatubatuar batek irabazteko. Meb Keflezighi izan da aurten azkarrena (02:05:15); berez, Eritreakoa da bera.



**NEW YORKEN** Labaien eta Vitoria, lagunekin lasterketa ondoren. OIHANA RIESCO

## ahobero

### "Idolo bat naiz eta maila horretako tratua eman behar lidakete; beste herrialde batzuetan idoloak ezberdin tratatzen dituzte"

**Lothar Matthaus** > Futbolari ohia

Idolo izan ala ez, norberak erabakitzen du ala maila hori merezia daukala uste duenak ematen dio? Umilagoa balitz eta zaleei eskerrak emango balizkie, orduan, beharbada, igoko lukete goi mailara.

## iturri onetik

### Markel Irizar abenduan hasiko da talde berriarekin lanean, Arizonan

Irizarrek dagoeneko jaso du datorren denboraldian defendatuko duen Radio Shaq taldearen materiala, eta Oñatikoari abenduan amaituko zaio oporraldia, hil horretan Arizonara (AEB) egingo dueta bidaia, taldekide berriekin egun batzuk kontzentratuta igarotzera. Bestalde, Irizarren lagunarteak hilaren 21erako antolatu du spinning saioa, mahai-ingurua eta ondorengo bazkaria.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Harresiak

Hogei urte bete diren aitzakiatan, Berlingo harresia izan da asteon hizpide errepikakor hedabideetan. Gerra hotzaren ondorio eta sufrimendu handien toki, askatasun ikur bihurtu zen harresia gizarte kapitalistarentzat bezala gainbehera zetorren komunismo zaharkituarentzat. Ezin uka, ni ere poztu egin nintzen desagertu zenean.

Baina hogei urte geroago, zurikeria nazkantea iruditu zait ospakizunen zirkua, munduko beste hainbat parajetan harresi berriak eraikitzen ari diren bitartean, Mexiko edota Palestina nabarmenen. Mingarria bada ikustea ez dugula ikasten, are mingarriago egiten zait hain lotsagabe erakustea iraganeko eskarmentua ez dela ikasgai baizik merkantzia. Zenbat diru mugitu du harresiaren kontuak aste honetan bertan?

## ai, ene!




### Betiko tartez aspertuta daudenendako argazkia

Urtebetetzerako betiko tartarik ez duzula nahi? Bada, eskatu gozogozo eta nahi duzun irudikoa egingo dizute; argazkia horra.

www.sarda.es



UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
K21

arotz lanak orokorrean • leihoak • ateak • horma-armairuak

**erakusketa eta tailerra**
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

**altzari denda**
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30

